



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

ee1e408501b31ac21670dc93aae15d4abd965dc313e216c5a6231edd7b660f8a

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO URTARRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2022.01.27

Tolosako Udaletxean, 2022ko urtarrilaren hogeita zazpian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeke, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV)(2. puntuan kargua hartu du).
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Ondorengo akta hau onartzea:
2021eko abenduaren 23ko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
2. Xarles Iturbe Pasaban jaunak zinegotzi kargua hartzea.
3. Onartzea, 2022. urterako, udal langileen eta dedikazioz aritzen diren korporazioko kideen ordainsarien igoera.
4. Tolosako Udaleko zinegotzien dedikazioaren araubidea aldatzea.
5. Hasierako onespina ematea Tolosako Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren lehen atalari.
6. Onartzea Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arteko uraren ziklo osoaren kudeaketarako kudeaketa agindua eta hura arautzen duen hitzarmena.
7. Behin betiko onespina ematea "13. Laskoain" esparruko "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruko xehetasun-azterlanari.
8. Azkendutzat ematea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruaren garapenerako sinatutako hirigintzako hitzarmena.
9. 2022/97 Alkatetza Dekretuaren berri ematea: Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren lizitazioan CASER RESIDENCIAL, S.A.U. enpresak bidalitako langile subrogagarrien behin betiko zerrenda argitaratzea eta eskaintzak eta proposamenak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 28 arte luzatzea.
10. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. **ONDORENGO AKTA HAU ONARTZEA:**
2021EKO ABENDUAREN 23KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.



2. XARLES ITURBE PASABAN JAUNAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Bertaratutakoei jakinarazi zaie Hauteskunde Batzorde Nagusiak, 2021eko abenduaren 29an egindako agiriaren arabera, Tolosako Udaleko zinegotzi izendatu duela Xarles Iturbe Pasaban, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO taldearen izenean.

Izendapen berriaren arrazoa da Nerea Letamendia Belloso andredak bere zinegotzi karguari uko egin izana. Ontzat eman zuten hori 2022ko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran.

Izendatu berria izan denak aitortu du hautaezintasun arrazoirik ez duela zinegotzi kargua hartzeko, eta betetzen dituela gainontzeko baldintza guztiak.

Ondoren, udal idazkariak, 5/1985 Lege Organikoak, ekainaren 19koak, Hauteskundeetako Araubide Orokorra arautzen duenak, 108.8 artikuluan xedaturikoa betez, honako hau irakurri dio:

“Zin egiten duzu edo hitz ematen, zure kontzientziagatik eta ohoreagatik, Erregeari leial izanda, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguaren obligazioak, eta Konstituzioa bete eta betearaziko dituzula, Estatuaren oinarrizko araua delako?”

Zinegotziak honela erantzun du: *“Bai, legeak aginduta”*.

Segidan, Xarles Iturbe Pasaban jaunak Tolosako Udaleko zinegotzi kargua jabetzan hartu du, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO taldearen izenean.

3. ONARTZEA, 2022. URTERAKO, UDAL LANGILEEN ETA DEDIKAZIOZ ARITZEN DIREN KORPORAZIOKO KIDEEEN ORDAINSARIEN IGOERA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko urtarrilaren 19ko irizpena

AURREKARIAK

2021eko abenduaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean, 22/2021 Legea argitaratu zen; bertan, 2022. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorra onartu ziren eta, txosten honi dagokionez, sektore publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak onartzen dira.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehena.- Lege hori aplikagarri zaie udal guztiei, izan ere, ordainsariei dagokienez, oinarrizko araudizat hartuta dago eta, gainera, legeak “sektore publiko” gisa honako entitateak barnebiltzen ditu bere 19.Bat artikuluan:



“Uno. A efectos de lo establecido en el presente Capítulo, constituyen el sector público:

- a) La Administración General del Estado, sus Organismos autónomos y Agencias estatales y las Universidades de su competencia.
- b) Las Administraciones de las Comunidades Autónomas, los Organismos de ellas dependientes y las Universidades de su competencia.
- c) Las **Corporaciones locales y Organismos de ellas dependientes**.
- d) Las Entidades Gestoras y Servicios Comunes de la Seguridad Social.
- e) Los órganos constitucionales del Estado, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 78 de la Constitución.
- f) Las **sociedades mercantiles públicas**, entendiéndose por tales aquellas en las que la participación, directa o indirecta, en su capital social de las Administraciones y entidades enumeradas en este artículo sea **superior al 50 por ciento**. En el sector público estatal se considerarán como tales las reguladas en el artículo 111.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- g) Las entidades públicas empresariales y el resto de los organismos públicos y entes del sector público estatal, autonómico y local.
- h) Las fundaciones del sector público y los consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el sector público.
- i) El Banco de España en los términos establecidos en la Ley 13/1994, de 1 de junio, de Autonomía del Banco de España.
- j) El Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria (FROB).”

Hortaz, lege hau aplikagarri izango zaie Tolosako Udaleko langileei.

Bigarrena.- 2022. urtean sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak honako igoera hau izateko aukera izango dute, aipatutako 19.BI artikulua bainan:

Dos. En el año 2022, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un **incremento** global superior al **2 por ciento** respecto a las **vigentes a 31 de diciembre de 2021**, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2021. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios,



complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

Tres. En el sector público se podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos siempre que no se supere el incremento global fijado en el apartado anterior.

Cuatro. 1. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado Dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.

Se exceptúan, en todo caso:

- a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.
- b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.
- c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.
- d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.”

Hortaz, 2022. urtean, sektore publikoko langileek % 2ko igoera izango dute ordainsarrietan, 2022ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, 2021eko abenduaren 31n zuten ordainsariekiko.

Hirugarrena.- Dedikazioz aritzen diren korporazioko kideen ordainsarien erregulazioa ere aztertu behar da. Beraien ordainsariak arau hauetan oinarritzen dira:

-Batetik, Erregimen Lokaleko Oinarrizko Legearen 75. artikuluan eta Euskadiko Udal Instituzioen 32. eta 33. artikuluetan arautzen dira.

- Bestetik, 1/2015 Foru Dekretu/Arauak, ekainaren 30ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko kopuruak arautzen ditu. Bertan, 10.001 eta 20.000 biztanle artean dauden udalerrietako karguentzat ezarritako ordainsariak ez du 67.087 euro gordin urtean gainditu behar.

Ildo honetatik, dedikazioz aritzen diren korporaziokideen ordainsarien kasuan, beste hiru xedapen hartu behar dira kontuan:



- Lehena, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 30eko 1/2015 Foru Dekretu-Arauaren artikuluko bakarraren laugarren atalean xedatzen du korporaziokideen ordainsariei ezarritako mugak eguneratuko direla erreferentzia gisa hartuta Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak eguneratzeko erabilitakoak. Aldi berean, artikuluko bakar horren lehen atalak, besteen artean, 10.001etik 20.000 biztanle arteko urteko ordainsarien gehieneko mugak ezartzen ditu.

- Bigarrena, aipatzen diren eguneraketa horiek Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero onartu beharreko aurrekontuetan xedatzen dira. 2022. urterako hauxe arautzen dute:

a) 11/2021 Legeak, abenduaren 23koak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, 19. artikuluan langileen ordainsariak arautzen ditu eta honakoa xedatzen du 19.13 puntuan: «Sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarriko xedapenak eragotzi gabe, lehendakariaren, sailburuen, goikargudunen eta berdinduen 2022ko ekitaldirako ordainsariak ezin izango dute % 2tik gorako gehikuntzarik izan 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, antzinatasuna dela-eta egokitu dakiekeen gehikuntza eragotzi gabe».

b) 6/2021 Foru Arauak, abenduaren 22koak, Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, bosgarren xedapen gehigarrian, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehazten ditu eta honela xedatzen du:

«1. Asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak ondorengo taularen arabera izango dira, kanpoan utzita, hala balegokio, zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioek jaso ditzaketen hirurtekoak, eta kontuan izanda, besteak beste, toki entitatearen izaera eta biztanleria:

<i>Biztanleak</i>	<i>Erreferentzia</i>
50.001etik aurrera	Eusko Jaurlaritzako sailburua – % 10
20.001etik 50.000ra	Eusko Jaurlaritzako sailburua – % 15
10.001etik 20.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria
5.001etik 10.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – % 10
1.000tik 5.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – % 25



- Hirugarrena, Udalbatzak 2022. urterako aurrekontuekin batera onartutako exekuzio arauaren 34. artikulua arautzen du Udalbatzako kideentzako ordainsariak beren kargua betetzen dutenean, dedikazio osoz edota partzialki, eta, bertan, 3 puntu xedatzen du haien ordainsariak Udaleko langileentzako oro har onartzen den gehikuntza bera izango dutela.

Laugarrena.- Onartzeko prozedurari dagokionez, bi xedapen gutxienez kontuan hartu beharko dira:

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duenak, 37.1 a) artikuluan ezarritakoaren baitan, udal langileen ordainsarien igoeren aplikazioa udal ordezkari sindikalekin negoziatu beharko da.

Bosgarrena.- Ordainsarien igoera honek Udaleko aurrekontuan badu kontsignazioa dagoeneko.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2019ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, gaia aztertu zuen eta bozkatu. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPEN PROPOSAMENA

Lehena.- % 2ko igoera onartzea, 2022. urterako, Tolosako Udaleko langileen (funtzionario, lan kontratudun zein pertsonal ebentual) ordainsarietan.

Bigarrena.- Handitzea aurreko atalean ezarritako ehuneko berean dedikazioa duten korporazioko kideen ordainsariak, betiere muga gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legean eta Gipuzkoako Aurrekontuei buruzko Legean eta Foru Arauan ezarritako ehunekoak eta kopuruak gainditzen ez badituzte.

Hirugarrena.- Onartzea aurrekontuan kontsignatua dagoen 214.754 euroko gastua, igoera aplikatu ahal izateko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier



Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du 2022. Urterako, udal langileen eta dedikazioz aritzen diren korporazioko kideen ordainsarien igoera.

4. TOLOSAKO UDALEKO ZINEGOTZIEN DEDIKAZIOAREN ARAUBIDEA ALDATZEA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko urtarrilaren 19ko irizpena

AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2019ko uztailaren 19an egindako osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

LEHENA.- Tolosako alkate-lehendakariaren dedikazioaren araubidea onartzea, ondokoaren arabera: *Dedikazio eskusiboa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Gipuzkoako Foru Aldundiak xedaturikoa, Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona 71.286,99 € urtean. Eraginkortasun-data: 2019ko ekainaren 15a.*

BIGARRENA.- Ondoko zinegotzi delegatuen dedikazio-araubidea onartzea:

- **Antolakuntza Lan-Esparruko koordinatzailea, eta Administrazio Orokorreko Saileko zinegotzi delegatua:** *Dedikazio eskusiboa, % 100ekoa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona ken %20 57.029,59 € urtean. Eraginkortasun-data: 2019ko irailaren 1a.*
- **Herritarren Lan-Esparruko Koordinatzailea eta Turismo, Merkataritza eta Azoketako Azpisailleko zinegotzi delegatua:** *Dedikazio eskusiboa, % 100ekoa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona ken % 20: 57.029,59 € urtean. Eraginkortasun-data: 2019ko ekainaren 15a.*
- **Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko Azpisailetakoz zinegotzi delegatua:** *Dedikazio eskusiboa, % 100ekoa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona ken % 20: 57.029,59 € urtean. Eraginkortasun-data: 2019ko ekainaren 15a.*
- **Kiroletako zinegotzi delegatua:** *Dedikazio eskusiboa, % 100ekoa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona ken % 25 53.465,24 € urtean. Eraginkortasun-data: 2019ko irailaren 1a.*



HIRUGARRENA.- EH-Bildu taldeko bi zinegotziri dedikazio eskusiboko eskubidea onartzea, ondoko ordainsariekin kontzeptu guztiengatik: 48.118, 71 € urtean. Dedikazio eskusiboaren eraginkortasun-data 2019ko irailaren 1a izango da. Hala ere, Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren kasuan, % 80ko dedikazioari dagokion ordainsaria ordainduko zaio 2019ko ekainaren 15etik abuztuaren 30era.

LAUGARRENA.- Onartutako dedikazioei aplikatzea 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri-Administrazioen Zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunak arautzen dituen.

BOSGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udaleko iragarki taulan eta web orrian argitaratzea.

Herritarren Lan-Esparruko koordinatzailearen eta Turismo, Merkataritza eta Azoketako Azpisaileko zinegotzi delegatuaren karguak betetzen zituen zinegotziak uko egin zion zinegotzi izateari, Erregistro Orokorrean 2021eko abenduaren 9an aurkeztutako idazki baten bidez. Ondoren, Udalbatzak uko egite horren berri izan zuen urte bereko abenduaren 23an egindako bilkuran.

Tolosako alkateak, 2022ko urtarrilaren 13an izenpeturiko Probidentzian, udal hautetsien araubide ekonomikoa aldatzeko prozedurari hasiera ematea erabaki du, honako arrazoi hauek kontuan hartuta:

- Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Jasangarritasun Energetiko eta Ingurumeneko Azpisailearen zereginek jarraipen berezia behar dute legealdiko zati honetan. Alde batetik, 2022rako aurrekontuak Udalak sustatu beharreko obra kopuru handia aurreikusten du. Bestetik, 2022an, Legegintzaldiko Planean aurreikusitako hirigintza-planeamendua izapidetzeko eta gauzatzeko ekimen garrantzitsuak garatuko dira. Azkenik, herritarrek eta enpresek eginiko baimen-eskaeren eta aurretiazko jakinarazpenen tramitazioa hobetzen jarraitu behar da, azpisailean hasitako prozesuari jarraituz. Adierazitakoa ikusirik, dedikazio erregimen bat ezarri behar da Lurraldeko Batzorde Informatiboko lehendakariarentzat.
- Bestaldetik, beharrezkoa da, era berean, dedikazio erregimen bat ezartzea Turismo, Merkataritza eta Azoketako Azpisaileko zinegotzi delegatuarentzat, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2019ko uztailaren 19an xedaturiko mugak errespetatuz.
- Arrazoi horiengatik, Tolosako Udaleko alkateak honako proposamen hau egin du:
 - Lurraldeko Batzorde Informatiboko lehendakari eta Lurralde Lan-Esparruko koordinatzaile izango den zinegotziari honako dedikazio-araubide hau ezartzea: **Dedikazio partziala**, % 50ekoa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona ken %20, hau da,



28.549,64 € urtean. Eraginkortasun-data: izendapena egiten den egunaren biharamunetik aurrera.

- Herritarren Batzorde Informatiboko lehendakari, horri dagokion Lan-Esparruko koordinatzaile, eta Turismo, Merkataritza eta Azoketako Azpisaileko zinegotzi delegatuari honako dedikazio-araubide hau ezartzea: **Dedikazio partziala**, % 50ekoa. Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona ken %20, hau da, 28.549,64 € urtean. Eraginkortasun-data: izendapena egiten den egunaren biharamunetik aurrera.
- Ordainsari horiek 2022ko ekitaldian dedikazioa duten korporazioko gainerako kideei dagokien ehuneko berean igoko dira.

AZTERKETA JURIDIKOA

Alkatearen delegatuen izendapena arautzen dute, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.3 eta 23.4 artikuluetan, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Entitateen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa arautzen dituenak, 43.3 artikuluan: *El Alcalde puede delegar el ejercicio de determinadas atribuciones en los miembros de la Comisión de Gobierno, y, donde ésta no exista, en los Tenientes de Alcalde, sin perjuicio de las delegaciones especiales que, para cometidos específicos, pueda realizar en favor de cualesquiera Concejales, aunque no pertenecieran a aquella Comisión.*

Las delegaciones genéricas se referirán a una o varias áreas o materias determinadas, y podrán abarcar tanto la facultad de dirigir los servicios correspondientes como la de gestionarlos en general, incluida la facultad de resolver mediante actos administrativos que afecten a terceros.”

Era berean, Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 2568/86 Errege Dekretuaren 125.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, alkateak informazio batzordearen lehendakari izateko eskuordetu dezake, arau horretan ezarritako prozeduraren arabera.

Eskumenen delegazioa arautzen duen araubide orokorra Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikulua xedatzen du.

Bestaldetik, dedikazio partziala duten korporatiboen araubide ekonomikoa eta dedikazio-araubidea xedatzen ditu apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 75.2 artikuluan: *2. Los miembros de las Corporaciones locales que desempeñen sus cargos con dedicación parcial por realizar funciones de presidencia, vicepresidencia u ostentar delegaciones, o desarrollar responsabilidades que así lo requieran, percibirán retribuciones por el tiempo de dedicación efectiva a las mismas, en cuyo caso serán igualmente dados de alta en el Régimen General de la Seguridad Social en tal concepto, asumiendo las Corporaciones las cuotas empresariales que corresponda, salvo lo dispuesto en el artículo anterior. Dichas retribuciones no podrán*



superar en ningún caso los límites que se fijen, en su caso, en las Leyes de Presupuestos Generales del Estado. En los acuerdos plenarios de determinación de los cargos que lleven aparejada esta dedicación parcial y de las retribuciones de los mismos, se deberá contener el régimen de la dedicación mínima necesaria para la percepción de dichas retribuciones.

Los miembros de las Corporaciones locales que sean personal de las Administraciones públicas y de los entes, organismos y empresas de ellas dependientes solamente podrán percibir retribuciones por su dedicación parcial a sus funciones fuera de su jornada en sus respectivos centros de trabajo, en los términos señalados en el artículo 5 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado sexto del presente artículo.

Kasu honetan, Alkatetzaren proposamena da dedikazio partziala ematea informazio-batzorde banaren buru izango diren bi korporatibori, eta horietako baten kasuan, Alkatetzaren ahalmen batzuk eskuordetuko ditu Turismo, Merkataritza eta Azoketako Azpisailean.

Dedikazioengatiko ordainsarien mugari dagokionez, Toki-Entitateen Arrazionalizazio eta Jasangarritasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013ko Legeak 75.bis artikulua berria sortu zuen, korporatiboen ordainsariak mugatzeko xedearekin.

Hala ere, 27/2013 Legeak aldatu zuen, era berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarria —Tokiko administrazioaren arloan Foru-Araubidearen berezitasunak arautzen dituen—, honako hau erantsiz, besteak beste: «11. *Aurrekontu-egonkortasunaren helburuei dagokionez, eta Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak, Autonomia Estatutuak, Ekonomia Itunaren legeak eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen bigarren xedapen gehigarriak toki-araubidearen eta toki-finantziarioaren arloan eskaintzen dituen eskumenak eta ahalmenak kontuan hartuta, euskal lurralde historikoetako foru-organoek toki-korporazioetako kideen, behin-behineko langileen eta tokikorporazioen nahiz haien sektore publikoaren zerbitzura dauden gainerako langileen eta gaikuntza nazionalen funtzionarioen ordainsari eta bertaratzeen gehieneko mugak zehaztuko dituzte. Estatuko legedian ezarritako printzipioak eta egitura hartuko dira aintzat aipatutako ordainsariak zehazterakoan*».

Eskumen hori garatu zen, lehen unean, azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren bidez, bere bosgarren artikuluaurreneko atalean ondoko hau xedatu zelarik: 1. *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorreari buruzko ekitaldi bakoitzeko foru arauak zehaztuko dira toki korporazioetako kideen ordainsarien eta asistentzien gehieneko mugak.*

6/2021 Foru Arauak, abenduaren 22koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuak arautzen dituenak, Bosgarren Xedapen Gehigarrian arautzen ditu asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak, udalerriko biztanleriaren kopurua oinarritzat hartuta.



Tolosako udalerrriaren kasuan, ordainsari eta asistentziengatiko zenbatekoaren muga izango litzateke Eusko Jaurlaritzako zuzendari baten urteko ordainsaria. Era guztietan, kanpoan utzi behar dira zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioek jaso ditzaketen hirurtekoak.

Mugak ezartzeko erreferentzia gisa erabilitako Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean ezarritakoak izango dira. Kasu honetan, erabilitako erreferentzia da Eusko Legebiltzarrak onartu duen 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. Izan ere, Lege horren 19.13 artikulua honako hau xedatzen du: *«13.– Sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenak eragotzi gabe, lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinduen 2022ko ekitaldirako ordainsariak ezin izango dute % 2tik gorako gehikuntzarik izan 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, antzintasuna dela-eta egokitu dakiekeen gehikuntza eragotzi gabe».*

Halaber, Toki-Entitateen Arrazionalizazio eta Jasangarritasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013ko Legeak mugatu zuen dedikazioen erregimena duten korporatiboen kopurua, horretarako, 7/1985 Legean 75.ter artikulua sortu delarik:

«1. Lege honetako 75. artikuluan zehaztutakoaren arabera, Udaletan beren zerbitzuak eskaintzen dituzten arduraldi eskusiboko langileek ezingo dituzte muga hauek gainditu:

-
- *f) 15.001 eta 20.000 biztanle artean dituzten udalerrietako udaletan, gehienez ere zazpi kidek gauzatu ahal izango dituzte beren zerbitzuak arduraldi eskusiboan».*

Muga hori ere errespetatzen da egindako proposamenean.

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei (ETEL) buruzkoak, 32. artikuluan toki-erakundeetako ekonomia eskubideak eta arduraldi araubidea arautzen ditu, ondoko xedapen nagusi hauen bitartez:

- Udal ordezkariak toki araubidearen oinarrizko legerian eta ETELen berariaz aurreikusten diren eskubide ekonomikoak ara arduraldi araubideak izango dituzte.
- 1.000 biztanletik gorako udalerrietan, alkateek dedikazio eskusiboko eskubidea izango dute, eta alta emango zaie Gizarte Segurantzari.
- Alkateak proposatuta, osoko bilkurak zehaztuko ditu arduraldi eskusiboa edo partziala izango duten karguak edo korporazioko kideak, eta dagozkien ordainsariak.

Ordainsari horiek publikoak dira, eta horiei buruzko akordioak argitaratu behar dira, 7/1985 Legearen 75. artikulua 5. atalean xedaturiko eran: *5. Las Corporaciones locales consignarán en sus presupuestos las retribuciones, indemnizaciones y asistencias a que se hace referencia en los cuatro números anteriores, dentro de los límites que con carácter general se establezcan, en su caso. Deberán publicarse*



íntegramente en el "Boletín Oficial" de la Provincia y fijarse en el tablón de anuncios de la Corporación los acuerdos plenarios referentes a retribuciones de los cargos con dedicación exclusiva y parcial y régimen de dedicación de estos últimos, indemnizaciones y asistencias, así como los acuerdos del Presidente de la Corporación determinando los miembros de la misma que realizarán sus funciones en régimen de dedicación exclusiva o parcial.

Korporatiboen araubide ekonomikoa onartu edo aldatzeko organo eskuduna udalbatzaren osoko bilkura da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2019ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako Udaleko zinegotzien dedikazioaren araubidea aldatzea, honako honen arabera:

- Lurraldeko Batzorde Informatiboko lehendakari eta Lurralde Lan-Esparruko koordinatzaile izango den zinegotziari honako dedikazio-araubide hau ezartzea: **Dedikazio partziala, % 50ekoa.** Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona ken % 20, hau da, 28.549,64 € urtean. Eraginkortasun-data: izendapena egiten den egunaren biharamunetik aurrera.
- Herriarren Batzorde Informatiboko lehendakari, horri dagokion Lan-Esparruko Koordinatzaile, eta Turismo, Merkataritza eta Azoketako Azpisaileko zinegotzi delegatuari honako dedikazio-araubide hau ezartzea: **Dedikazio partziala, % 50ekoa.** Ordainsaria, kontzeptu guztiengatik: Eusko Jaurlaritzako zuzendariari dagokiona ken % 20, hau da, 28.549,64 € urtean. Eraginkortasun-data: izendapena egiten den egunaren biharamunetik aurrera.
- Ordainsari horiek 2022ko ekitaldian dedikazioa duten korporazioko gainerako kideei dagokien ehuneko berean eguneratuko dira.

BIGARRENA.- Onartutako dedikazioei aplikatzea 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri-Administrazioen Zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunak arautzen dituena.

HIRUGARRENA.- Erabaki horiek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udaletxeko iragarki taulan eta web orrian, eta Gardentasunaren Atarian.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udaleko zinegotzien dedikazioaren araubidea aldatzea.

5. HASIERAKO ONESPENA EMATEA TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAREN LEHEN ATALARI.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko urtarrilaren 19ko irizpena

AURKIBIDEA

AURREKARIAK ETA ZIOEN AZALPENA

- I. Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 1. fasearen garapena eta behar berriak
- II. Udala giza baliabideen antolaketan garatzen ari den eraldaketa prozesua
- III. Neurri gehigarrien ezarpena

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

- I. Administrazio publikoan giza baliabideak arrazionalizatzeko programak: araubide juridikoa eta printzipio nagusiak
- II. Jubilazio aurreratuen pizgarrien araubidea
 - II.1.- Araubide juridikoa
 - II.2.- Jurisprudentzia
- III. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onartzeko prozedura



IV. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren negoziazioa sindikalekin

- IV.1.- Negoziatzeko beharra
- IV.2.- Mahaiaren eraketa
- IV.3.- Negoziatio kolektiboaren printzipio nagusiak
- IV.4.- Araubideen eta jurisdikzioen dualtasuna

V. Onartzeko organo eskuduna

**TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO
PROGRAMAREN LEHEN ATALARI HASIERAKO ONESPENA EMATEKO MEMORIA**

IRIZPEN PROPOSAMENA

AURREKARIAK ETA ZIOEN AZALPENA

**I. GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAREN 1.
FASEAREN GARAPENA ETA BEHAR BERRIAK.**

Tolosako Udaltzaren Osoko Bilkurak, 2018ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

*“.....**Bigarrena.** Tolosako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 Bitarteko Programaren 1. Fasea (Enplegu Plana) behin betikoz onartzea.”*

Programaren Lehenengo Faseak helburu zehatza zuen: udal langileen bitartekotasun-tasa handia murriztea, enplegua egonkortzeko eta finkatzeko hainbat neurri hartuz, 2017rako eta 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testuategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren babesean.

Programak Udaleko lanpostuen eta udal sailen osaketari buruzko diagnostia egin zuen. Diagnostikoak agerian utzi zituen, beste faktore batzuen artean, udal plantillan dagoen bitartekotasun-maila handia (% 39koa), eta plantillaren batez besteko zahartze-maila:

b) Langileen batez besteko adina. Aurreko atalean izan diren zailtasunak kontuan hartuta, langileen adina gero eta handiagoa da; esate baterako, batz besteko adina, ia 52 urtetakoa (51,77 urte) da Tolosako udalean. Honek esanahi du, 10-15 urteren buruan oraingo plantillaren zati handi bat jubilatuko dela eta udalak aldaketa



nabarmena jasango duela bere Giza Baliabideei dagokienez. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu udalak, oraintxe bertan hasita.

Aurretik aipatu den moduan, Planaren helburu nagusia zen estrukturalak ziren eta bitarteko izaera zuten lanpostuak egonkortzea, eta horretarako onartu zen neurri sorta bat, horien artean, lanpostu batzuk amortizatzea, lanpostu berriak sortzea, eta beste batzuk lekuz aldatzea.

2018., 2019. eta 2020. urteetan onartutako enplegu publikoko eskaintzetan, Enplegu Planean aurreikusitako plazak betetzeko hautaketa-prozesuak egiteko aurreikuspena sartu da. Horrela, onartutako plana exekutatzen ari da bere terminoetan.

Plangintza onartu eta gero, Giza Baliabideetako Azpisailak Auzitegi Gorenak erretiro aurreratuagatik primen inguruan emandako bi eparen berri izan zuen. Epai horietan zalantzan jartzen zen prima horien aplikazio automatikoa, inolako plangintzarik gabekoa, eta prima hori erretiroa hartzeko adina betetzearen faktore kronologikoari soilik lotzea ere. Sententzia horiek 2018ko martxoaren 20an eta 2019ko martxoaren 14an eman zituen aipaturiko Auzitegi Gorenak. Sententzia hauetan arrazoitu zen, laburbilduz:

- Erretiro-sariak ez dira neurri asistentzial bat, ez baitira desparekotasun-egoera bat konpentsatzera bideratzen, baizik eta kasu natural, ezagun eta saihestezin bati lotzen zaizkio, hau da, funtzionario-harremanaren amaierari.
- 30/1984 Legean ezarritako erretiro-sariak salbuespen gisa har daitezke kontuan, korporazioaren beharren arabera giza baliabideak arrazionalizatzeko edo egokitzeko programa baten esparruan.

Egoera hau ikusita, Tolosako Udaleko alkateak honako eskaera hau egin zion EUDEL udalen elkarteari:

1. EAEko toki-administrazioetako langileen ordainsarien araubide juridikoa eta laguntza- eta giza baliabideen arrazionalizazio-neurriak arautzeko esparrua. Auzitegi Gorenaren eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia.

2.- UDALHITZ akordioak erretiro aurreraturako pizgarriei buruz arautzen dituen xedapenak aztertzea, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2013ko abenduaren 20ko (6508/2013), 2018ko martxoaren 20ko (1062/2018) eta 2019ko martxoaren 14ko (842/2019) epaiak ikusita.

3.- Epai horien ondorioak UDALHITZen negoziazio kolektiboari dagokionez.

4.- Lan-diskriminazioari buruzko jurisprudentzian eta Europako araudian oinarrituta, egoera aztertzea, kontuan hartuta erretiro aurreratua hartzen duten lan-kontratuko langileen eta administrazioetako funtzionarioen artean balizko araubide bereizia eta diskriminatzailea dagoela.



2019ko abenduaren 11n dataturiko txostenean, EUDELeK honako ondorio hauek azaldu zituen:

1) *Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen Akordioaren (Udalhitz) 95. eta 96. artikuluek funtzionarioen erretiro aurreraturako pizgarriak arautzen dituzte, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Lege autonomikoan sartzen dira. Lege horrek, 30/1984 Legearen 21. xedapen gehigarrian jasotako gaikuntzari esker, 22.2 artikuluan aurreikusten du giza baliabideak arrazionalizatzeko programek beren baitan har dezaketela enplegu planetan aplikatu beharreko araudi orokorrean ezarritako neurri guztiak edo neurriren bat, bai eta borondatezko eszedentziarako eta erretirorako pizgarriak ere. Ildo beretik, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak, zeinaren bitartez euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen den, 41. artikuluan jasotzen ditu giza baliabideak arrazionalizatzeko programak. Programa horietan, 42. artikulua araberak, borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak eta zerbitzu aktiboari uko egiteko edo behin betiko baja emateko pizgarriak jaso ahal izango dira (i letra).*

2.) *Auzitegiek zuzenbidearen arabera hartu dituzte enplegu planek erretiro aurreraturako pizgarriei buruz ezarritako aurreikuspenak. Duela gutxi, ordea, Auzitegi Gorenaren 2018ko martxoaren 20ko epaiak (2747/2015 Kas. Errek.) eta 2019ko martxoaren 14koak (2717/2016 Kas. Errek.) krisian jarri dute aurretiko errealitatea; izan ere, erretirorako pizgarriek ez dute izaera asistentziala, ordainsari izaera baizik, eta, beraz, ordainsarien arloko legediaren aurkakoa da Toki Administrazioen zerbitzuko langileen lan baldintzak arautzen dituzten akordioetan aurreikusita egotea.*

3.) *Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, 6/1989 Legearen aurreikuspenek bere horretan jarraitzen dute, eta zuzenean aplikatu behar dira Konstituzioaren 103. eta 9. artikuluetan. Hori bai, auzitegiek konstituzio kontrakotasuneko gaiak eska ditzakete, baldin eta uste badute haien aurreikuspenak Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan egindako eskumen banaketaren aurkakoak direla. Gainera, ez da ahaztu behar erretirorako pizgarriak baliogabetu dituzten Auzitegi Gorenaren epaiak (Auzitegi Gorenaren 2018ko martxoaren 20ko eta 2019ko martxoaren 14ko epaiak) lan baldintzak arautzeko akordioei buruzkoak izan direla, ez 30/1984 Legearen 21. xedapen gehigarrian eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 22.2 artikuluan aurreikusitako enplegu planei edo arrazionalizazio programei buruzkoak.*

4) *Nolanahi ere, enplegu planetan – Euskal Autonomia Erkidegoko Arrazionalizazio Programetan – baino ezin dira aurreikusi erretiro aurreraturako pizgarriak. Ez da baliagarria horretarako giza baliabideak planifikatzeko edo kudeatzeko beste tresnarik. Garrantzitsua da eskakizun formal hori azpimarratzea.*

5) *Arrazionalizazio programen edukiari dagokionez, 6/1989 Legean eta 190/2004 Dekretuaren bidez garatzen den Legean aurreikusitakoa bete beharko da, eta, besteak beste, honako alderdi hauek jaso beharko dira:*



- Aplikazio esparrua.
- Indarraldia
- Hartu beharreko neurriak (aldaketa organikoak eta lanpostu zerrenden aldaketak, lanpostu berriak etetea, lehiaketak aurreikustea, barne sustapenerako pizgarriak, langileen berresleipena, lanaldi partzialeko zerbitzuak ematea, borondatezko eszedentziarako edo erretiro aurreraturako pizgarriak, etab.).
- Betekizunak: esate batera, erakundearen egindako urte kopurua...
- Neurrien arteko bateraezintasunak. Esate baterako: abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretuan babestutako Udaltzaingoaren Kolektiboa, zeinaren bitartez ezartzen den Toki Administrazioa osatzen duten erakundearen zerbitzura dauden udaltzaingoaren aldeko erretiro adinaren koefiziente murriztailea.
- Neurriak hartzeko administrazio prozedura.
- Aurrekontu erabilgarritasuna.

6) Hori onartzeko, kontuan hartu behar da 30/1984 Legearen 18.2 artikuluan memoriari buruz aurreikusitakoa, bai eta 190/2004 Dekretuaren 43.2 artikuluan aurreikusitakoa ere, zeinak justifikazio espediente bat eskatzen baitu, honako hauek jasoko dituen: neurriak hartzea eragin duten arrazoi objektiboak; lortu beharreko helburua; ondorio ekonomikoei buruzko txostena; aplikatu beharreko neurri zehatzak; eta zer antolamendu, denbora eta langile eremuri dagokion arrazionalizazio programaren aplikazioa.

7) Gainera, ezinbestekoa da arrazionalizazio programa langileen legezko ordezkariekin negoziatzea.

Zentzu berean, aurrerago zehaztuko den moduan, auzitegi nagusiek emandako epaiek (horien artean Tolosako Udaleko bi langileri zegozkienak) ukatu egiten dute jubilazio primen ordainketa plangintzarik ez zegoelako.

II.- UDALA GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKETAN GARATZEN ARI DEN ERALDATZE PROZESUA

Orain proposatzen den Arrazionalizazio plangintza ez da neurri isolatu bat, baizik eta beste urrats bat da Tolosako Udalean 2018tik aurrera garatzen ari diren giza baliabideen kudeaketaren eraldaketa integralaren prozesuan, eta mugarri hauek ditu:

II.1.- 2018-2020 GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA, 1 FASEA.

Aurrekarietan adierazi den bezala, antolaketa prozesu bat abiatu zen, non udal sailletan azterketa eta diagnosia burutu ondoren, honako helburu zehatz hauek landu ziren:



1. Aldi baterako lanpostuak eta funtzioak egonkortzeko 2017ko eta 2018ko Estatuko Aurrekontuak arautzen dituzten Legeek ematen dituen aukerez baliatzea, Udaleko plantilla egonkortzeko eta prekarietate-maila gutxitzeko, aurreikusten diren hautaketa-jardunbideetan Tolosako Udaleko udal lanpostuetan izandako esperientzia bereziki kontuan hartuz.
2. Premia duten lanpostuak sortzea, honako arrazoi hauetan oinarrituta:
 - 2.1. Legeak xedaturiko funtzioak eta zereginak betetzea: diruzaina, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko delegatua, Kontratazio arloko teknikaria.
 - 2.2. Hirigintza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumeneko Azpisailean epe laburrean aurreikusten ziren aldaketa eta gabeziei aurre egitea, beti ere legeak xedatzen dituen mugak errespetatuz.
 - 2.3. Udalaren eskumenekoak diren eta ezinbestekoak diren zerbitzuak ematea: Gizarte Zerbitzuak, Udal Ondarearen Kudeaketa, UDATE, Sustapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Feriak, etab.
3. Hasiera batean amortiza edota alda daitezkeen lanpostuak identifikatu ziren.
4. Tolosako Udaleko sektore publikoa berrantolatzea: hainbat sozietate instrumentalen disoluzioa bideratu da; sozietate haietan egiten ziren eta funtzio publikoko izaera zuten eginkizunak administrazio publikoak bereganatu ditu; langileak hautatzeko garaian publizitatea, meritua, gaitasuna eta berdintasunean oinarritutako prozesuak baliozkotu eta, azken finean, Tolosako Udalaren sektore publikoa arrazionalizazioan eta eraginkortasunean oinarritu da, funtzio publikoak bermatuz. Halaber, amortiza daitezkeen lanpostuak amortizatu dira, Udalaren beharretara egokitzeko. Era honetan, plangintza honek Erretengibel SAn eta Tolosa Lantzen SAn eragina izan zuen, eta Udalbatzak haien disoluzioa onartu zuen.
5. Plantillaren malgutasunerako eta mugikortasunerako tresnak sortu dira, giza baliabideen optimizazioa eta zereginetikiko egokitasuna bermatzeko, beti ere langileen eskubideak kontuan hartuta: plazen definizio orokorrakoak, barne-sustapeneko jardunbideak, lanpostuen birbanaketa eta langileen berrizendapena, etab. Horretaz gain, sortzen diren singularizatu gabeko plaza berriak ahalik eta era zabalenean definitu dira.
6. Udaleko gainontzeko sailtan/azpisailetan izan daitezkeen gabeziak eta hutsuneak detektatu ziren hasierako izaeraz eta orain, bigarren fasean, aurrerago zehaztuko den moduan, lanpostuen balorazioaren bidez, prozesu hau garatzen ari da.
7. Neurri hauen ondorioz, Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrenda egokitu zen behar berri horietara.



Tolosako Udaltzaren Osoko Bilkurak, 2018ko urriaren 30ean, hasieraz onartu zuen dokumentua. Informazio publikoko epea eman eta gero, organo berak, abenduaren 10ean egindako bilkuran, Enplegu Plana onartu zuen behin betiko izaeraz.

Planak, **neurri hauek** jasotzen ditu, modu laburrean:

“IV.1.- Funtzio edo enplegu publikoan sartzeko era oposizio-lehiaketa izatea, eta lanpostuak hornitzeko edo zuzkitzeko sistema lehiaketa izatea, eta hori Lanpostuen Zerrendan islatzea.

IV.2.- Lanpostuen Zerrendan eta Katalogoan, Administrazio Orokorreko lanpostuak aztertzea, ahalik eta diziplina anitzekoak izateko helburuarekin, lanpostuen arteko mugikortasuna ahalbidetuz.

IV.3.- Barne Sustapeneko eta Barne Sustapeneko gurutzatuko jardunbideak garatzeko bideak ahalbideratzea.

IV.4.- Funtzionarioentzat gordetako eta lan-itunpeko pertsonal finkoak hornitutako lanpostuetan, funtzionarizatzeko prozesuak garatzea.

IV.5.- Izaera estrukturala duten plazak eta postuak kontsolidatzeko/egonkortzeko hautaketa-jardunbideak garatzea.

IV.6.- Hutsik dauden lanpostuak betetzeko eskaintza publikoetan sartu beharreko eta jardunbide libreak garatzeko lanpostuak zehaztu dira.

IV.7.- Erretengibel Sozietateko Pertsonal finkoaren eskualdaketa: Sektore publikoko berrantolaketa”

Honela, enplegu planaren onarpenaren ondorioz, 17 lanpostu berri sortu edo/eta eraldatu ziren eta 10 lanpostu amortizatu ziren lanpostu zerrendan eta Giza Baliabideen antolaketaren eraldaketarako lehen pausoa eman zen. Zentzu honetan, Giza Baliabideak arrazionalizatzeko Plangintza honek xedatzen dituen neurriak bat datoz erabat 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69.2 artikuluan xedaturikoekin, alegia:

- a) *Dauden eta **behar diren langileen** inguruko analisia, aintzakotzat hartuta bai langile kopurua, bai lanbide-profilak edo prestakuntza-maila.*
- b) ***Lana antolatzeko erabiliko diren sistemei** buruzko aurreikuspenak, **eta lanpostuen egituretan egingo diren aldaketak.***
- c) *Mugigarritasun-neurriak; esate baterako, kanpoko langileak sartzeko aukera etenda utz daiteke eremu jakin batzuetan edo lanpostuak betetzeko lehiaketa-deialdi batzuk eremu jakin batzuetako langileentzat bakarrik jarri.*
- d) ***Barne-sustapeneko** eta langile-prestakuntzako neurriak, eta nahitaezko mugigarritasunekoak ere bai, estatutu honen titulu honetako III. kapituluan ezarritakoari jarraituz.*
- e) ***Giza baliabide gehiago sartzeko** neurriak, enplegu publikoaren eskaintzaren bitartez, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.*



II.2.- LAN ESKAINTZA PUBLIKOEN ONARPENA

II.1 puntuan ezarritako ibilbideari jarraituaz, batetik, arrazionalizazio programaren plangintza garatu zen 2018, 2019 eta 2020ko Lan eskaintza publikoak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Aldizkari ofizialean argitaratuaz, eta, bestetik, hutsik zeuden lanpostuak hornitzeko hautaketa jardunbideak antolatu ziren. Bertan, 4 lanpostu barne sustapen bidez, beste 4 lanpostu konkurtso bidez, 2 funtzionarizazio prozesuen bidez, 18 lanpostu txanda librean, 20 lanpostu egonkortze jardunbideetan eta beste 15 lanpostu kontsolidazio prozesuetan onartu eta argitaratu dira. Lan eskaintza horiei dagokienez, 2018. urteko hautaketa jardunbideak jadanik amaitzeaz daude eta, datozen hilabetetan, 2019. eta 2020. urteko lan eskaintza publikoei dagozkien deialdiak martxan jarriko dira.

Hortaz, prozesu honek barneratzen dituen neurriak ere bat datoz erabat 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69.2 artikuluan xedaturikoekin, hau da, Udaleko plazak hornitzeko egonkortze, kontsolidazio eta barne sustapenerako neurriak hartuaz.

II.3.- LANPOSTUEN KATALOGOA ETA BALORAZIOA

Prozedura ireki bidez dagokion lizitazioa izapidetu ondoren, Tolosako Udaleko Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisaileko zinegotzi delegatuak eta Rodriguez Viñals S.L. enpresak kontratu bat izenpetu zuten, honako xede hauekin:

1º.- BALORAZIO MAHAIAREN OSAERA, BERE FUNTZIONAMENDU ARAUDIAREN ETA BALORAZIO GIDAREN ONARPENA. Balorazio mahai bat osatuko da Udalaren eta langileen ordezkarien partaidetzarekin, bereziki arduratuz osaketa orekatua izan dadin eta balorazio eskuliburuak bere baitan jaso ditzan lanpostuei ezar dakizkiekeen faktoreak lanpostua betetzen duen personaren sexua aintzat hartu gabe.

2º.- EGUNGO ANTOLAMENDU EGOERAREN DOKUMENTAZIOA: LANPOSTUEN DESKRIBAPENA JASOTZEN DUEN KATALOGOA. Udalaren egungo antolamendu egoera eta dauden lanpostuak dokumentatuko dira, beren funtzioak eta eginkizunak, lanpostu bakoitzari atxikiriko jarduerak eta erantzukizunak eta dagozkien ordainsariak, eta horiek ongi zehaztuko dira udalaren benetako beharrezko egokitzen zaizkien ala ez erabaki ahal izateko. Aldi berean, balizko disfuntzioak (bikoiztasuna, omisioa, etab.) antzemateko balioko du deskribapen horrek. Horretarako, kontratistak erabili ahal izango ditu une honetan indarrean dagoen katalogoa, eta beharrezkoa den gainontzeko dokumentazioa. Lortutako informazioarekin bat, udal Lanpostuen Deskribapenak jasotzen dituen Katalogoa idatziko da, lanpostu bakoitzari atxikiriko funtzioak, eginkizunak, jarduerak eta erantzukizunak kontuan harturik. Era berean, dokumentu bat landuko da egungo antolamendu egitura osatzen duten unitate



funtzionalen irudi grafikoekin hornituta, unitate funtzional horietako bakoitzean dauden lanpostuak eta lanpostu horien arteko erlazio hierarkikoak xehetasun osoz adieraziz. Prozesu honetan udaleko langileen parte hartzea bermatuko da.

3º.- DAUDEN LANPOSTUEN ANALISIA, BALORAZIOA ETA SAILKAPENA. Lehenengo fasean landutako dokumentaziotik abiatuta, udal Lanpostuen Analisia eta Balorazioa egingo da. Aplikaturako balorazio sistemaren edukia zehaztuko da, behar bezain landuta eta zehaztuta egongo da Tolosako Udalak berak aplikatu ahal izan dezan lanpostu berriak sortu behar direnean edo daudenak aldatu behar direnean funtzioak berrantolatu behar izateagatik, zereginak birbanatu behar izateagatik, elementu berriak sartu behar izateagatik edo beste arrazoi batzuegatik. Lanpostuen balorazioak lanpostu bakoitzeko fitxa bat egitea ekarriko du berekin batera. Lizitatzailerik bere eskaintzan zehaztuko dute fitxa horien gutxieneko edukia.

4º. LANPOSTUEN ETA LANGILE TALDE ORGANIKOAREN ZERRENDA BERRAZTERTZEA ETA ANTOLAKUNTZA HOBETZEKO PROPOSAMENAK . Gaur egungo udal langileen eta langile talde organikoaren Lanpostuen Zerrenda berraztertuko da, eta hala dagokionean, egituraren eta antolamenduaren kudeaketa eredia hobetzeko proposamen bat aurkeztuko da.

5º.- LANPOSTUAK KUDEATZEKO ETA BALORATZEKO GIDA. Behin aurreko faseak amaituta, lanpostuak Kudeatzeko eta Baloratzeko Gida bat emango dio enpresa kontratistak Tolosako Udalari, betiere aipaturako Udalaren ezaugarrietara egokiturik. Gida horrek etorkizunean sor litezkeen postu berrien deskribapena eta balorazioa egiteko jarraitu beharreko prozedura eta metodologia jasoko ditu, berrazterketatik ondorioztatzen den Lanpostuen Zerrendaren koherentziari eusteko bermeak emango ditu, eta Udalak inolako zailtasunik gabe aplikatzeko moduko zehaztasun eta definizio maila izango du. Era berean gida hori garatzeko eta ezartzeko gomendioak emango ditu. Gida horretan, bereziki ongi zehaztuko dira lanaldi tarteko osagarri espezifikoak esleitzeko irizpideak.

6º.- AHOLKULARITZA, ALEGAZIOAK ETA ERREKURTSOAK:. Kontratualdian zehar, Udalari une oro emango zaizkio aholkuak enplegatu publikoen ordezkariekin izaten diren negoziazioetan.

Sinatutako kontratuak hasieran ezarritako iraupena gainditu du, hainbat inguruabar direla medio; besteak beste, pandemiak eragindako ondorioak. Hala ere, orain arte hiru lan-dokumentu egin dira: lanpostuen katalogoa, dagozkien eginkizun eta atazekin; lanpostuen balorazioa; eta udal-organigrama berriaren proposamena. Azken horrek lanpostu sortu berri batzuk barne hartzen ditu, eta horiek, gainerako gaiak bezala, langileen ordezkariarekin negoziatu beharko dira. Hala ere, 2022ko aurrekontuan lanpostu berriak sortzea aurreikusten da, indarrean dagoen legeriak Udalari esleitzen dizkion betebeharrak betetzearen ondorioz.



Beraz, prozesu honek barneratzen dituen neurriak ere bat datoz erabat 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69.2 artikuluan xedaturikoekin, hau da, giza baliabideen beharra, bai kopuru aldetik, bai Udalak behar dituen lanpostuen profilen azterketa, egin da, eta zenbait lanpostutan egituren aldaketa egiteko aurreikuspenak aztertu eta proposatu dira.

II.4.- 2022KO LANPOSTU ZERRENDA EGOKITZEKO AURREIKUSPENAK

Aurreko puntuan azaldutakoaren harira, 2022. urterako Lanpostu Zerrenda berria lantzen ari da Udala, non lanpostuen baloraziotik eratorriko diren lanpostu berriez gain, beste aldaketa batzuk proposatuko diren lanpostuen zerrendan, sail batzuetan egitura eguneratzeko eta giza baliabideen optimizazioa lantzen jarraitzeko helburuarekin. Lanpostu berriei dagokienez, honako proposamen hauek lantzen ari dira:

- Batetik, bilketa exekutiboko zerbitzua berezko baliabideen bitartez emateko neurriak landuko dira eta, horretarako, erdi mailako teknikari bat eta bi administrari lanpostu sortuko dira, zerbitzua izaera funtzionariala duten langileen bidez emateko, Auzitegi Gorenaren zenbait epaitan ezarrita duten doktrinaren arabera, non sektore publikoaren bidez kontratatutako enpresa baten bidez ezin diren diru-bilketa funtzioak kudeatu.

- Bestetik, 2021. urtean hiru jubilazio egon dira (kirol monitore bat, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako administraria eta trafiko koordinatzailea) eta horietatik, bi lanpostuekin antolaketa aldaketa proposamenak egingo dira, hain zuzen ere:

- “Kirol monitorea” lanpostua amortizatu eta berraldatzeko proposamena egingo da, izan ere, gaur egun egiten dituen funtzioak beste kudeaketa sistema baten bidez bideratu daitezkeen heinean, lanpostuari beste aniztasun eta polibalentzia bat ematea komenigarria da, eta, gainera, egun Udalak dituen beharrak ikusirik, lanpostu hori berraldatzeko eta lehenetsun berrietara egokitzeko proposamena egingo da.
- “Trafiko koordinatzailea” lanpostuan, aldiz, lanpostuen baloraziotik eratorritako organigrama berriaren ondorioz, lanpostu horren funtzioak Udaleko beste lanpostu batzuetan barnebiduko dira eta, horregatik, lanpostu horren amortizazioa zein berraldaketa bat proposatuko da.

- Azkenik, 2022. urteko lanpostu zerrendak aldaketa nabarmenak ekarriko ditu, batez ere, lanpostu batzuen ezaugarrien inguruan, izan ere, organigrama eta lanpostuen katalogoa landu ondoren, bere emaitza lanpostu bakoitzaren ezaugarri espezifikoetan islatuko da (profilak, betebeharrak, lanaldi motak etab...) eta horren emaitzak lanpostu zerrenda berri batean jasoko dira.

Beraz, prozesu honek barneratzen dituen neurriak ere bat datoz erabat 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69.2 artikuluan xedaturikoekin, hau da, giza



baliabideen beharra, bai kopuru aldetik, bai Udalak behar dituen zenbait lanpostutan egituren aldaketa egiteko aurreikuspenen aldetik, aztertu eta proposatuko da.

II.5.- FORMAZIO PLAN OROKORRA

Udalak “Fondo Formación” enpresari esleitu zion Udaleko langileen prestakuntza beharren diagnosis eta 2022-2024 urteetarako prestakuntza planaren diseinua. Bertan, hiru helburu nagusi finkatu ziren:

- Prestakuntza-beharrak identifikatzea eta aztertzea, 2022tik 2024ra bitartean enpleguetan gerta daitezkeen disfunczioei, proiektuei, eboluzioari eta aldaketei eta erakundearen eragina izan dezaketen edo izango dutela aurreikusten den kultura-aldaketei dagokienez.
- Eskumen-gabeziak identifikatzea, identifikatutako oinarriei dagokienez
- Detektatutako gabeziak konponduko dituzten prestakuntza-ekintzak identifikatzea

Horretarako, enpresak proposatutako lan metodologia gauzatu ostean, aurkeztar dagoen prestakuntza planak lotura estua izango du Udalaren 2019-2023 aldirako Kudeaketa Planarekin eta haren helburu estrategiko nagusiekin. Honako jarduera eta neurri hauek hartuko dira prestakuntza planaren onarpenarekin batera:

- Udal langileen formakuntza beharren identifikazioak 3 urterako prestakuntza plan batean isla edukitzea.
- Prestakuntza planetik eratorriko diren ekintzei lehentasuna ematea, detektatu diren premiazko beharren baitan.
- Formazio ekintza horiek langile bakoitzaren lanpostuan eragina izatea, sail/azpisail bakoitzaren helburuak aurrera eramateko tresna berriak emanaz eta langile bakoitzaren eraginkortasuna lanpostuan lortuaz.

Beraz, prozesu honek barneratzen dituen neurriak ere bat datoz erabat 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69.2 artikuluan xedaturikoekin, hau da, **giza baliabideen formakuntza beharrak diseinatu eta aurrera eramatea.**

II.6.- TELELANAREN BIDEZ JARDUTEKO ARAUDIA

Udalak 2021eko azaroaren 25ean egindako Udalbatzarrean telelanari buruzko araudia ere onartu zuen. Arautegi berri horren helburuak, beste batzuen artean, hauexek dira:

- Lana sustatzea ezarritako helburuen arabera, eta ez hainbeste lantokian emandako denboraren arabera.



- Lanaren kalitatearekiko konpromisoa eta langileen motibazioa areagotzea.
- Enplegatu publikoen jarduna ebaluatzeko metodologiak eta programak egiten laguntzea.
- Administrazioaren modernizazioan, digitalizazioan eta konektibitatean aurrera egitea.
- Bizitza pertsonala eta familiakoa uztartzea lana etxetik egiteko malgutasunaren bidez, hori guztia zerbitzuaren kantitatea eta kalitatea murriztu gabe.
- Erantzunkidetasuna sustatzea eta emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa bermatzea.
- Langileen joan-etorrien guztizko denbora murriztea.
- Telelana erabiltzea laneko arriskuak prebenitzeko mekanismo gisa osasun-larrialdietan.

Telelanaren ezaugarrien artean honako hauek aipa daitezke:

- Zerbitzuak emateko antolaketa-modu gisa ulertu behar da. Hori dela eta, helburuak finkatzearekin, aldizka zereginak ezartzearekin eta emaitzen etengabeko bilakaerarekin lotuta egon behar du plana abian jartzeak.
- Zerbitzua telelanaren bidez emateko, berariaz baimendu beharko da. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuak arautzen duenak, 47 bis artikuluan xedatutakoaren arabera, telelana ez da langilearen eskubide bat, berariazko baimena behar baitu. Hala ere, kasu batzuetan, eskumena duen erakundeak agindu edo gomenda dezake distantziaz lan egiteko modalitate hau.
- Aurrez aurreko lanaldiarekin bateragarria izan behar du, alegia, telelana eta aurrez aurreko lana konbinatu behar dira.
- Borondatezkoa izango da, arau-xedapen batek agintzen ez badu.

Hala, Udalak 2022. urtean abian jarriko du telelana egiteko proiektua eta urtean zehar aztertzen eta egokitzen joango da laneko modalitate berri honen bideragarritasuna eta zerbitzuen kalitatean dituen eragina eta ondorioak.

Beraz, prozesu honek barneratzen dituen neurriak ere bat datoz erabat 5/2015 Legegintzako Errege-Dekretuaren 69.2 artikuluan xedaturikoekin, hau da, **lan antolaketa sistemiei buruzko eta lanpostuen egituren inguruko aldaketen aurreikuspena burutzea**.

II.7.- ALDI BATERAKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIAK

Lehen eta bigarren puntuan adierazitakoaren ildotik, kontuan izan behar da abenduaren 28an onartu berri den 20/2021 Legea, enplegu publikoa aldi baterakotasuna



murrizteko premiazko neurriei buruzkoa, eta egonkortze eta kontsolidazio prozesuak martxan jartzeko pausoak eman dira lege berri honen baitan ere; Udalak azterketa eta hausnarketa sakon bat egin ostean, udal antolaketa guztiari eragingo dion proposamen orokor bat egingo du Udalak egun dagoen aldi baterakotasun tasa murrizteko helburuarekin.

Neurriak datozen hiru urteren buruan exekutatu behar dira eta 2024ko abenduaren 31rako aldi baterakotasun tasak % 8ra murriztuta egon beharko du; horregatik, Udalak hautaketa jardunbideak martxan jarriko ditu, helburu horiek bete ahal izateko.

Beraz, prozesu honek bameratzen dituen neurriak ere bat datoz erabat 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69.2 artikuluan xedaturikoekin, hau da, **Lan eskaintza publikoen bidez, giza baliabideen inkorporazioa eta kontsolidazioa burutzea.**

II.8. BESTELAKO ERRONKAK

Amaitzeko, Tolosako Udalean aldaketa sakonak ematen ari dira arlo ezberdinetan:

- Udalaren antolamendua: udal antolamendua garatzen ari da sailen egituratik arlo handien lan antolaturaino (Antolakuntza, Lurralde, Herritarrak), barnean egituratuta eta zuzendaritza-batzordearen bidez elkarri lotuta.
- Lanaren antolakuntza: legealdi honetan prozesu bati hasiera eman zaio, non sailak/azpisailak beren lana antolatzen ari diren modu planifikatuan, zehaztutako helburu eta ekintzen inguruan. Halaber, lanaren denbora antolatzeko tresna berriak jarri dira martxan (agendak, bilkura eta bileren programazioa,...), inprobisazioari eta ezustekoei ahalik eta tokirik txikiena utzita, Udalak ematen diren zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko helburuarekin.
- Herritarrekiko harremanak eta herritarraren eta udal administrazioaren arteko komunikazioa hobetzeko zeuden ekimenak hobetu edo berriak ezarri dira (UDATE, 010 telefono zenbakia, kexa eta iradokizunen kudeaketaren hobekuntzak...).
- Administrazio elektronikoaren ezarpena garatu da modu garrantzitsuan: erregistro elektroniko elkarreragingarria, artxibo elektroniko bakarra, espedienteak kudeatzeko programa, beste administrazioekin datuak elkar trukatzeko euskarriak, bideo-akta elektronikoak, sinadura elektronikoak....tresna horiek guztiak abian jartzeak eskatu du aurretiaz Udalean ematen diren prozesuak argitzea, zehaztea, aztertzea eta sailkatzea, eta prozesu bakoitzean parte hartzen duten sailen/azpisailen arteko koordinazioa eta elkarlana. Amaitu gabeko prozesua dela jakin arren, zalantzarik gabe aurrerapauso nabarmenak eman dira aipatutako gai guztietan. Prozesu automatizatu horien ezarpenak formazio eta trebakuntza berriak eskatzen ditu langileen aldetik, teknologia berrietan oinarrituta.



III.- NEURRI GEHIGARRIEN EZARPENA

Prozesu horien guztien ezarpenak edo inplantazioak erakundean izango duen eragina nabarmena da, hau da, sailetan/azpisiletan zein arlo guztietan martxan jarriko diren prozesuek eragina izango dute udal antolaketan eta giza baliabideen kudeaketa integralean. Neurri horiek derrigorrez aldaketa sakonak ekarriko dituzte eta horrek bere eragina du bai erakundean, bai erakundea osatzen duten langileengan.

Errealitate honen aurrean, nahitaezkoa da neurri gehigarriak hartzea, ahalik eta modu arrazionalenean belaunaldi-aldaketa progresiboki leuntzeko eta aurreikusteko. **Udaleko giza baliabideen kudeaketaren berrantolaketa integralak, zeinaren ildo nagusiak azaldu berri diren, nahiz eta I. kapitulua nabarmen handitzea ekarri, baditu aurrekontu-muga batzuk, eta muga horiek ezin dira aldatu, ez bakarrik lege-aginduagatik, baita biztanleriari ematen zaion zerbitzu-mailari eutsi egin behar zaiolako ere, edo hobetu. Horretarako, I. kapitulua handitzearekin batera, udal langileen kudeaketari lotutako funtsak birbanatu behar dira, berrantolaketa integral hori gauzatu ahal izateko. Beste era batera esanda, beharrezkoa da XX. mendeko politikari erantzuten dieten I. kapituluko partida batzuen banaketa berrantolatzea, enplegu publikoaren arloko XXI. mendeko erronkei aurre egiteko.**

Beraz, proposatzen diren neurrien ondorioz, ohiko erretiroa hartzeko adinera gerturatzen diren langileek lan egin duten urteetan jasotako ezaguera transmititzea nahi da.

Tolosako Udalak ongi ezagutzen du aurreko lerroaldean azaldu den egoera eta badaki horrek eragina izango duela langileak behar bezala ordeztarakoan. Beraz, Udalak komenigarritzat jotzen du erretiro aurreratua sustatzeko sistema bat ezartzea, plantilla gaztetu ahal izateko, eta hori interes publikoko helburutzat hartuko da, arrazoitutakoaren arabera. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da Udaleko giza baliabideen diagnostikoa egin zenetik hiru urte pasa direla, eta langileen zahartzeak aurrera egin duela pixkana. Adibide gisa, datozen zortzi urteetan udal langileen % 31,15ek erretiroa hartzeko adina izango du.

Helburu hori kontuan hartuz, langile publikoen erretiro mailakatua da Giza Baliabideen Plan Estrategiko honen aurreneko helburua. Horretarako, laguntza-neurri gisa, kalte-ordaina edo diruzko konpentsazioa emango da, erretiro aurreratua hartzen duten enplegatu publikoek jasan dezaketen kalte ekonomikoa arintzeko, baldin eta koefiziente murriztaileak (legez ezarritakoak) aplikatzearen ondorioz, erretiro-pentsioak murrizten bazaizkie. Kasu horietan, langile horientzat desberdintasun-egoera bat sortzen da, aldeztatik borondatez erretiratzen ez direnekin alderatuta (azken horiek euren erretiro-pentsioetan murrizketarik izango ez dutelako). Eta desberdintasun-egoera bera sortzen da, nahitaezko erretiro-adinera ez iritsi arren, borondatezko



erretiroa hartzen dutenekin alderatuta, horiek beren pentsioetan kalte ekonomiko hori jasaten ez dutenean; adibidez, enplegatu publikoen kolektibo batzuentzat edo aukera hori arauz ezarrita dutenentzat erretiro-adin arrunta borondatez aurreratzen denean, haien erretiro-pentsioetan ondorio ekonomikorik eragin gabe.

Beraz, diruzko konpentsazio hori edo pentsioan jasango duten kalte ekonomikoari aurre egiteko kalte-ordaina pizgarri gisa ezartzen da, egoera hori pairatzen duten langileek borondatezko erretiro aurreratu hori hartzeko aukera izan dezaten.

Horregatik, memoria honen xede nagusia da, Tolosako Udalean udal antolaketa eta eraldatze prozesua eta lanaren antolaketa berri bat ezartzeko helburuarekin, beharrezko belaunaldi-aldaketa ahalbidetuko duten neurriak ezartzea, erronka berriei eta lanaren antolamenduari aurre egiteko, kaltetuak izan daitezkeen langileei kalterik eragin gabe.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAK: ARAUBIDE JURIDIKOA ETA PRINTZIPIO NAGUSIAK

Administrazio publiko bateko giza baliabideak planifikatzerakoan, administrazioak bere gain hartuta duen zerbitzu publikoa modu eraginkorrenean ematea bilatu eta lortu behar du, betiere, antolamendu juridikoa zehatz-mehatz errespetatuz, eta beraz, une bakoitzean indarrean dauden legeetan aurreikusitako teknikak eta neurriak erabiliz. Izan ere, indarrean dagoen Konstituzioak 103. artikuluan xedaturikoaren arabera, Administrazio Publikoak objektibotasunez zerbitzatzen ditu interes orokorrak, eta jarduera-printzipio du, besteak beste, eraginkortasuna, legeari eta Zuzenbideari osotara men eginik. Bestalde, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (EPOE hemendik aurrera) arautzen duenak, honela dio zioen azalpenean:

«Administrazioek eta era guztietako erakunde publikoek antolamendurako osagaiak izan behar dituzte, batetik, herritarrak administrazio ona izateko duen eskubidea benetan baliatzeko modukoa izan dadin, joera hori bera baitago europar esparru osoan, eta, bestetik, ekonomia nahiz gizartea garatzen lagun dezan. Osagai horien artean, Administrazioaren zerbitzuan diharduten langileak dira, zalantzarik gabe, garrantzitsuenak».

...

“



«Horretarako, funtzio publikoari buruzko legeriak arau-esparrua sortu behar du, batetik, ondo berrmatuta gera dadin langileen hautaketa eta karrera irizpide konstituzionalen arabera beteko direla, alegia, merezimendua eta gaitasuna oinarri hartuta, eta, bestetik, bidezko orekan ezar ditzan enplegatu publikoen eskubideak eta erantzukizunak».

Testu horrekin lotuta, EPOEko 69. artikulua honela xedatzen ditu giza baliabideak planifikatzeko helburuak eta tresnak:

«Giza baliabideen plangintza

69. artikulua. Plangintzaren helburuak eta tresnak.

1. Administrazio publikoetako giza baliabideak planifikatuta, aurrerapausoak eman nahi dira, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzeko, eta, bestetik, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eragimenez jarduteko. Horretarako, langile kopurua egokitu behar da, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide-sustapena eta mugigarritasuna eskaini.

2. Administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeko planak onartu ahal izango dituzte, plan horien barruan, besteak beste, honako neurri hauek hartuta:

a) Dauden eta behar diren langileen inguruko analisia, aintzakotzat hartuta bai langile kopurua, bai lanbide-profilak edo prestakuntza-maila.

b) Lana antolatzeko erabiliko diren sistemei buruzko aurreikuspenak, eta lanpostuen egituretan egingo diren aldaketak.

c) Mugigarritasun-neurriak; esate baterako, kanpoko langileak sartzeko aukera etenda utz daiteke eremu jakin batzuetan edo lanpostuak betetzeko lehiaketa-deialdi batzuk eremu jakin batzuetako langileentzat bakarrik jarri.

d) Barne-sustapeneko eta langile-prestakuntzako neurriak, eta nahitaezko mugigarritasunekoak ere bai, estatutu honen titulu honetako III. kapituluaren ezarritakoari jarraituz.

e) Giza baliabide gehiago sartzeko neurriak, enplegu publikoaren eskaintzaren bitartez, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. Administrazio publiko bakoitzak bere giza baliabideak planifikatuko ditu, bakoitzean aplikatu beharreko arauetan ezarritako sistemen arabera».

Funtzio publikoa eraberritzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen Hogeita Batgarren Xedapen Gehigarriak, indarrean jarraitzen duenak, honela dio hitzez hitz:

Autonomia Erkidegoek eta tokiko korporazioek, beren burua antolatzeko duten gaitasunaren arabera, enplegu-planaz gain, giza baliabideak arrazionalizatzeko beste sistema batzuk ere hartu ahal izango dituzte, beren berezitasunetara egokitutako programen bidez. Programa horietan, Lege honen 18. artikulua 2. eta 3. ataletan



aipatutako neurri guztiak edo batzuk sartu ahal izango dira, bai eta borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak ere.

Bestalde, Estatuko administrazioaren arloan, 364/1995 Errege Dekretuak, martxoaren 10ekoak, behin betiko bultzada eman zuen, era honetako tresnen eraginkortasuna aitortzean, arau horrek ezartzen baitu Giza Baliabideen Plan Integralek zehaztuko dituztela pertsonalaren arloan lortu beharreko helburuak, helburu horiek betetzeko egokitzat jotzen diren giza baliabideen kopurua eta egitura, hasierako langile-kopurua eraldatzeko behar diren neurriak eta horretarako egin beharreko jarduketak, batez ere mugikortasunari, prestakuntzari eta promozioari dagokienez.

Oinarrizko erregulaziotik abiapuntutzat hartuta, indarrean jarri da garapeneko araudi zabal bat giza baliabideak arrazionalki kudeatzeko gaian. Araudi horretan, besteak beste, xedatzen da Administrazio Publikoek enplegu-planak lantzeko duten ahala. Administrazio Publikoek, beren burua antolatzeke ahalak baliatuz eta langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, giza baliabideak arrazionalki erabiltzeko programak ezar ditzakete, bai langile funtzionarioentzat eta bai lan-kontratukoentzat ere, guztiek izan dezaten, bakoitzaren eragin-eremuaren barruan, giza baliabideak hobeto erabiltzeko abian jarritako ekimenen onura. Guztia, betiere, aurrekontuek ematen dituzten aukeren barruan, eta Gobernu Organoek pertsonal politikarako ezarritako gidalerroen bidetik.

Alde horretatik, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 22. artikuluan arautzen ditu Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak:

1.– Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeke duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organuek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.

2.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan, enplegu-planetarako aplikagarriak diren arau orokorretan ezarritako neurri guztiak edo batzuen batzuk sar daitezke. Horretaz gain, borondatezko lan-utzialdian daudenentzat, alde aurretik jubilatu daitezkenentzat, jarduneko zerbitzu-aldia uzten dutenentzat edo behin-betiko baja hartzen dutenentzat pizgarriak ere sar daitezke.

3.– Lege honetan eta Administrazio Publiko bakoitzak eman dezan arautegian xedatutakoa beteko da giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan.

4.– Euren aplikazio-arautegi berezia beteko da enplegu planetan.

5.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek daragiten langileak beste Administrazio Publiko batzuetara berraxiki daitezke. Era eta modua Administrazioen arteko hitzarmenetan ezarriko dira.



6.— *Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren eremuan, Sail, Erakunde edo administrazio-alor bati edo hainbati eragin diezaiekete. Funtzio publikoaren alorrean eskuduntzak dituen Sailak onartuko ditu programok, ogasun alorrean eskuduntza duen Sailak emandako aldeko txostena beharko duela alde zuzenetik. Sail bati baino ez badiote eragiten, aipaturako Sail horien alde zuzenetik aldeko txostena izan ondoren, Sail horrek onartuko ditu.*

Programok gertatzeko ekimena, eragindako Sail edo Erakundearen esku geldituko da edo, elkarlanean, funtzio publikoaren eta ogasunaren alorrean eskuduntza duten Sailen esku. Azken egoera honetan, aplikatu dakien Sailen txostena beharko da.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren xedapenak garatzeko araudi autonomikorik ezean, aplikatzeko izaten jarraitzen du Eusko Jaurlaritzak emandako 190/2004 Dekretua eta, hain zuzen ere, Dekretu horren IX. Kapitulua, non 41. artikuluan eta hurrengoetan arautzen dituen euskal administrazio publikoetako giza baliabideak arrazionalizatzeko programak, programa hauek barne har ditzaketan neurriak eta onarpena emateko prozedurak.

Dekretuaren 41. artikulua honela dio:

1.—*Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organismoek langileei buruzko politikarako finkatuko dituzten jokabideen arabera.*

2.—*Zerbitzu publikoa ezinbestekoak eta aproposak diren giza baliabideekin prestatzeko antolakuntza-administratibo egokia lortzeko xedez, arrazionalizatzeko programek euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Baliteke jarduketok eragina edo ondorioak izatea, besteak beste, honako gaitan: langileen plantillen tamainan eta beharrezkoen plangintzan, lanpostuen sailkapenean, ordainsarietan dagozkien ondorioekin, lanpostuen hautaketan baita betetzean ere, langileen sustapenean, maila-igoeran eta prestakuntzan.*

Ondoren, Dekretuaren 42. artikulua xedatzen ditu Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programek har ditzaketan neurriak:

- a) *Antolakuntza-egiturak nahiz lanpostuak aldatzeko aurreikuspenak.*
- b) *Eraginpeko alorrean kanpoko langileak sartzea bertan behera uztea, sartze hori enplegu eskaintzaren bidez nahiz mugikortasun prozeduraren bidez gertatu bada.*
- c) *Alor jakinetako langileei mugaturiko lehiaketak egitea lanpostuak betetzeko.*



- d) *Langileen prestakuntza eta gaitasunerako plangintzak langileak berriro koka daitezen laguntzeko asmoz.*
- e) *Barne sustapenerako neurri bereziak.*
- f) *Langileen berrizendapena.*
- g) *Lanaldi partzialeko zerbitzuan jardutea.*
- h) *Beste herri administrazio batzuekin hitzarmenak sinatzea langileak berrizendatzeko xedez.*
- i) ***Borondatezko lan-utzialdia, aurreraturiko erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak.***
- j) *Arrazionalizatzeko programaren helburuei dagozkien bestelako neurriak.*

Orain arte azaldutakotik ondorioztatzen da Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak edo Enplegu Planak jarduketa globaleko figurak direla, eta langileen egoera antolakundearen premietara egokitzeko neurriak eta aurreikuspenak finkatzeko egiten direla. Pertsonala planifikatzeko eta administrazioeko egiturak berrantolatzeke tresnak direnez, ezagunak eta egiaztatuak diren desdoikuntzak konpontzeko erabiltzen dira batez ere. Beraz, aukera operatiboak eskaintzen dituzte honako ondorio hauetarako:

- 1- Giza baliabideen kudeaketa optimizatzeko.
- 2- Pertsonal politika garatzean antzemandako premietara egokitzeko.

II. JUBILAZIO AURRERATUEN PIZGARRIEN ARAUBIDEA.

II.1.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Tolosako Udalaren kasuan, 2008ko urriaren 10eko Osoko Bilkurak hartu zuen erabakiaren arabera, Toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen 2008-2010 epealdirako Hitzarmenarekin (Udalhitz) bat egitea onartu zen. Hitzarmenaren 95. eta 96. artikuluetan honako asistentzia hobekuntza hauek jasotzen ditu (lan-kontratudun langileentzako nahiz funtzionarioentzako):

95. artikulua. Adinagatiko borondatezko erretiroa.

1. Giza baliabideak arrazionalizatzeko esparruan eta horren helburuarekin, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko prima berezia ezartzen da Erakundeko funtzionarioentzat, ondorengo artikuluan ezartzen diren kopuruarekin, beti ere baldintza hauek betez gero:

- a) *Eskaera adinagatiko borondatezko erretirorako adina bete baino gutxienez hiru hilabete lehenago egitea.*



b) Aldez aurretiko tramitearen erantzuna jaso eta gehienez ere hilabeteko epean indarrean jartzea eskubide hori.

2. Dena dela, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko adina heltzean jarriko dira indarrean eskubide ekonomikoak.

3. Kapitulu hau betetze aldera, eragina izango duen pertsonaren urteko ordainsari finkoaren 1/14rena izango da hilean jaso beharko duena.

4. Hileko kopurua zehazteko helburuarekin, lehenengo atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituen funtzionarioari nahitaezko erretirora heltzeko urte bat gutxiago geratzen zaiola bezala jokatu da, ez bada aldez aurretik egin beharreko tramitea egin ez arren adinagatik erretiroa hartzeko ahalmena duen.

5. Artikulu honetan zehaztutakoa indarrean jartzeko, Jarraipeneko Bitariko Batzordeak etorkizunean egin daitekeenari buruzko proposamenak aurkeztuko ditu eta horien azterketa eta ebaluazioa egingo du.

96. artikulua. Erretiro aurreratuentzako primak.

Primaren kopurua eskala hau jarraituta kalkulatu da, beti ere urteko ordainsari gordina erreferentzia bezala hartuta, eta urteko ordainsari hori hilabeteko hainbanatu eta gero:

<u>ADINA</u>	<u>HILABETE KOPURUA</u>
60tik 61 urtera	21
61etik 62ra	17
62tik 63ra	12
63tik 64ra	9
64tik 65era	6

Akordio horren bigarren puntuan Udalbatza Plenoak ebatzi zuen Tolosako Udaleko langileentzat onartutako baldintzarik onuragarrienak mantentzea, beste aipamenik egin gabe.

Giza Baliabideetako Azpisailean eta Idazkaritzan dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2004ko abenduaren 1ean, Tolosako Udaleko langileen 2004rako lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartu (berretsi) zuen, bertan zeuden Udalbatzako kide guztiek aho batez hala erabakita.

Udal honetako Giza Baliabideetako Azpisailean dagoen espedientean akordio horren ale bat dago, 2004 Lan Hitzarmena izenekoa, Udal honetako korporazio-ordezkaritzak eta sindikatu-ordezkaritzak 2004ko azaroaren 26an sinatua. Akordioak, besteak beste, honako gai hauek jorratzen ditu:

- Hitzarmenaren izaera: ARCEPAFE esparru-akordioaren araudi osagarria.
- Langileen ordainsariei, funts osagarriei eta pentsio-planei buruzko xedapenak.



- Plantilla gaztetzeko eta enplegua sortzeko neurriak.
- Udaltzaingoaren jai-erregimenari buruzko akordioak.
- Enpresa kontratistetako langileen lan-prekarietatearen eta enpleguaren kalitatearen aurkako neurriak.
- Lan-egutegia.
- Elkarrizketa soziala.

Plantilla gaztetzeko eta enplegua sortzeko neurriei buruzko puntuan, erretiro aurreratuagatiko primen igoera arautzen da, EUFALEBAN ezarritakoen % 100aren baliokidea (**EUFALEBAKOA x 2**), Tolosako Udalak orain arte erabilitako irizpideekin jarraituz, akordioan aipatzen denaren arabera. Udaleko Giza Baliabideetako Azpisailean dagoen informazioaren arabera, akordio hori ez zen inon argitaratu.

Horretaz gain, EUDELeK sustaturiko txostenean aipatzen den moduan, UDALHITZ hitzarmenaren bidez erretiro aurreratuaren erregulazioa nabarmen desberdina da lehenago ARCEPAFEn ezarritakoaren aldean. Izan ere, ARCEPAFEn edo EUFALEBAN jubilazioko pizgarriak modu automatizatuan onartzen ziren, eta baldintza bakarra adina betetzea zen. Aldiz, UDALHITZ lan hitzarmenak xedatutakoaren arabera, beharrezkoa da giza baliabideak arrazionalizatzeko plan bat onartzea, neurri hori justifikatzeko, ez bakarrik adina betetzeagatik, baita udalaren antolamendu eta baliabide pertsonalak arrazionalizatzeko neurri gisa ere.

Egoera honen aurrean, erretiro aurreratuagatik onartutako primen testuingurua eta dokumentu honetan proposatzen diren baldintza berriak oinarritzen dira, bai Udalaren antolaketa arazoietan, bai ekonomia parametroetan. Honetarako, 2004. eta 2008. urteetan, Udaleko EUFALEBA eta UDALHITZ akordioak onartu ziren momentuan eta gaur egun, 2021. urtean, ditugun datuen eta testuinguruaren berri emango da:

a) 2004. urtean, honako datu hauek atera daitezke:

- Langileen batez besteko kopurua 155ekoa zen.
- Gastuen lehen kapituluari dagokion kostua 5.424.915 eurokoa zen, eta aurrekontu orokorraren % 22 zen.
- Urte hartan, ARCEPAFE hitzarmenaren bitartez onartzen ziren aurretiazko jubilazio primak eta ez zen eskatzen inongo betebeharrak berezirik.

b) 2008. urtean, Udalhitz hitzarmenera atxiki zen azken urtea, orain arte Udalak zituen hobekuntzekin, honako argazki hau zegoen datu ekonomikoari begira:

- Langileen batez besteko kopurua 166koa zen
- Gastuen lehen kapituluari dagokion kostua 7.159.846 eurokoa zen, eta aurrekontu orokorraren % 24 zen.



- Urte hartan, aldiz, UDALHITZ onarpenarekin batera, arrazionalizazio programa baten barnean murgildu behar ziren jubilazio prima horiek.

c) 2021. urtean, aldiz, honako egoera honetan aurkitzen da Udala:

- Langileen batez besteko kopurua 183koa zen
- Gastuen lehen kapituluari dagokion kostua 10.508.000 eurokoa zen, eta aurrekontu orokorraren % 38 zen.
- Momentu honetan ere Auzitegi Nagusiek eta Auzitegi Gorenak berretsi dute arrazionalizazio programaren beharra jubilazio pizgarriak eman ahal izateko.

Gainera, aurrekarietan adierazi den moduan, Tolosako Udala giza baliabideen eraldaketa prozesu sakon batean murgilduta dago azken urte hauetan, hau da, 2018-2020 Giza baliabideak arrazionalizatzeko programa, Lan eskaintza publikoen onarpena, lanpostuen balorazioa, zerbitzu batzuen erabateko berrantolaketa, aldi baterakotasuna murrizteko neurri berriak, formazio plan orokorra edo telelanean jarduteko araudiaren onarpena.

Eraldaketa horren zergati nagusia da administrazio publikoak eta, zehazki, Tolosako Udalak, egungo errealitatera egokitu behar duela eta etorkizunerako ildoak jarri eta bideratu behar dituela. Horrek esan nahi du giza baliabideen planifikazioak plantilla osoan izan behar duela eragina, hau da, bai izaera funtzionariala duten langileengan, baita lan itunpeko harreman duten udal langileengan: izan ere, udala lantzen ari den eraldatze prozesu integral honek, plantilla osoa planifikatzeko beharra du bere helburuak bete ahal izateko eta dagokion zerbitzua kalitatez eman ahal izateko.

Zentzu honetan, egun ia 200 langilek osatzen duten plantilla kontuan izanda eta aurrekontuaren lehen kapituluak izan duen progresioa ikusirik, baliabide ekonomikoen zein giza baliabideen optimizazioa harremanetan jarri behar dira eta udal antolakuntzaren aldetik, ikusirik datozen zortzi urteetan Udaleko langileen % 31,15ek erretiroa hartzeko adina izango duela, Udala giza baliabideen antolaketa birmoldatzeko eta eguneratzeko prozesu batean sartu da, zerbitzu modu eraginkor batean eman ahal izateko.

Hona hemen, arestian adierazitako elementuak baieztatzen dituzten datuak, hain zuzen, kopuruak eta datu ekonomikoak:

- 2021-2028 aldian, langileen % 31,15ek erretiroa hartzeko adina izango du, hain zuzen ere, 57 langilek.



- Honek ekar dezakeen gastua, orientagarri moduan, 3.559.554,23 eurokoa litzateke, batez beste, urte bakoitzean, 1. Kapituluko % 4,23.

Datozen urteetako proiektzioa eginda, honako gastu hau ekarriko luke datozen urtetako aurrejubilazioei dagokien primen ordainketak aurrez jubilatuta daitezkeen udal langileei dagokionez:

URTEA	Plantilla: 183		PRIMAK	I. KAPITULUAREN %	AURREKONTU OSOAREN %
	LANGILE KOPURUA	PORTZENTA JEA %	18 hilabete	10.508.392,00	27.037.040,00
2021	7	3,83 %	476.809,06	4,54 %	1,76%
2022	3	1,64 %	188.489,55	1,79 %	0,70%
2023	11	6,01 %	678.801,90	6,46 %	2,51%
2024	9	4,92 %	510.210,06	4,86 %	1,89%
2025	4	2,19 %	270.589,01	2,57 %	1,00%
2026	10	5,46 %	638.798,05	6,08 %	2,36%
2027	11	6,01 %	669.045,90	6,37 %	2,47%
2028	2	1,09 %	126.810,69	1,21 %	0,47%
GUZTIRA	57	31,15 %	3.559.554,23	33,87 %	13,17 %

Horretaz gain, kontuan hartu behar dira beste faktore batzuk ere:

- 2004. urtean Tolosako Udaleko langileen lan baldintzak oso bestelakoak ziren: urteko orduen kopurua, lansaioak, oporrak eta baimenak....Urte hauetan zehar hobekuntza nabarmenak izan dira, bai UDALHITZ lan hitzarmen orokorrari, bai barne izaerako lan hitzarmenei esker.
- Jubilazioen arloan onartu berri den araudi orokor berria, Gizarte Segurantzaren legedia aldatuaz eta aurretiazko jubilazioei eraginez.
- Gaur egungo egoera ekonomikoa, zeinaren baitan Udalak lehenetsi behar dituen bere baliabideak COVID-19 pandemiak eragindako krisiari aurre egiteko.
- Azkenean, UDALHITZ lan hitzarmenaren errekonozimendua, Euskadiko Toki Administrazioetako lan-harremanetako eremu amankomun gisa.

Ibilbide hori aztertu ondoren, hauexek dira atera daitezkeen **ONDORIOAK**:

1.- Udalak egun duen hitzarmen kolektiboa UDALHITZ hitzarmenera egokitzeko beharra ikusten da, batetik, ikusirik datozen urteetan aurrejubilazioek ekarriko duten gastuen proiektzioa eta, bestetik, egun martxan dagoen giza baliabideen eta antolakuntza sistemaren eraldaketa, prozesua aurrera eramateko.



2.- Horri lotuta, Udalean beharrezko belaunaldi-aldaketa ahalbidetuko duten neurriak ezarriko lirateke, lanaren antolamenduari aurre egiteko, kaltetuak izan daitezkeen langileei kalterik eragin gabe.

3.- Aurreko paragrafoetan aipatu diren neurrien inplementazioa eta horien eraginkortasuna bermatu ahal izateko, plantilla osoan eragina izan behar du, funtzionarioengan zein lan itunpeko langileengan, eta, horretarako, proposatzen da orain arte zegoen akordioaren aldaketa eta Udalhitzeko parametroetara egokitzapena egitea, izan ere, pertsonalaren gastuak urteroko Estatuko Aurrekontu Orokorretan bere mugak ezartzen ditu eta, datozen urteetako jubilazio aurreikuspenak kontuan izanda, Tolosako Udalak martxan jarri duen giza baliabideen antolaketa eta eraldaketa prozesuari zailtasunak eragingo lizkioke.

II.2.- JURISPRUDENTZIA

2019. urtetik aurrera, Auzitegi Gorenak emandako epaiak aztertu behar dira; data hori finkatzen da abiapuntu bezala, izan ere, urte horretan emandako epaiarekin jadanik hiru epai desberdin eman ditu Auzitegi horrek eta jadanik lerro jurisprudenzial bat markatzen du aurretiazko jubilazioen pizgarrien inguruan. Laburbilduz, hauexek dira Auzitegiak jarraitzen dituen argumentuak:

- 2018ko martxoaren 20ko eta 2019ko martxoaren 14ko epaien oinarriak, lan baldintzei buruzko akordioen inguruan, hauexek dira: lehen kasuan, jubilazio sariak kuestionatzen ditu, eta ez aurretiazko jubilazioak hartzeko primak (EUDELeK bi motatako figura horiek bereizten ditu, aurrenekoak ordaintzen dira jubilazioa etortzen denean, eta gertaera natural horrekin daude lotuta; bigarrenkoak, aldiz, giza baliabideak arrazionalizatzeko plangintza baten barruan diseinatzen dira, eta, justifikatuz gero, onargarriak dira arrazionalizazio neurri gisa). Bigarren kasuan, aldiz, bi figura hauek nahasten dira, baino Salaren epaiak batez ere kuestionatzen ditu jubilazio primak.

- 2013ko abenduaren 20ko epaiak, aldiz, aurretiazko jubilaziorako pizgarriak. Neurri asistentzial gisatzat hartzen du.

Ikus daitekeenez, Auzitegi Goreneko jurisprudenzia hiru epai horietan kontraesanak ditu.

Dena den, jurisprudenzia honi jarraikiz, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak, 2020ko maiatzaren 21n emandako epaian, aurretiazko jubilazioentzako primak onargarriak direla baieztatzen du, baina Enplegu Plan baten testuinguruan eman behar dira. Honelaxe dio: *Al respecto, en la apelación, se alude al respecto a que el art. 95 del Acuerdo Udalhitz no exige que cada Ayuntamiento haya aprobado con carácter previo un programa de racionalización de recursos humanos, "sino que con la intención de tal*



racionalización, se aprueba la prima que ahora se solicita". Pues bien, hemos de partir de lo dispuesto en el art. 22 de la Ley de Función Pública Vasca, cuya apartado 2 alude a que "los programas de racionalización de recursos humanos podrán incluir todos o alguna de las medidas establecidas en la normativa general de aplicación para los planes de empleo, así como incentivos a la excedencia voluntaria y a la jubilación anticipada e incentivos a la renuncia al servicio activo o baja definitiva en él". En este marco, el art. 95 Convenio Udalhitz prevé, en su apartado 1, lo siguiente: "con el objetivo y en el marco de un programa de racionalización de los recursos humanos, se establece para el personal funcionario de la institución una prima de jubilación voluntaria por edad (...)." Como puede apreciarse, la dicción de los preceptos exige que la prima de jubilación voluntaria se enmarque en un programa de racionalización de los recursos humanos, programa que no existe en el Ayuntamiento de Zambrana y que, por otro lado, no le resulta obligatorio aprobar. No basta con la intención de racionalización sino que es la aprobación del programa la que permite fijar la correspondiente prima de jubilación. (3. Oinarri juridikoa)

Ilido honetatik, Euskadiko Auzitegi Nagusiko beste bi epaietan, 2021eko ekainaren 22koan eta 2021eko uztailaren 27koan, hain zuzen ere, Tolosako Udalari arrazoiak eman dio argudiatuz arrazionalizazio programa bat egin behar duela aurrez jubilatzeagatik pizgarriak instrumentu gisa erabili eta horiek ordaindu ahal izateko.

Hala, honako **ondorio hauek** atera daitezke epai horiek esandakoaren harira:

1.- Neurrien izaera juridikoa: giza baliabideak kudeatzeko arrazionalizazio-tresna gisa ulertu behar da. Zentzu honetan, desberdindu behar dira *borondatezko erretiro aurreratuagatik pizgarriak* eta *jubilazioko primak*, aurreko paragrafoetan esandako arrazoiengatik. Borondatezko erretiro aurreratuagatik pizgarriak ezin dira inolako planifikaziorik gabe ezarri, eta kokatu behar dira enplegu plan baten barruan. Halaber, justifikatu behar da neurri hori beharrezkoa eta komenigarria dela, giza baliabideen kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, eta testuinguru horren barruan izan behar dute lekua, hau da, *a sensu contrario*, ez dira langileen berezko eskubideak. Erakundearen kudeaketa hobetzea, eraginkorragoa egitea, eta zerbitzuen kalitatea areagotzea izan behar dira neurri horren justifikazioa.

2.- Helburua: izan beharko luke zerbitzu publikoa eskaintzeko asmoz ezinbestekoak eta aproposak diren langileez osaturiko antolakuntza-administratibo egokia lortzea.

3.- Aplikazio eremua: borondatezko erretiro aurreratuagatik pizgarriak arautzen dituen programak funtzionarioei zein lan-itunpeko langileei eragin behar die. Bestelako kasuan berdintasunaren printzipioaren aurkako diskriminazioak egingo lirateke langileen plantillan, eta neurriak arrazionalizazio-helburutik desbideratuko litzateke.

4.- Arrazoi horiengatik, borondatezko erretiro aurreratuagatik pizgarriak ez dira ordainsariak, neurri asistentzialak baizik. Kontuan hartu behar da erretiroaren ondorioz erosteko ahalmena murriztu daitekeela, neurri handiagoan erretiro aurreratuaren



kasuan.

III. GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAK ONARTZEKO PROZEDURA

Onartzeko prozedurari dagokionez, Plangintza honen 3.III atalean adierazitakoaz gain, kontuan hartu behar da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37.1 artikulua, non negoziatzeko gai gisa ezartzen dituen gizarte-prestazioak eta klase pasiboetako pentsioak zehazteko irizpide orokorrak eta gizarte-ekintzako irizpide orokorrak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren g) eta i) atalak).

«37. artikulua. Negoziazio-gaiak.

1. Administrazio publikoetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik, ondorengo zerrendan jasotako hauek izango dira negoziazio-gaiak:

- g) Gizarte-prestazio eta klase pasiboen pentsioak zehazteko irizpide orokorrak.*
- i) Gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak.»*

Honako akordioa, hortaz, langileen ordezkariekin negoziatu behar da aldez aurretik eta udal zerbitzuak ematean efizientzia-mailak handitzea eta giza baliabideak optimizatzea ahalbidetuko duen Plan Estrategikoaren bigarren fasea egitea da asmoa; horrela, eman beharreko zerbitzuetara egokitu ahal izango da plantilla, gastuari eusteko politika bat kontuan hartuta.

Helburu horretarako, Tolosako Udalak planak onar ditzake aurrekontu-mugen barruan eta eskatu daitezkeen baldintzak arautuz. Plan horietan neurriak aurreikusiko dira, aurreratutako borondatezko erretiroarengatiko pentsioa jasotzeko, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten udal langileek erretiro aurreratua har dezaten, koefiziente murriztaileen mende beti ere eta akordio honen indarraldiaren barruan.

Bestalde, giza baliabideak arrazionalizatzeko programak egiteko prozedurari dagokionez, Euskal Toki-Administrazioetako langile funtzionarioen lanpostuak hornitzeko Araudia onartu zuen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 43. artikulua honako hau exijitzen du:

(...) Horri erantsiko zaio justifikaziozko espedientea non honakoak jasoko baitira: hartutako neurrien zergati objektiboak, lortu nahi den helburua, ondorio ekonomikoari buruzko txostena, aplikatu beharreko neurri zehatzak eta arrazionalizatzeko



programaren eraginpeko alorrak, hau da, antolakuntza, denbora eta langileen gaiet dagozkienak.

3.—*Aurretik aipatutako txostenak lortu ondoren, langileen ordezkariekin negoziatuko da.*

4.—*Funtzio publikoaren alorrean eskuduntzak dituen sailak onartuko ditu programok, aldeztu aurretik ogasun alorrean eskuduntza duen sailak aldeko txostena eman eta gero. Sail bati baino ez badiote eragiten, sail horrek onartuko ditu, lehenago aipatutako sailek aldeztu aurretiko aldeko txostena eman eta gero. (...)*

30/1984 Legearen 18.2 artikulua aurreikusten du enplegu planek justifikazio-txostena izango dutela. Txosten horrek denboraren dagozkion erreferentziak jasoko ditu.

IV. GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAREN NEGOZIAZIOA ORDEZKARI SINDIKALEKIN

IV.1.- Negoziatzeko beharra

Aurreko puntuan esan bezala, Administrazio publikoek hainbat gai ordezkari sindikalekin negoziatu behar dituzte, besteen artean, hauexek:

«37. artikulua. *Negoiazio-gaiak.*

1. Administrazio publikoetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagozkion irismena izanik, ondorengo zerrendan jasotako hauek izango dira negoziazio-gaiak

.../...

c) Irizpide orokorrak finkatzeko arauak, gai hauek direla eta: enplegu publikora iristea, karrera egitea, lanpostuak betetzeko moduak, lanpostuak sailkatzeko sistemak eta **giza baliabideak antolatzeko planak eta planifikazio-tresnak**».

IV.2.- Mahaiaren eraketa

EPOEk 34. eta 35. artikuluetan mahaia eratzeko arauak xedatzen ditu:

«34. artikulua. *Negoiazio-mahaiak.*

.../...

6. Dagozkion administrazioak eta sindikatuen ordezkariaren gehiengoak, ados jarrita, erabakitzen duten egunean abiaraziko da Mahai bakoitzean negoziazio-prozesua. Ados jarri ezean, negoziazio-prozesua hilabeteko epean hasiko da gehienez ere, zilegitasuna duen alderdietako baten gehiengoak prozesua abiarazteko eskatzen duenetik hasita, legez edo itunez aurkako agindurik ez badago behintzat.



35. artikulua. *Negoiazio-mahaien eraketa eta osaera.*

1. Estatutu honetako 34. eta 36.3 artikuluetan eta hamabigarren xedapen gehigarrian adierazitako mahaiak balio osoz eratzat joko dira, dagokion administrazioaren ordezkaritza bertan egoteaz gainera, dena delako eremuko erakunde sindikalek, gutxienez, ordezkaritza-organo bateratuetako kideen gehiengo osoa dutenean; betiere, horretarako legitimazioa duten erakunde sindikal guztiek, bakoitzaren ordezkartzaren arabera, mahaietan parte hartzeko eskubidea izaten jarraituko dutela.

2. Sindikatuek duten ordezkaritza-maila aldatzen denean, negoziazio mahaien osaera ere aldatu behar da, beraz, erakunde sindikalek eurek jakinarazi beharko dute aldaketa izan dela; horretarako eskumena duen Erregistroko Bulego Publikoak dagokion ziurtagiria emango du bi urtean behin, aipatutako mahaiak eratu diren egunetik hasita.

3. Negoiazioan diharduten alderdiei dagokie mahaiak osatzeko kideak izendatzea. Zeregin horretan aholkularien laguntza jaso ahal izango dute, eta aholkulari horiek, hitza bai, baina botorik ez dute izango.

4. Estatutu hau garatzeko arauetan ezarriko da eremu bakoitzerako osatu beharreko mahai bakoitzak zenbat kide izan behar dituen; dena dela, alderdietako batek ere ezin izango du hamabost kideetik gora izan.

36. artikulua. *Negoiazio-mahai orokorrak.*

1. Administrazio publikoetako Negoiazio Mahai Orokorra eratuko da. Administrazio publikoen ordezkaritza unitarioa izango da; Estatuko Administrazio Orokorra izango da buru, eta autonomia-erkidegoen, Ceuta eta Melilla hirien eta Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioaren ordezkariak izango dira bertan, negoziatu beharreko gaiak zein diren, horren arabera

.../...

3. Administrazio publikoetako bakoitzean funtzionario, estatutupeko langile eta langile lan-kontratudun guztientzat erkide diren laneko baldintza eta gai guztiak negoziatzeko orduan, negoziazio-mahai orokor bat eratuko da Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia-erkidegoetako bakoitzean, Ceuta eta Melilla hirietan eta toki-erakundeetan.

Administrazio publikoetako negoziazio-mahai orokorrean erakunde sindikalek izan beharreko ordezkaritza dela-eta goragoko zenbakian ezarritako irizpideak aplikatu behar dira mahai orokor horietan, betiere, funtzionarioak eta langile lan-kontratudunak ordezkatzeko organoetan parte hartzeko hauteskundeetan kasuan-kasuan izandako emaitzak aintzakotzat hartuta, dagokion ordezkaritza-eremuan.

Horrez gainera, mahai orokor horietan partaide izango dira administrazio publikoetako negoziazio-mahai orokorrean parte hartzen duten erakunde sindikalak ere, baldin eta,



gutxienez, dena delako mahai horri dagokion eremuan funtzionarioak edo langile lan kontratudunak ordezkatzeko kideen 100etik 10 lortu badute».

Zentzu honetan, Alkatetzak, 2021eko maiatzaren 10ean emandako ebazpen bidez, Tolosako Udaleko Negoziazio Mahai Orokor Bateratua eratzeko deia egin zuen, funtzionario eta lan kontratudun langileentzat. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari nagusia zuten ordezkari sindikalei (LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuak) eskaera egin zien Negoziazio Mahaian parte hartzeko beren ordezkariak izendatzeko.

Ildo beretik, 2021eko maiatzaren 10eko ebazpen baten bidez ere, alkateak Negoziazio Mahaia eratzeko deia eta gai-zerrendaren proposamena egin zizkien ordezkariak duten sindikatuei, eta Negoziazio Mahai Orokorra eratzeko deia egin zuen 2021eko maiatzaren 13rako, hain zuzen ere. Bertan, alde instituzionalaren aldetik izendatuko ziren ordezkariak ere proposatu ziren Negoziazio Mahai Orokorrerako. Hala, aurrerago zehaztuko den bezala, Tolosako Udaleko Negoziazio Mahai Orokorra 2012eko maiatzaren 13an eratu zen eta negoziazio prozesuari hasiera eman zion.

IV.3.- Negoziazio kolektiboaren printzipio nagusiak

Hala, alde instituzionalaren eta alde sindikalaren artean honako printzipio eta ildo nagusiak bete behar dira:

«34. artikulua. *Negoziazio-mahaiak.*

.../...

7. Bi alderdiek **fede onaren printzipioa** errespetatuta negoziatu beharko dute eta negoziazioari buruz **beharrezko duten informazio guztia eman beharko diote elkarri**».

Hala, bi aldeen arteko negoziazioan zehar printzipio horiek bete diren aztertuko da:

3.1.- Batak besteari informazioa emateko obligazioa

Lehenik eta behin, adierazi bi aldeen artean bost negoziazio bilera egin direla 2021 urtean zehar gai honen inguruan: maiatzaren 13an, maiatzaren 26an, ekainaren 10ean, uztailaren 23an eta, azkena, urriaren 6an. Gainera, esan behar da 2020ko eta 2021eko lehen hilabeteetan ere Tolosako udal gobernuak eta udal ordezkari sindikalek zenbait aurrebilera izan zituztela arrazionalizazio programa honen inguruan, hain zuzen ere, honako data hauetan:

- 2020. urtean: uztailak 7, irailak 19 eta urriak 13.

- 2021. urtean: urtarrilak 8, urtarrilak 19, otsailak 2, martxoak 2 eta apirilak 20.



Alde batek besteari informazioa ematearen inguruan, honako ildoak azpimarra daitezke:

- 2021eko apirilaren 23an, posta elektronikoz bidez Tolosako Udaleko ordezkari sindikalei Giza Baliabideak arrazionalizatzeko testuaren proposamena aurreratu zitzaion. Ildo honetatik, 2021eko maiatzaren 4ko datarekin, maiatzaren 13an egin zen lehen bilerarako, Negoziazio Mahaian parte hartu duten ordezkari sindikalei, gai zerrenda proposamenarekin batera, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko programaren lehen atalaren proposamena bidali zitzaion.

- 2021eko maiatzaren 13an egindako lehen Negoziazio Mahaiko Bileran, LAB eta ELA sindikatuek aurreratu zuten hainbat galdera egin eta hainbat datu eskatuko zituztela. Eskaera horiek 2021eko maiatzaren 13an eta 17an egin zituen LABek eta 2021eko maiatzaren 21ean ELA sindikatuak. Eskaera horien erantzuna 2021eko maiatzaren 26an egindako aktan islatuta daude, bertan eskatutako informazioa helarazi zien Giza Baliabideetako Azpisailak.

3.2.- Fede onez negoziatzeko obligazioa

Legeak fede onez negoziatzeko obligazioari dagokionez, jurisprudentziak adierazi du ez dela nahikoa negoziatorako bilerak egitea, baizik eta fede on hori alde bakoitzak erakutsi behar du, proposamenetan malgutasuna eta negoziatzeko borondatea erakutsi beharko ditu, eta akordio batera iristeko borondatea ere egiaztatu beharko da.

Zentzu honetan, Negoziazio Mahaian egin diren bost bileretan alde instituzionalaren aldetik hiru proposamen aurkeztu dira, hauexek:

1.- 2021eko maiatzaren 13ko bilera aurkeztutako arrazionalizazio programa; bertan egun jaso daitezkeen aurrez jubilatzeagatiko primak Udaltzaren parametroetara egokitzea proposatzen zuena, alegia:

<u>ADINA</u>	<u>HILABETE KOPURUA</u>
60tik 61 urtera	21
61etik 62ra	17
62tik 63ra	12
63tik 64ra	9
64tik 65era	6



2.- 2021eko ekainaren 10eko bilerarako egindako bigarren proposamena; horretan, 2021. urtetik 2029. urte arteko primen kopurua progresiboki jaisten joaten da.

	2021-2022	2023-2024	2025-2026	2027-2028	2029tik aurrera
5 urte lehenago	35	32	29	28	27
4 urte lehenago	29	26	23	22	21
3 urte lehenago	23	20	17	16	15
2 urte lehenago	17	14	11	10	9
Urte 1 lehenago	10	9	8	7	6

3.- 2021eko uztailaren 22ko bilerarako egindako hirugarren proposamena; horretan ere, ekainaren 10ean egindako proposamena hobetu egiten da, hilabete bakoitzeko primen kopurua hobetuz aurreko proposamenarekiko.

	2021-22	2023-24	2025-26	2027tik aurrera
5 urte	35	32	29	28
4 urte	29	26	23	22
3 urte	23	20	17	16
2 urte	17	14	12	11
1 urte	11	10	9	8

Alde sindikalaren aldetik, aldiz, ez da proposamenik jaso.

3.3.- Akordiorik gabeko amaiera

2021eko urriaren 6an egindako bileran, ikusirik jadanik bi aldeen arteko negoziatziorako ibilbiderik ez zegoela, alde instituzionalak Negoziazio Mahai Orokorra amaitutzat ematea erabaki zuen akordiorik gabe, bost negoziazio bilera deitu ondoren (maiatzaren 13an, maiatzaren 26an, ekainaren 10ean, uztailaren 23an eta azkena, urriaren 6an).

IV.4.- Araubideen eta jurisdikzioen dualtasuna

Negoziazio kolektiboaren esparruan, funtzionarioentzako eta lan itunpeko langileentzako desberdintasunak leudeke, hala nola:

- Araubide juridikoa ez da berdina: funtzionarioen araubidea estatutarioa da. Lege eta gainontzeko arauak lehentasuna dute itunen edo akordioen aurrean. Aldiz, lan-itunpeko enplegatuen kasuan, lan-hitzarmen kolektiboak lehentasuna du.



- Jurisdikzioa ez da berdina: aurrenekoen kasuan, Administrazioarekiko Auzialdian epaitzen dira sorturiko auziak. Bigarrenengo kasuan, lan arloko jurisdikzioa da eskuduna.
- Jurisdikzio bakoitzak dagokion araubidea aplikatzen du: batek erregimen estatutarioa lehenesten du, besteak lehenetasuna ematen dio lan-hitzarmen kolektiboari. Hortaz, bakoitza independentea da eta bata ez da lotzen bestearen epaiarekin.

Honela, aplikagarri den araudiaren inguruan honako hau ondoriozta dezakegu:

- Funtzionarioen kasuan, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatzen diren itun eta akordioak ez leudeke indarrean, izan ere, azken lau urteetan, administrazioarekiko auzien eremuko hainbat ebazpen judizial daude (bi Auzitegi Gorenarenak eta beste batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiarenak, azken horietan, Tolosako Udalean bertan emandako bi epai), eta honako printzipio hauek ezartzen dituzte:

- Erretiro aurreratugatik primen kausa ez da erretiro aurreratuaren egitate hutsa.
- Ordainsari-kontzeptu bat dira.
- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan baten esparruan kokatu behar dira.
- Aipatutako plana egotea ezinbesteko baldintza da primak onartzeko.

Horregatik, ulertu daiteke 2004. urtean onartu zen hitzarmena eta 2008ko Udalthitz hitzarmenari atxikitzeko onarpena egun ez daudela indarrean, eta aurreko paragrafoan (zuzenbidezko oinarrien II. 2 puntuan ere bai) aipatu diren Auzitegi Gorenaren eta Auzitegi Nagusien epaiek bertan behera utzi dute akordioaren baliozkotasuna eta aplikagarritasuna, izan ere, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa ezinbestekoa da primen ordainketa onartu ahal izateko.

Dena den, aurreko paragrafoan epaitegiak finkatutako jurisprudentzia ez bagenu aplikatuko ere, memorian zehar aipatu diren antolaketa arazoak ere kontuan hartu behar dira, alegia, Tolosako Udala antolaketa berri baten aurrean eta giza baliabideen eraldaketa prozesu sakon batean murgilduta dago; hau da, memorian zehar azaldu den moduan, honako neurri hauek hartu eta garatzen ari da: 2018-2020 Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa; lan eskaintza publikoen onarpena; lanpostuen balorazioa; zenbait zerbitzuren erabateko berrantolaketa; aldi baterakotasuna murrizteko neurri berriak; formazio plan orokorra eta telelana jarduteko araudiaren onarpena.



- Lan itunpeko pertsonalaren kasuan, kontuan hartu behar da, era berean, 2004. urtean sinatutako akordioa bertan behera gera daitekeela Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan xedatzen den arrazoiengatik, hau da, antolaketa arrazoiak direla medio.

Zentzu honetan, berriro gogorarazi behar da Udalak abian jarritako eraldatze prozesua, antolaketa eta lan erak aldatuaz eta giza baliabideak kudeatzeko sistema hobetuaz, besteen artean, 2018-2020 Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa, lan eskaintza publikoen onarpena, lanpostuen balorazioa, zenbait zerbitzuren erabateko berrantolaketa, aldi baterakotasuna murrizteko neurri berriak, formazio plan orokorra edota telelana jarduteko araudiaren onarpena.

V. ONARTZEKO ORGANO ESKUDUNA

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.i) artikuluan ezarritakoaren arabera. Jardunbideari dagokionez, izapide hauek bete behar dira:

- Antolakuntzako Batzorde Informatiboak diktaminatu behar du Programari dagokion irizpena.
- Programak Udaltzatzen osoko bilkuraren behin behineko onespina behar du, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 90. artikuluan eta 781/1986 Errege Dekretu Legegileak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onartzen duenak, 126. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Espedientea jendaurrean jarriko da 15 lanegunez, interesdunek aztertu eta iradokizunak edo alegazioak aurkeztu ahal ditzaten. Iragarkiak Udaletxeko iragarki taulan, udal web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
- Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, programa behin betiko onartutzat emango da, eta argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian.
- Alegaziorik aurkezten bada, Batzorde Informatiboak diktaminatuko ditu eta Udaltzatzen osoko bilkurak ebatziko ditu. Ondoren, Programaren behin betiko onespinari buruzko erabakia hartuko du organo horrek.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2019ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, gaia aztertu zuen eta bozkatu. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, eta Jose Mari Villanueva Telleria .

Aurkako botoak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, eta Estitxu Kortejarena Ugarte



Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- Tolosako Udaleko *Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plangintzaren 2. Fasearen 1. atala onartzea*, honako testu honen arabera:

1. Xedea eta aplikazio-eremu subjektiboa .

1. Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa honen helburua da Tolosako Udaleko langileei jarduketa sozialeko neurri bat aplikatzea, aurre-erretiroa hartzea sustatzeko, eta horien ondorioz sortutako galera konpentsatzeko neurri gisa, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 22. artikulua, azaroren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeran, aurreikusitakoan oinarrituz.

Bere helburu nagusia da jarduketa sozialeko neurri bat arautzea, borondatezko aurre-erretiroetan pentsioaren oinarri arautzailean aplikatutako koefiziente murriztaileek sortutako galera konpentsatzera bideratuko dena.

Bestalde, eransten zaion helburua da udal plantilla doitzeko eta gaztetzeko pizgarriak ematea, plazak eta postuak hutsik geratu ahala, Udalak horiek birformulatu eta plaza eta postu berriak sortu ahal izateko, behar berriei aurre egiteko egokitutako ezaugarriak izango dituztenak, eta legeak ezartzen dituen muga barruan.

2. Programa hau ezarritako baldintzak betetzen dituzten udal langile guztiei aplikatuko zaie.

2. Gutxieneko antzintasuna.

Erretiro aurreratua hartu ahal izateko, udal langileak erretiroa hartuko duen egunaren aurreko 5 urtetan gutxienez zerbitzu aktiboa prestatu behar izan du Tolosako Udalean edo bere sektore publikoan, eta gutxienez 10 urteko benetako prestazioa azken 15 urteetan.

3. Nahitaez bete beharreko baldintzak erretiroa hartzeko pizgarriak jasotzeko.

Langileak egiaztatu egin beharko du bere erretiro-pentsioaren zenbatekoa murriztu egingo zaiola, nahitaezko erretirorako ohiko adinean erretiratuz gero jasoko lukeen pentsioaren zenbatekoarekin alderatuta, eta, ohiko erretiroa hartzeko adina baino lehenago erretiroa hartzearen ondorioz.

Langileak uko egin beharko dio ordaindutako beste edozein jarduera egiteari, eta, horretarako, Gizarte Segurantzari eta/edo Ogasunari buruzko bere lan-egoeraren gaineko txostenak eskatu ahal izango zaizkio eta horiek aurkeztu egin beharko ditu. Aipatutako informazioa aurkezteko beharra betetzen ez bada, kalte-ordainaren onuradunak Udalarari itzuli beharko dio jasotako guztia.



4. *Bateraezintasunak.*

Erretiro aurreratua hartzeagatik jasotako kalte-ordaina bateraezina da Gizarte Segurantzak edo dagokion mutualitateak edozein ezgaitasun-modalitate onartzearekin, baldin eta horren ondorioz langileari Tolosako Udalean edo bere sektore publikoan behin betiko baja eman bazaio, aurreratutako erretiroa hartu aurretik. Egoera hori ematen denean onuradunak jasotako prestazio osoa itzuli beharko du.

Modu berean, kalte-ordainak bateraezinak dira erretiro-adin arrunta aurreratzearekin, baldin eta horrek pentsioa edo beste edozein erretiro-modalitate kaltetzen ez badu.

5. *Indarrean sartzea.*

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren lehen atala atzeraeraginez aplikatuko da 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

6. *Indarraldia.*

Plana indarrean egongo da hura aldatzea edo indargabetzea erabakiko den arte. Data horretara arte, langileek kalte-ordaina jaso dezaketen neurriak eskatu ahal izango dituzte

7. *Kalkulatzeko arauak.*

Kalte-ordainaren zenbateko zehatza zehazteari dagokionez, beteko da toki erakundeetako lan-kontratudun langileen nahiz funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen Hitzarmenaren 95. eta 96. artikuluetan, edo horiekin bat datozen artikuluetan, ezarritakoa (Udalhitz, 2008-2010). Horren aurretik, unean-unean indarrean dagoen nahitaezko erretirorako ohiko adinari buruz aipatutako artikuluetan aurreikusitakora egokituko da (Gizarte Segurantzaren arloko oinarrizko legeriarekin bat etorritik). **(artikulu hauetan xedatzen dira kopuruak, zenbatzeko erregelak, eta gainontzekoak)**

Udalhitz hitzarmenaren 96. artikuluen ondorioetarako, kalte-ordainaren zenbatekoa zehazteko, borondatezko erretiroa hartzeko adinari buruzko baldintza bete eta hurrengo eguna hartuko da kontuan. Primen kopuruak modu honetan ordainduko dira:

	2021-22	2023-24	2025-26	2027tik aurrera
5 urte	35	32	29	28
4 urte	29	26	23	22
3 urte	23	20	17	16
2 urte	17	14	12	11
1 urte	11	10	9	8



Halaber, kalte-ordainaren zenbateko zehatza kalkulatzeko orduan, aintzat hartuko da, halaber, urriaren 30eko 8/2015 Legea, Gizarte segurantzaren Testu Bateratua arautzen duena: zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritako aurrez jubilatze adina urtero 2027 urte arte eguneratzen joango dela kontuan hartuta, langilearen nahitaezko erretiroa 65 urtetik aurrerakoa den heinean, hilabete horiek adin eta epe berrietarako egokituko dira.

8. *Aurrekontua izatea.*

Urte bakoitzeko aurrekontu orokorrak, hasiera batean edo dagozkion aurrekontu-aldaketen bidez, plana gauzatzetik eratorritako betebeharrak betetzera bideratutako aurrekontu-zuzkidurak jasoko ditu, betiere plan honen indarraldiko aurrekontu-ekitaldietan. Aurrekontu-zuzkidura horiek aurrekontuko dagozkion partidetan gauzatu dira.

I. kapituluko aurrekontu-zuzkiduren soberakinak, behar izanez gero, Planean jasotako neurriak finantzatzeko erabili ahalko dira, kredituak horretarako jarritako partidara transferituz.

9. *Programaren mugak eta langileen eta lanpostuen zerrendak doitzea.*

Programari lotutako kalte-ordainpeko jarduketan kopuru totala aurrekontu-ekitaldi bakoitzean Plana gauzatzeari aplikatu dakizkiokeen aurrekontu-baliabideetara mugatuko da.

Erretiro aurreratua hartzeagatik eragingo diren langileen lanpostuei eta plazei esleitutako funtzioak aztertu egingo dira, hala badagokio, beste lanpostu eta plaza batzuen funtzioak berregituratzeko.

Neurri horiek honako Akordioan jasotakoaren arabera hartuko dira. Erantzukizunpeko aitortpena edo eskatutako txostenak aurkezten ez badira, kalte-ordainaren onuradunak Udalari itzuli beharko dio jasotako zenbateko osoa.

Modu berean, interesdunak ezintasun iraunkor absolutua duela adierazten badu, eta ezintasun hori erretiro aurreratua hartu baino lehenagokoa bada edo ezintasun iraunkor osoa aitortzeagatik bajaren data bera edo lehenagokoa bada, kalte-ordain gisa aitortu zaion zenbatekoa itzuli beharko dio Tolosako Udalari.

10. *Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan honetan aurreikusitako neurriez baliatu ahal izateko eskaera egin beharko da adinagatik borondatezko erretirorako adina bete baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

Indemnitatutako erretiro aurreratua hartzeko eskaerarekin batera, interesdunak Gizarte Segurantzaren edo dagozkion mutualitatearen agiria aurkeztu beharko du, non erretiroa hartzeko adina zehaztuko den.



Modu berean, Udalak eskaera izapidetzeko bidezkoztat joko duen beste edozein agiri erreklamatu ahal izango du, eta kotizazio edo pentsio ezari buruzko Gizarte Segurantzaren txostenak eskatu ahal izango ditu.

11.— Plan estrategiko honen arabera kalte-ordain gisa jasotako zenbatekoen tratamendu fiskala.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako 3/2014 Foru Arauaren 9. artikulua xedatzen duenaren arabera, salbuetsita egongo dira zerga ordaintzetik administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoetan arautu eta aitortutako zenbatekoak, betiere Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoietako bat oinarritzat hartuta, plan horiek parekatuta baitaude kaleratze kolektiboekin eta kaleratze nahiz kargugabetze objektiboekin. Zerga ordaintzetik salbuetsitako kalte-ordainaren zenbatekoak ezin izango du 180.000 eurotik gorakoa izan.

BIGARRENA.- Aitortzea atzeraeraginkortasuna 2021etik aurrerako ondorioekin; horrela, aipatu datatik emandako egintza administratiboak berraztertu beharko dira, eta egiaztatu ea programa berriaren baldintzak betetzen dituzten, horrela baldin badagokio, baliozkotu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Txertatzea Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa Tolosako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioan, eranskin moduan, aurretik zegoen marko juridikoa ordezkatuaz.

LAUGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 lanegun, interesdunek aztertu eta iradokizunak edo alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

BOSGARRENA.- Epean alegaziorik aurkeztu ez bada, programa behin betiko onartutzat emango da, eta argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian.

Alegaziorik aurkezten bada, Udalbatzaren Osoko Bilkurak aztertu eta ebatziko ditu. Ondoren, Programaren behin betiko onespenerari buruzko erabakia hartuko du organo horrek.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal web orrian eta iragarki taulan argitaratzea, eta langileen ordezkariari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du hasierako onespena ematea Tolosako Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren lehen atalari.

6. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ARTEKO URAREN ZIKLO OSOAREN KUDEAKETARAKO KUDEAKETA AGINDUA ETA HURA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko urtarrilaren 19ko irizpena

AURREKARIAK:

2006ko azaroaren 29an, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak uraren ziklo integrala kudeatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Horren bitartez, Ur Kontsortzioak bere gain hartu zuen uraren ziklo integralaren kudeaketa, ziklo horren barruan sartzen delarik "alta" eta "baja"ko hornidura eta saneamendu sareen kudeaketa, baita beharrezko inbertsioak egitea ere.

Hitzarmenaren 6. klausulan adierazi zen hitzarmenak gutxienez 15 urteko iraupena izango zuela. Epe hori igaro ondoren, hitzarmenari berariaz uko egin ezean, hitzarmena luzatuzat joko zela harik eta Udalak, ordenamendu juridikoak ematen dizkion eskumenak erabiliz, zerbitzua beste modu batera ematea erabakitzen duen arte.

Gaur gaurkoz Udalak ez duenez zerbitzua beste edozein modutan emateko inolako akordiorik jakinarazi, Ur Kontsortzioak lankidetzaren hitzarmen berri baten proposamena bidali du. Oraindik aztertzen ari denez, eta Udalak nahitaez eman behar duenez, Gobernu Batzarrak, 2021eko abenduaren 28an, akordio hau hartu zuen:

"Lehena- Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari erabakia onartzeko eskumena delegatzea.

Bigarrena- 2006ko azaroaren 29an sinatutako uraren ziklo integrala kudeatzeko lankidetzaren hitzarmenaren iraupena premiazko izaerarekin luzatzea 2022ko urtarrilaren 31arte."



Orain, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak lankidetzan proposamen berri bat landu dute azkeneko hilabete hauetan, zeinaren bidez aipatutako erakundeak egingo lukeen Udalerri honetako uraren ziklo integralaren kudeaketa, bi sareena (goia eta behea). Horren bitartez kudeaketa agindua gauzatuko da.

ARAUBIDE JURIDIKOA:

- Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa:

25.1 artikulua: *“Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-komunitatearen beharrak eta nahiak asetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ditzake, artikulua honetan aurreikusitako baldintzetan”.*

“2. Udalerriak eskumen propioak izango ditu beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, honako gai hauetan:

“C) Etxez etxeko edateko uraren hornidura eta hondakin-uren hustuketa eta tratamendua”.

26 artikulua:

“1. Udalek honako zerbitzu hauek eman beharko dituzte beti:

A) Udalerri guztietan: argiteria publikoa, hilerria, hondakinen bilketa, bideen garbiketa, edateko uraren etxez etxeko hornidura, estolderia, herriguneetarako sarbidea eta bide publikoen zoladura”.

Beraz, indarrean dagoen toki-araubideko oinarritzko legerian xedatutakoaren arabera, etxeetako ur hornidura eta estolderia dira udal guztiek eskaini behar dituzten gutxieneko zerbitzuak.

Geroztik, kontuan hartu behar da arautegi hau ere:

- 817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta kalitate-arauak ezartzen dituen.
- 1/2016 Errege Lege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.

Helburu horiek lortzearren, ur hornidura eta hondakin-uren tratamendua, arazketa eta isurketako zerbitzuak emateko erak asko aldatu dira azkeneko urte hauetan. Hasiera batean, udal bakoitzak kudeatzen zituen zerbitzu horiek. Ondoren, asoziazio- edota emakida administratiboko formulak erabili ziren: mankomunitateak, elkarteak, entitate



instrumentalak.... Gipuzkoako Lurralde Historikoaren kasuan, 1992an, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa eratu zen, ur hornidura eta saneamenduko goiko sareen kudeaketa bere gain hartu zituelarik. Halaber, 2003. urtetik hona, Ur Kontsortzioak – Aguas de Gipuzkoa SA baltzu instrumentalaren bidez,—, ur hornidura eta saneamenduko beheko sareen kudeaketa eta, horrekin batera, ur zikloaren kudeaketa osoa, eskuratu ditu Lurralde Historiko honetako 28 herritan.

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, udal eskumeneko zerbitzuak honako era hauetan kudea daitezke:

«**57. artikulua.** Toki-administrazioaren eta Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioen arteko ekonomia, teknika eta administrazio arloetako lankidetzak, bai toki-zerbitzuetan bai guztien intereseko gaitan, borondatez burutuko da, legeetan oharmandako moduan eta erara; nolahi ere, izenpetu ditzaten administrazio-mailako partzuergo edo hitzarmenen bidez ere burutu daiteke.

Administrazio horietako batek burututako lankidetzak-akordio bakoitzaren berri emango zaie akordio horretan parte hartu ez arren horretan interesa duten gainerako administrazioei, eten gabe elkarren berri izan dezaten».

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 85. artikuluan xedatutakoaren arabera, udal eskumeneko zerbitzuak honako era hauetan kudea daitezke:

85. artikulua

1. Tokiko zerbitzu publiko dira toki-erakundeek beren eskumenen baitan betetzen dituztenak.

2. Toki-eskumeneko zerbitzu publikoak modu hauen artean jasangarriena eta efizienteena dena erabiltu kudeatu behar dira:

A) Zuzeneko kudeaketa:

a) Toki-erakundeak berak kudeatuta.

b) Tokiko erakunde autonomo baten bidez.

c) Tokiko enpresa-entitate publiko baten bidez.

d) Tokiko merkataritza-sozietate baten bidez; haren kapital sozialak titulartasun publikokoa izan behar du.

c) eta d) letretan aurreikusitako formak erabili ahal izango dira, soilik, horretarako egindako justifikazio-memoriaren bidez egiaztatzen denean jasangarriagoak eta eraginkorragoak direla a) eta b) letretan xedatutako formak baino; horretarako, errentagarritasun ekonomikoaren eta inbertsioa berreskuratzearen irizpideak hartu behar dira kontuan. Gainera, jasotako aholkularitzaren justifikazio-memoria jaso behar da espedientean, osoko bilkurari helaraziko zaiona, onar dezan. Memoria horretan, zerbitzuaren kostuari buruzko txostenak jasoko dira, bai eta jasotako laguntza teknikoa ere, eta argitaratu egin behar dira. Horretarako, tokiko kontuhartzailearen txostena eskatuko da, eta hark baloratuko du planteatutako proposamenen finantza-



iraunkortasuna, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

B) Zeharkako kudeaketa, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginean zerbitzu publikoak kudeatzeko kontraturako aurreikusitako moduen bidez.

Aukeratzen den kudeaketa-moduak kontuan hartu beharko du apirilaren 12ko 7/2007 Legeak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 9. artikuluan xedatutakoa, funtzionario publikoei eskusiboki dagozkien eginkizunak betetzeari dagokionez.

Halaber, zerbitzu horien kudeaketa, hirugarren eran burutu daiteke, kontuan hartzen badugu administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa, goian aipaturiko Legearen 57. artikuluan xedaturikoa. Eskumenen bereizketaren printzipioaren ordeztu, administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa finkatu da (7/85 Legearen 10.2 artikulua), eta horren ondorioz, deszentralizazioa, eskuordetza, kudeaketa-agindua, eta administrazioen arteko hitzarmenak sortu dira, zenbait zerbitzu eskaintzeko garaian.

Beraz, eskuduntza duen administrazioa, edo bere entitate instrumentala (kudeaketa zuzena), edo entitate emakidadun bat (zeharkako kudeaketa) zerbitzuaren kudeatzaileak ez direnean, beste administrazio batek kudea dezake zerbitzu hori, dagokion hitzarmenaren bidez. Era honetan, bi administrazio hauek —zerbitzuaren titularra eta administrazio kudeatzailea— egoera berdinean daude, juridikoki, inolako menpekotasunik gabe.

Administrazio publiko batzuek edo sektore publiko instituzionaleko entitate batzuek kontsorzioak sortzeko aukera dute beren artean edo entitate pribatuen parte-hartzearekin, guztien interes komuneko jarduerak egiteko beren eskumenen eremuan.

Kontsorzioen araudia:

Horrela arautzen dira kontsorzioak tokiko arautegian:

- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 118. artikulua eta hurrengoak.

«118. artikulua. Definizioa eta jarduera propioak.

1. Partzuergoak zuzenbide publikoko entitateak dira eta nortasun juridiko propioa eta berezia dute. Administrazio publiko batzuek edo sektore publiko instituzionaleko entitate batzuek sortzen dituzte beren artean edo entitate pribatuen parte-hartzearekin, guztien interes komuneko jarduerak egiteko beren eskumenen eremuan.

2. Partzuergoek sustapen jarduerak, prestazioak ematekoak edo zerbitzu publikoak elkarrekin kudeatzeko jarduerak egin ahalko dituzte, bai eta legeetan aurreikusita dauden beste guztiak ere.

3. Zerbitzu publikoak kudeatzeko erabil daitezke partzuergoak, Espainiako administrazioek parte hartzen duten mugaz gaindiko lankidetzaren hitzarmenen barruan, eta



Espainiak gaiaren inguruan berretsitako nazioarteko hitzarmenetako aurreikuspenekin bat etorrira.

4. Partzuergoen izendapenean nahitaez agertu behar da «partzuergoa» abisua, edota horren laburdura, «P».

119. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Partzuergoek arau izango dute lege honetan, garapeneko arau autonomikoetan eta beren estatutuetan ezarrita dagoena.

2. Lege honetan, aplikatu beharreko arau autonomikoetan eta estatutuetan partzuergoa uzteko, desegiteko, likidatzeko eta azkentzeko eskubidearen araubideari buruz aurreikusita ez dagoen guztian, Kode Zibilean sozietate zibilari buruz aurreikusita dagoena bete behar da, salbu eta likidazio-araubidea, lege honen 97. artikuluan xedatuta dagoena aplikatuko baitzaio, eta, bestela, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua.

3. Apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legean tokiko partzuergoei buruz ezarrita dauden arauak izaera osagarria izango dute lege honetan xedatuta dagoenarekiko.

120. artikulua. Adskripzio-araubidea.

1. Partzuergo bakoitzeko estatutuek zehaztuko dute zer administrazio publikori adskribatuko zaion, artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Behean agertzen diren irizpideekin bat etorrira, aplikazio-lehentasunaren arabera baitaude ordenatuta eta aurrekontu-ekitaldiaren lehen eguneko egoerari baitagozkio, partzuergoa administrazio publiko honi adskribatuko zaio, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eta epealdi horretarako:

a) Gobernu-organoen botoen gehiengoa duenari.

b) Organo betearazleetako kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmenak dituenari.

c) Zuzendaritza-kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmenak dituenari.

d) Araudi berezi bati esker, partzuergoaren jardueraren gainean kontrol gehien duenari.

e) Gobernu-organoko kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmenak dituenari.

f) Partzuergoak garatutako jardueraren ehuneko berrogeita hamarra baino gehiago, edo, bestela, zati handiena finantzatzen duenari, kontuan hartuta ondare-funtsaren ekarpena nahiz urtero egindako finantzaketa.

g) Ondare-funtsean partaidetza-ehuneko handiena duenari.

h) Biztanle gehien edo lurralde-hedapen handiena duenari, kontuan hartuta estatutuan definitutako helburuak pertsonen zerbitzua ematera edo lurraldearen gaineko jarduketak garatzera bideraturik dauden.



3. Partzuergoan entitate pribatuek parte hartzen badute, partzuergoak ez du irabaziasmorik izango, eta aurreko zenbakian zehaztutako irizpideen arabera dagokion administrazio publikoari adskribatuko zaio.

4. Administrazio publiko batekiko adskripzioan aldaketarik izanez gero, arrazoia edozein dela ere, aldatu egin beharko dira partzuergoaren estatutuak, gehienez sei hilabeteko epean, adskripzioa aldatu zeneko aurrekontu-ekitaldiaren hurrengo ekitaldia hasten denetik aurrera.

121. artikulua. Langileen araubidea.

Partzuergoko langileak funtzionarioak edo lan-kontratadun langileak izango dira, eta parte hartzen duten administrazioetatik baino ez dira etorriko. Adskribatuta dauden administrazio publikoaren araubide juridikoa izango dute, eta, ordainsariei dagokienez, inoiz ez dituzte gaindituko hango lanpostu baliokideentzat ezarritakoak.

Salbuespenez, bete beharreko eginkizunen berezitasunagatik ezinezkoa bada partzuergoan parte hartzen duten administrazioetako langileak edukitzea, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak edo partzuergoa adskribatuta dagoen administrazioaren organo eskudunak baimena eman ahalko dio partzuergoari zuzenean kontrata ditzan langileak, aipatutako eginkizun horietan aritu daitezzen.

122. artikulua. Aurrekontu, kontabilitate, kontrol ekonomiko eta finantzario eta ondarearen alorretako araubideak.

1. Zein administrazio publikori dauden adskribatuta, hari dagokion aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidearen mende egongo dira partzuergoak, hargatik eragotzi gabe apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitakoari lotzea.

2. Partzuergoko administrazioek eman beharreko finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira hala estatutuen edo hitzarmenen arabera dauden konpromisoak nola finantzaketa erreala. Horretarako, egindako ekarpen guztien benetako ordainketak aztertuko dira.

3. Edonola ere, urteko kontuen auditoretza egingo da, eta partzuergoa adskribatu zaion administrazioaren kontrol-organoaren erantzukizuna izango da hori.

4. Adskribatuta dauden administrazio publikoaren aurrekontuen parte izango dira partzuergoak, eta administrazio horren kontu orokorrean sartuko dira.

5. Adskribatuta dauden administrazio publikoaren ondare-arauek eraenduko dituzte partzuergoak.

123. artikulua. Sorrera.

1. Partzuergoak sortuko dira parte hartzen duten administrazioek, organismo publikoek edo entitateek sinatutako hitzarmenaren bitartez.

2. Estatuaren Administrazio Orokorrak edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publiko eta entitateek parte hartzen duten partzuergoetan:



- a) Partzuergoaren sorrerak lege bidez baimenduta egon behar du.
- b) Sorrera-hitzarmenak Ministro Kontseiluaren aurretiazko baimena beharko du. Hitzarmena sinatzeko eskumena ezingo da delegatu, eta parte hartzen duen ministerio departamentuaren titularrari egokituko zaio, eta organismo autonomoen eremuan, berriz, organismoko zuzendaritza-organo gorenaren titularrari, aldeztatik txostena emana duela organismoa mendea edo lotuta duen ministerioak.
- c) Hitzarmenean jasoko dira estatutuak, jarduketa-plana —92. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera— eta hiru urtera begira egindako aurrekontu-aurreikuspena, eta, horrez gain, aldeko txosten nahitaezko bat, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egina. Sinatutako hitzarmena, estatutuak eta horien aldaketak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

124. artikulua. Estatutuen edukia.

Partzuergo bakoitzaren estatutuetan zehaztuko dira zein administrazio publikori adskribatuko zaion partzuergoa, haren araubide organikoa, funtzionala eta finantzarioa, lege honetan aurreikusitakoaren arabera, bai eta alderdi hauek ere, gutxienez:

- a) Egoitza, xedea, helburuak eta eginkizunak.
- b) Partzuergoko partaideen identifikazioa eta kideen ekarpenak. Horretarako, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 8. artikuluan aurreikusitako erantzukizun printzipioa aplikatuta, estatutuetan klausula batzuk txertatuko dira, partzuergoaren jarduerak mugatuko dituztenak partzuergoko entitateek finantzaketa-arloko konpromisoak edo edozein motatako konpromisoak betetzen ez badituzte, bai eta formula batzuk sartu ere, partzuergoko entitateek konprometitutako kopuruak ziurtatze aldera aurrekontuan jasotako jarduerak egin aurretik.
- c) Gobernu- eta administrazio-organoak, eta organo horien osaera eta funtzionamendua, erabakiak hartzeko araubidea espresuki adierazita. Beste klausula batzuk sartu ahalko dira, boto-eskubidea edo erabakigintzan parte hartzeko eskubidea aldi baterako etetea aurreikusten dutenak, administrazioek edo partzuergo-entitateek partzuergoarekiko obligazioak nabarmen betetzen ez badituzte edo; batez ere, partzuergoaren jarduerak finantzatzeko konpromisoei dagokienez.
- d) Desegiteko arrazoiak.

125. artikulua. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeko arrazoiak eta prozedura.

1. Partzuergo bateko kideek, baldin eta partzuergo horri lege honetan edo apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa aplikatu behar bazaio, edozein unetan utzi ahalko dute partzuergoa; betiere, partzuergoaren iraupenari epe-mugarik jarri ez bazaio. Partzuergoak iraupen jakina baldin badu, epe hori amaitu baino lehen utz dezake partzuergoa kideetako edozeinek, baldin eta partzuergoko kideren batek ez badu bete bere estatutu-betebeharretakoren bat, eta, bereziki, partzuergoaren sortze-xedea lortzea eragozten bada; esaterako, ez bada ondare-funtsari ekarpena egiteko obligazioa bete. Udallerri batek zerbitzu bat emateari uzten dionean, apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren arabera, eta zerbitzu hori baldin bada udallerria kide den partzuergoak ematen duenetako bat, udallerriak partzuergoa utzi ahalko du.

2. Partzuergoa uzteko eskubidea idazki batez baliatu beharko da, zeina partzuergoko gobernu-organo gorenari jakinaraziko baitzaio. Idazki horretan jasoko dira, hala badagokio, uztea eragin duen ez-betetzea —partzuergoak iraupen jakina badu—,



betetzeko errekerimendua aldez aurretik egin izana, eta errekerimenduaren osteko betetze-epea igaro izana.

126. artikulua. *Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzearen ondorioak.*

1. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeak partzuergoa desegitea eragiten du, salbu eta gainerako kideek, estatutuetan aurreikusita dagoena betez, partzuergoari eustea erabakitzen badute, eta partzuergoan jarraitzen badute gutxienez bi administrazio edota administrazio bati baino gehiagori lotutako edo haien mendeko gutxienez bi entitate edo organismo publikok.

2. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeak partzuergoa desegitea ez dakarrenean, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Uzte-kuota kalkulatu da, uzteko eskubidea baliatzen duenari dagokiona. Horretarako, likidazioa eginez gero ondare garbian legokiokeen saldoaren partaidetza hartuko da aintzat, kontuan hartuta Estatutuetan xedatutako banaketa-irizpidea. Estatutuetan halakorik aurreikusita ez badago, likidazioan legokiokeena hartuko da uzte-kuotatzat. Likidazio-kuotarik zehazten ez bada, kontuan hartuko dira bai uzteko eskubidea baliatu duenak partzuergoaren ondare-funtsari egindako ekarpenen ehunekoa bai urtez urte emandako finantzaketa.

Partzuergoa uzten duen kideak ez badu ekarpenik egin, horretara beharturik ez zegoelako, hau izango da banaketa-irizpidea: partzuergoko kide izan den denboran diru-sarrerarik jaso badu, haietan izandako partaidetza. Partzuergoak erabakiko du nola eta zer baldintzatan ordainduko den uzte-kuota, positiboa bada, bai eta uzteko eskubidea baliatzen duenari dagokion zorra nola eta zer baldintzatan ordainduko den ere, kuota negatiboa bada. Partzuergoa benetan utziko da uzte-kuotaren zenbatekoa erabaki eta gero, kuota positiboa bada, edota zorra ordaindu eta gero, kuota negatiboa bada.

b) Baldin eta partzuergoa adskribatuta badago, legean ezarritakoaren arabera, uzteko eskubidea erabili duen administrazioari, partzuergoak erabaki beharko du zeini adskribatu, partzuergoan geratzen direnen artean, dela administrazio dela administrazio bati lotutako edo haren mendeko entitate edo organismo publiko. Legean ezarritako irizpideak aplikatuko dira horretarako.

127. artikulua. *Partzuergoa desegitea.*

1. Partzuergoa desegiteak haren likidazioa eta azkentzea dakar. Kasu guztietan, desegiteko arrazoia izango da partzuergoaren sortze-xedeak bete izana.

2. Partzuergoko gobernu-organo gorenak, desegiteko erabakia hartzean, likidatzaile bat izendatuko du, zeina organo edo entitate bat izango baita, partzuergoa adskribatu zaion administrazio publikoari lotua edo haren mendekoa. Enplegatu publikoari entitate edo organo likidatzailearen kide gisa dagokion erantzukizuna zuzenean bereganatuko du kide hura izendatu zuen entitateak edo administrazio publikoak, zeinak ofizioz eskatu ahal izango baitio erantzukizuna enplegatu publikoari, hala egokituz gero dolo, erru edo zabarkeria astunik izan bada, administrazio legeetan ondare-erantzukizunari buruz aurreikusita dagoenaren arabera.

3. Likidatzaileak partzuergoko kide bakoitzari dagokion likidazio-kuota kalkulatu du estatutuetan xedatutakoaren arabera. Estatutuetan aurreikusita ez badago, honela kalkulatu da kuota hori: likidatu ondorengo ondare garbiaren saldoan legokiokeen



parte-hartzea, kontuan hartuta banaketa-irizpidea estatutuetan xedatutakoa izango dela. Estatutuetan halakorik aurreikusita ez badago, kontuan hartuko dira hala partzuergoko kide bakoitzak partzuergoaren ondare-funtsari egindako ekarpenen ehunekoa nola urtez urte emandako finantzaketa. Partzuergoko kideren batek ez badu ekarpenik egin, horretara beharturik ez zegoelako, hau izango da banaketa-irizpidea: partzuergoko kide izan den denboran diru-sarrerarik jaso badu, haietan izandako partaidetza.

4. Partzuergoak erabakiko du nola eta zer baldintzatan ordaindu beharko den likidazio-kuota, emaitza positiboa den kasuetan.

5. Partzuergo-entitateek erabaki ahalko dute, estatutuetan xedatutako gehiengoaren bidez, edo, estatutuetan halakorik aurreikusten ez bada, aho batez, aktibo eta pasibo guztiak lagatzea sektore publikoko beste entitate juridikoki egoki bati, jarduerari eusteko eta azkenduko den partzuergoaren xedeak betetzeko. Aktibo eta pasibo guztiak lagatzeak berekin ekarriko du partzuergo lagatzailea azkentzea likidaziorik gabe.”

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 10.3, 101. eta 104. eta hurrengo artikulua.

10.3 artikulua. *“Udalerriek, gainera, autoantolaketarako ahalaren adierazgarri-obra egiteko eta tokiko zerbitzu publikoak emateko elkarte gisako formuletara jotzeko eskubidea dute. Bereziki, zerbitzuak mankomunitate eta partzuergoen bidez eskainita, Toki Autonomiaren Europako Gutunean aurreikusi bezala, berariaz zaintzen dira subsidiarotasun eta hurbiltasun printzipioak, bai eta toki autonomiarena ere.”*

TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO BITARTEKO ERAKUNDEAK

101. artikulua. *Bitarteko erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzea.*

1.-Udalerriek elkarte-oinarridun bitarteko erakundeak sortu, aldatu edo ezabatu ahal izango dituzte, udal-zerbitzu publikoak batera edo modu partekatuan eman ahal izateko.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako bitarteko erakundeen arau-esparrua izango da toki-araubidearen oinarritzko legerian, kasuan kasuko foru-arauetan edo, hala dagokionean, lege honetan aurreikusitakoa.

3.- Era berean, lurralde historikoetako foru-organoek aukera izango dute, beren lurraldearen barruan, hainbat udalerrri hartuko dituzten udalerrria baino eremu handiagoko erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko, toki-araubidearen oinarritzko legerian, kasuan kasuko foru-araudian edo, hala dagokionean, lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

104. artikulua. *Partzuergoak:*

“1.- Udalerriek eta gainerako toki-erakundeek partzuergoak eratu ahal izango dituzte beste administrazio publiko batzuekin, tokiko zerbitzu publikoak emateko lanean lankidetzara ekonomiko, tekniko eta administratiboaren inguruan guztien intereseko helburuak lortzeko. Beste administrazio publiko batzuek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek ere izango dute horrelako partzuergoetan parte hartzeko aukera, baldin eta partzuergoak osatzen dituzten administrazio publikoen interesekin bat datozen interes publikoak badituzte.



2.-Partzuergoa izango da udalerrien gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak modu partekatuan kudeatzeko hobetsiko den formuletako bat, beharrezkoa jotzen denean udalerriaren aldetik zerbitzuaren egiazko kostuak edo kalitate-estandarrik hobetuko dituen erakunde-mailako konponbide bat eskaintzea, lege honetan aurreikusitakoaren eta dagokion foru-araudian zehaztuko denaren arabera.

Era berean, partzuergoa izango da udalerrien gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak modu partekatuan kudeatzeko hobetsiko den formuletako bat, foru-aldundia, lege honetan aurreikusitakoaren eta indarreko legerian ezarritakoaren arabera, koordinazio-ahalmenak baliatu beharrean gertatzen denean.

3.-Partzuergoek, beren eskumeneko zerbitzuen kudeaketarako, zuzeneko kudeaketa edo zeharkako kudeaketa baliatu ahal izango dute, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuan aurreikusitako eren bidez. Murrizketa hori ez zaie aplikatuko, ordea, lehendik sortuta dauden partzuergoei, baldin eta superabit- edo oreka-egoeran badaude edo ustiaketa-emitza positiboak badituzte.

4.-Edozein partzuergo eratzen dela ere, lehenengo, eraketan parte hartzen duen toki-erakundearen efizientzia ekonomikoa eta finantzen jasangarritasuna zaindu behar dira. Foru-aldundien ardura izango da, finantza-tutoretzako eskumenak baliatuz, partzuergoa mendean duen toki-erakundeari printzipio horiek betearaztea.

105. artikulua. *Lurralde historiko bereko lurralde-erakundeek osatutako partzuergoak*

1.- Partzuergo bat osatu behar duten zuzenbide publikoko erakundeen lurralde-eremuak lurralde historikoaren eremua gainditzen ez duenean, partzuergoaren eraketa egingo da toki-araubidearen oinarritzko legeriaren eta dagokion lurralde historikoko foru-organoaren araudiaren arabera eta lege honi jarraituz aplikatzekoak dituen irizpideen arabera.

2.- Artikulu honetan aurreikusita ez dagoenerako, partzuergoen araubide juridikoa izango da oinarritzko legerian izaera orokorrarekin ezarritakoa eta foru-araudian jasotakoa, eta, edonola ere, administrazio publiko bati atxikita egon beharko dute.

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru Arauak arautzen du kontsortzioa 18 eta hurrengo artikuluetan ematen den aukeraren arabera, entitate lokalek partzuergoak era ditzakete beste administrazio publiko batzuekin, guztien intereseko helburuetarako, bai halaber interes publikoko helburuak lortu nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuekin, helburuok administrazio publikoarenetik bat badatoz.

18. artikulua. *Kontzeptua.*

1. Denen intereseko jarduerak eta zerbitzu publikoak kudeatzeko, udal erakundeek kontsortzioak era ditzakete beste herri administrazio batzuekin edo irabazirik gabeko erakunde pribatuekin, herri administrazioen helburuekin bat egiten duten helburuak ditzutenean.

2. Kontsortzioek beren pertsonalitate juridikoa dute eta helburu espezifikoak betetzeko ahalmena. Kontsortzioko estatutuei jarraitzen diete.



3. *Kontsortzioen eskumeneko zerbitzuak kudeatzeko, Toki Erregimenaren legerian ezarritako eratako edozein erabil dezakete, kontsortzioko kide diren erakundeen ordezkartzan.*

4. *Udal erakundeek eta bestelako herri administrazioek eraturako kontsortzioek, udal erakundeen interesak kudeatzen dituztenean, kontsortzio lokalen izaera izango dute, eta toki erregimeneko legerian ezarritako erregimen juridikoa aplikatuko zaie.*

4 (sic). *Gipuzkoako lurralde historikoko udal erakundeek mugaz gaindiko kontsortzioak era ditzakete udal zerbitzu publikoak kudeatzeko, Gipuzkoako udal erakundeek parte hartuko duten mugaz gaindiko lankidetzak hitzarmenen barruan eta gai horretan Estatuak berretsitako nazioarteko hitzarmenetako aurreikuspenen arabera.*

19. artikulua. Ahalmenak eta eskumenak.

1. *Kontsortzioak ondoko ahalmen hauek izango ditu bere funtzioak betetzeko:*

- a) *Arauk emateko eta autoantolatze ahalmena.*
- b) *Finantza eta zerga ahalmena, beren zerga propioak ezartzeko ahalmena alde batera utzita.*
- c) *Programatu eta plangintza egiteko ahalmena.*
- d) *Aztertu, mugarrizatu eta beren ondasunak ofizioz berreskuratzeko ahalmena.*
- e) *Legitimitasun presuntzioa eta beren ekintzak gauzatzeko ahalmena.*
- f) *Nahitaez betearazteko eta zigortzeko ahalmena.*
- g) *Beren ekintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko ahalmena.*
- h) *Beren ondasun eta eskubideen bahi-ezintasuna, legeetan aurreikusitakoari jarraituz.*
- i) *Kredituei dagokienez, herri ogasunari aitortutako lehentasun eta hobespenak eta gainerako eskumenak, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta udal erakunde izatetik datozen gainerako ahalmenak.*

2. *Hartu beharreko ondasunak non dauden hango udalerriri dagokio desjabetzeko ahalmena, edota Foru Aldundiari ondasunak udalerriri batzuetakoak badira, baina kontsortzioak eskatu ondoren eta haren onuran arituko dira.*

20. artikulua. Estatutuak.

Kontsortzioaren estatutuek, bere oinarrizko araua denez, kontsortzioen funtzionamendu erregimena ezarriko dute eta ondoko puntu hauek edukiko dituzte gutxienez:

- a) *Kontsortzioaren izena eta egoitza.*
- b) *Kontsortzioko kide diren udalerriri, herri administrazio, erakunde, instituzio eta organismoen izenak.*
- c) *Kontsortzioaren gaia eta helburuak.*
- d) *Gobernu eta kudeaketa organoak eta kontsortzioko kideen ordezkariak izendatzeko era.*
- e) *Kontsortzioaren funtzionamendu arauak.*
- f) *Baliabide ekonomikoak eta kontsortzioko kideen ekarpenak.*
- g) *Kontsortzioaren indarraldia.*



- h) *Udalerriak eta bestelako organismoak kontsorzioan sartzeko eta banantzeko prozedura.*
- i) *Estatutuak aldatzeko prozedura.*
- j) *Desegiteko kausak eta prozedura, eta kontsortziora likidatzeko arauak.*

21. artikulua. *Baliabide ekonomikoak.*

1. Kontsortzioaren baliabide ekonomikoak ondoko hauek dira:

- *a) Kontsortzioko kideen diru edo in natura ekarpenak. In natura ekarpenak, jatorriz duten jabari publikoko edo ondareko kalifikazio hori gordeko dutelako, administrazio titularrei itzuliko zaizkie estutuetan adierazitakoari jarraituz, lortu nahi ziren helburuak bete eta gero.*
- *b) Beren ondaretik eta Zuzenbide Pribatuko gainerakoetatik datozen sarrerak.*
- *c) Dirulaguntzak.*
- *d) Kreditu eragiketarik datozenak.*
- *e) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.*

2. Udalerriek, mankomunitateek eta gainerako elkartezko udal erakundeek eman diezaiekete eratu dituzten kontsortziora emango dituzten zerbitzuengatik ezarritako prezio publikoak jartzeko ardura, prezioek zerbitzuen kostua ez dutenean estaltzen eta estatutuetan bestelakorik ez denean esaten izan ezik.

Kontsortzioko kide diren erakundeei proposamenaren eta prezio publikoek zerbitzuaren kostua estaltzen dutela egiaztatzen duen azterketa ekonomikoaren kopia bidali behar diete kontsortziora.

3. Udalerriek, mankomunitateek eta gainerako elkartezko udal entitateek eratu dituzten kontsortzioaren esku utz ditzakete, egokitzat jotzen diren lankidetzaren bidez, kontsortzioak bere gain hartutako zerbitzuen prestazioaren ordain udalek ezarritako tasen kudeaketa, likidazio eta bilketa egiteko ahalmena. Kontsortzioak zenbatekoa eguneratu ahal izango du, hori zurituko duen aginduzko txosten ekonomiko-administratiboan ezarritakoaren arabera.

Gipuzkoako Ur kontsortziora, Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera, nortasun juridikoa propioa duen toki-entitatea da, bere xedea, jardura eremuaren barruan, ur hornidura eta saneamenduko zerbitzuak eskaintzea delarik. Tolosako Udalak, bere aldetik, zerbitzu hauen kudeaketa kontsortzioaren bidez eman dezake, goian aipatutako legedia kontuan hartuz.

Zerbitzuaren kudeaketaren lagapena, dagokion hitzarmenaren bidez gauzatuko da. Hitzarmen honen onspena eta izenpetzea, Sektore Publikoko Kontratuaren Araudetik kanpo daude, gai hau arautzen duen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikulua arabera:

«6. artikulua *Hitzarmenak eta kudeaketa-esleipenak.*

1. Lege honen eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzen ez den edukia duten hitzarmenak, honako hauek elkarren artean egindakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak,



unibertsitate publikoak, erakunde autonomoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak, toki-entitateak, haien mendekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere adjudikatzaillearen izaera badute. .

Hitzarmen horiek kanpoan geratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Esku hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izango. Merkatu irekian lankidetzaz-jardueren ehuneko 20 edo gehiago egiten dituztenean uste izango da halako bokazio bat dagoela.

Ehuneko hori kalkulatzeko, aintzat hartuko da guztizko negozio-bolumenaren batezbestekoa edo jardueraren beste adierazle egokiren bat; esate baterako, kontratuaren adjudikazioaren aurretiko hiru ekitaldietan hitzarmenaren xedea den prestazioa dela-eta jasandako gastuak.

Jardueraren sorrera-data edo hasiera-data dela-eta edo jarduerak berrantolatu direla-eta ez badago eskura aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumena edo jardueraren beste adierazle egokirik —gastuak, esate baterako—, edo horiek indarra galdu badute, nahikoa izango da jarduera-mailaren kalkulua errealitatearekin bat datorrela erakustea, negozio-proiekzioen bitartez bereziki.

b) Hitzarmenak erakunde parte-hartzaileen arteko lankidetzaz bat ezartzea edo garatzea, bermatze aldera dagozkien zerbitzu publikoak halako moduz ematen direla non amankomunean dituzten helburuak lortuko baitira.

c) Lankidetzazaren garapenerako gida bakarra interes publikoarekin lotutako alderdiak izatea.

2. Lege honen eremutik kanpo egongo dira, halaber, sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago lege honetan nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

3. Halaber, lege honen eremutik kanpo geratzen dira sektore publikoaren araubide juridikoaren arloko legeria indardunean araututako kudeaketa-esleipenak».

Halaber, hitzarmen honen bidez, Tolosako Udalak onartzen du zerbitzu horien kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren entitate instrumentala den Gipuzkoako Urak, SA baltzuaren esku uztea, dagokion kudeaketa agindua. Agindu hori ere Sektore Publikoko Kontratazioa arautzen duen Legetik at dago, aipatutako Legearen 6.3 artikulua arabera, baltzu hori Kontsorzioaren berezko baliabidea delako (32. artikulua).

Era berean, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, kudeaketa aginduak arautzen ditu era honetan:

«8. artikulua: ...kudeaketa-gomendioek ez dute eskumenaren titulartasuna aldatzen».

«**11. artikulua.** Kudeaketa-gomendioak.

1. Administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko beste organo edo



zuzenbide publikoko entitateen gomendio utz daitezke, jarduera horiek haien eskumenen barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago.

Sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratuen berezko prestazioak ez dira izango kudeaketa-gomendioen xede. Hori gertatzen bada, horien izaerak eta araubide juridikoak legeria horretan aurreikusita dagoena bete beharko du.

2. Kudeaketa-gomendioak ez dakar ez eskumenaren titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, kudeatzeko gomendia ematen duen organoaren edo entitatearen ardura izango da gomendioan emandako jarduera material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

Nolanahi ere, gomendia jasotzen duen entitate edo organoa izango da kudeaketa-gomendia egikaritu bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta datu pertsonalen babeserako araudian xedatuta dagoena aplikatuko zaio

3. Kudeaketa-gomendioak formalizatzeko, erregela hauek bete beharko dira:

a) Kudeaketa-gomendia administrazio berekoak diren administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen artean egiten bada, administrazio horren arauetan ezarrita dagoen bezala formalizatuko da; halako araurik ez badago, berriz, esku hartzen duten zuzenbide publikoko organo edo entitateek espresuki hartutako akordioari begiratu zaio. Nolanahi ere, kudeaketa-gomendia formalizatzeko tresna eta ebazpena, efikazak izan daitezen, Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratu beharko dira, gomendia egiten duen organoa zein administrazioetakoa den kontuan hartuta.

Administrazio bakoitzak arautu ditzake akordio horien baliozkotasunerako betekizunak. Akordio horietan, gutxienez honako hauek jasoko dira espresuki: zein den jarduera, indarraldia eta kudeaketaren izaera eta irismena.

b) Kudeaketa-gomendia administrazio desberdinetako organo eta zuzenbide publikoko entitateen artean egiten denean, dagokion hitzarmena izenpetuz formalizatuko da; ez da hitzarmenik behar, ordea, probintzietako diputazioek edo uharteetako kabildo edo kontseiluek autonomia-erkidegoetako zerbitzuen ohiko kudeaketaz arduratu behar dutenean; izan ere, kasu horretan, toki-araubidearen legeriak arautuko baitu kudeaketagomendia. Aipatutako hitzarmena Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratuko da, gomendia egiten duen organoa zein administrazioetakoa den kontuan hartuta».

48.9 artikulua: *«Kapitulu honetako arauak ez zaizkie aplikatuko kudeaketa-gomendioei eta administrazio-prozedurak hitzarmen bidez amaitzeko akordioei».*

Berezko baliabidea, lege horren **86. artikuluan** dago araututa.

Organo eskuduna: osoko bilkura da organo eskuduna eta erabakiak onartzeko gehiengo absolutua beharrezkoa da.

Honela dio Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 22.2 b).artikuluan:

«2. Hauek dira, nolanahi ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak:



...

b) Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea; udal-mugartea aldatzea; udalerriak eta 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortzea edo ezabatzea; deskontzentratutako organoak sortzea; udalerriburua aldatzea eta udalerraren edo erakunde horien izena aldatzea, eta bertako bandera, ikurra edo armarrria onartzea edo aldatzea».

47.2.g) artikulua gehiengo absolutua eskatzen du:

«2. Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:

...

g) Mankomunitateak eta beste elkarte-antolakunde batzuk sortu, aldatu edo desegiteko, baita horiei atxiki, eta bertako estatutuak onartu eta aldatzeko ere».

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2019ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honakoa izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Mari Villanueva Telleria .

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena- Ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren bidez ematen jarraitzea, era kontsortzian. Zerbitzu horren barruan sartzen dira altako eta bajako sareen kudeaketa, bai uraren hornidurari buruz, bai uraren hornidurari dagokionez, bai saneamenduari dagokionez, bai eta egin beharreko inbertsioak eta hobekuntzak egitea ere.

Bigarrena- Uraren ziklo osoaren kudeaketarako kudeaketa-agindua onartzea eta hura arautzen duen hitzarmena onartzea, klausula hauen arabera:

I.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa Gipuzkoako hainbat udalek —horien artean TOLOSA— eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Honako hau da erakunde horren xedea: “sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezarrera eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, hori guztia baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera”. Estatuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak TOLOSAko udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen du.

II.- Kontsorzioaren Estatutuen 7.2. artikulua honela dio: “hala erabakiko denean, Kontsortzioak ur-zikloaren helburuak zabal ditzake, interesa duten udalekin ados jarrita eta haiekin dagokion hitzarmena izenpetu ondoren”. Kontsortzioko Batzar Nagusiak joan den 2000ko abenduaren 21ean egin zuen bileran hartu zuen erabaki hori.



Era berean, Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legeak ezartzen du udalek Hornidurako eta Saneamenduko Zerbitzua modu Kontsortziatuan eman dezaketela, horrela nahi dutenean.

III.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA toki-erakunde den aldetik, zerbitzu publikoak prestatzeko modu desberdinak erabil ditzake, beti ere, lege xedapenen arabera –Toki-Jaurbidearen gaietan indarrean dauden lege-xedapenen eraberritutako Testuaren 110.5. artikulua– eta estatutuetoako xedapenen arabera –9. artikulua–. Zentzu horretan eta bere zerbitzuak kudeatzeko, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK kapital erabat publikoaz osatuta dagoen sozietate anonimoa du eratuta: GIPUZKOAKO URAK EA.

IV.- TOLOSAko Udalak interes handia du URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa, bi sareen kudeaketa sartuz, “goia” eta “behea”, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku jarraitzea, Gipuzkoako Urak, EAren bitartez.

Beraz, beharrezko lege eta jardute-ahalmena aitortzen diote elkarri eta HITZARMEN hau, KUDEAKETA-AGINDUA formalizatzen duena, izenpetzea erabaki dute, atal hauen arabera.

ATALAK

I.- TOLOSAko Udalak erabakitzen du, hitzarmen honen ondorioz eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa uztea GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku, Gipuzkoako Urak, EAren bitartez; erakunde horrek hornidura eta saneamenduko “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketa barnean hartzen du, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere. Horretarako, TOLOSAko Udalak erabakitzen du GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI emakida, emarien ustiapenak, azterlanak, proiektuak, sareak eta instalazioak eta kontsortziatutako zerbitzuak emateko gainontzeko baliabide guztiak ematea.

II.- TOLOSAko Udalak erabakitzen du, zuzenbide-ordenamenduak horretarako bidea ematen duen heinean, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea Udalak dituen aginpide, eskuduntza, eskumen, ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiak, zerbitzuak eta bere xede eta jomuga diren helburuak ematearekin zerikusia dutenak.

III.- TOLOSAko Udalak hitzarmena indarrean dagoen bitartean, eta bajako sarearen erabilera uzteagatik ordain moduan, kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko urtero Kontsortzioko Batzar Nagusiak onartzen duen kanona jasoko du.

Nolanahi ere, hitzarmen hau indarrean dagoen lehenengo HAMABOST urtetan Udalak kontzeptu honengatik ez du inongo kopururik jasoko, ordain gisa (% 21eko BEZa sartuta) 2.834.582 Euroko ordainketa bakar bat jasoko du hitzarmena izenpetzen den unean.

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK datozen 15 urteetan 4.237.714 € (% 21eko BEZa sartuta) inbertituko ditu. Zenbateko hori urtero eguneratuko da. Inbertsioak udalerriko bajako sarean egingo dira, eta urtero GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA eta



TOLOSAko Udalaren artean hitzartuko dira. Horretarako, Ur Kontsortzioak urteko inbertsioen proposamena egingo dio Tolosako Udalari, eta Udalak dagokion ebazpenaren bitartez onartuko ditu.

Bi alderdiek onartzen dute hitzarmen honen oinarria den azterketa ekonomikoa, eta hitzarmenari eransten zaio 1. dokumentu gisa.

IV.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK TOLOSAko udalerriko URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa bere gain hartuko du 2022ko otsailaren 1etik aurrera.

V.- Kudeaketa-agindu honek gutxienez 15 urteko iraupena izango du. Epe hori pasa ondoren, Udalak erabaki dezake, bere kasuan, zuzenbide-ordenamenduak une bakoitzean bide ematen dion heinean beste edozein modutara zerbitzua ematea, horretarako dagozkion erabakiak hartuz eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion urratsak emanez, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI sei hilabete LEHENAGO jakinaraziz.

Behin hasierako 15 urteko epealdia pasa ondoren, aurreko zatian aurreikusitako berriazko uko egitea ematen ez bada, bi alderdiek erabaki dezakete agindua luzatzea, harik eta Udalak, bere kasuan, zuzenbide-juridikoak ematen dizkion eskumenaz baliatuz, zerbitzua beste modu batetara ematea erabakitzen duen arte. Hala eta guztiz ere, Udalak, bere kasuan, zerbitzua kontsortziatu eran ematea deuseztatzea erabakitzen badu, deuseztapena baino lehen, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI ordaindu beharko zaio. Zenbatekoa kalkulatu da hartuaz Kontsortzioak udalerrian egindako inbertsioak eta berrikuntzak eta TOLOSAko Udalari emandako kopuruak ken Kontsortzioak TOLOSAko inbertsio eta berrikuntzarako jasotako kopuruak. Kontrakoa gertatzen bada, aipatutako kopurua GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK TOLOSAko Udalari ordaindu beharko dio.

VI.- Zerbitzuaren tasak eta prezioak, baita udalerriko abonatuei aplikagarri zaizkien ordenantzak ere, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN proposamenez bere egunean TOLOSAko Udalak onartutakoak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOKO Batzar Nagusiak urtero eguneratuko ditu, aipatutako tasen tarifa-egitura aldatu gabe.

VII.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK TOLOSAko Udalari bermatzen dio bere langileek gordeko dutela hitzarmen honen bitartez bere gain hartutako kudeaketagatik abonatuei eta bezeroei doakien edozein informazioari buruzko konfidentziasuna eta isilpekotasuna, eta batez ere, 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, babestutakoak direnean, datu horietara zuzenki edo zeharka sarbidea dutenean edo kontratatutako zerbitzuaren ondorioz ezagutzen dituztenean, zein hitzarmen honek irauten duen bitartean zein hitzarmena bukatutakoan.



VIII.- Udal kontsumotzat hartuko dira, eta, beraz, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN uraren ziklo integralaren zerbitzuaren Ordenantza Erregulatzailleak ezarritako hobari eta salbuespenak izango dituzte, Udalak egindako kontsumoak, bere Erakunde Autonomiadunek eta udal elkarteek, bere eskumenen eremuan, nahiz zerbitzuak zuzenean kudeatzen badira, nahiz emakidadunaren bitartez.

IX.- Hitzarmenak izaera administratiboa du, eta hura sortzean, ulertzean, aldatzean edo suntsiaraztean sor litezkeen arazoak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean konponduko dira.

ERANSKINA:

UDALERRIA		EREDUA	TOLOSA
m ³ baja/urtean		354.451	1.201.349
Biztanleak		4.627	19.816
Material mota	Faktorea	ml	ml
Burdinurtua	100	683	0
Zuntz-zementua	90	5.400	5.232
Burdina galvanizatua	60	1.361	1.788
Polietileno zaharra	60	4.437	4.126
Polietileno berria (ISO)	5	4.680	10.333
Burdinurtu nodularra	5	5.376	39.840
Beste material batzuk	90	2.074	1.609
Guztira	M guztira	24.010	62.929
Berritzeko konpromisoa 10 urtean	%	ml	ml
Burdinurtua	% 70,1	478	0
Zuntz-zementua	% 93,1	2.800	4.869
Burdina galvanizatua	% 72,0	572	1.288
Polietileno zaharra	% 72,0	1.865	2.973
Polietileno berria (ISO)	% 3,5	164	362
Burdinurtu nodularra	% 3,5	188	1.396
Beste material batzuk	% 83,1	1.308	1.336
	M GUZTIRA	7.376	12.224
	U.P.	Euroak	Euroak (+ BEZa)
Berritzearen kostua: (191,00 euro/ml + BEZa)	191,00	2.113.290,40	3.502.243,11
Udalari ordaintzeko muga	0,130	0,130	2.342.629,75
15 URTEAN GOMENDATUTAKO INBERTSIOA (BEZa barne)		2.557.081	4.237.714
Zenbateko hauek urtero berritzen dira			
ORDAINKETA 15 URTEAN (BEZa BARNE)		0,00	2.834.582



Hirugarrena- Patxi Amantegi zinegotzi delegatuari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Laugarrena: Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturraspe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren arteko uraren ziklo osoaren kudeaketarako kudeaketa agindua eta hura arautzen duen hitzarmena.

7. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA “13. LASKOAIN” ESPARRUKO “13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37” AZPIESPARRUKO XEHETASUN-AZTERLANARI.

Lurraldeko batzorde informatiboaren 2022ko urtarrilaren 19ko irizpena

Helbidea:	San Frantzisko 37
Esparrua:	13. Laskoain
Azpiesparrua:	13.1. San Frantzisko Pasealekua 37
Eskatzailea:	JAITZUBIA BARRI SL (ordezkaria: Oihana Miren Urruticoechea Garcia)
Sarrera datak:	2021/06/15
(erregistro elektronikoz)	2021/12/22 (proiektua zuzenduta)
Espedientea:	2021H1070002
Erlazionatutako espedienteak:	2021H1130003 Urbanizatzeko jarduketa programa 2021H1140002 Egikaritze hitzarmena
Dokumentazioa:	Eskaera orria eta xehetasun azterlana (memoria - planoak)



AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen eskaera	2021/06/11	Interesduntzat hartu eta jakinarazpenak bidali
Xehetasun-Azterlanaren proiektua	2021/06/15	
Txosten tekniko (JM21055)	2021/08/12	Aldekoa baldintza partikularrekin
Txosten juridikoa (MAU21003) Ebazpen proposamena	2021/09/02	Aldekoa baldintza partikularrekin
Idazkari akzidentalaren ziurtagiria Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiarena	2021/09/10	Aldekoa baldintza partikularrekin
Jakinazpena Jaizubia Barri SLri	2021/09/20	
Jakinazpena San Frantzisko 35eko jabekideei	2021/09/21	
- Iragarkia GAO	2021/09/27	
- Iragarkia udaletxeko iragarki taulan / web gunean	2021/09/27 - 2021/10/27	
- Tolosaldeko Atarian	2021/09/29	
- Berria egunkarian	2021/09/29	
- Diario Vasco	2021/09/29	
Ur Agentziaren ofizioa	2021/09/29	Ur Kondeferazioari igorpena
Alegazio aurkezpena	2021/10/19	San Frantzisko 35 Jabekide Elkarte
Alegazio aurkezpena	2021/10/28	San Frantziskoko bizilagunak
Informazio publikoari buruzko Idazkariaren ziurtagiria	2021/11/04	
Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren txostena	2021/11/12	Aldekoa baldintzekin
Ofizioa Jaitzubia Barrio SLri alegazioen aurkezpenari buruzkoa	2021/11/08	
Jaizubia Barri SLren erantzuna alegazioei	2021/11/24	
Jakinazpena Jaizubia Barri SLri	2021/11/25	
Xehetasun-Azterlanaren proiektua (zuzenduta)	2021/12/22	
Txosten juridikoa (MAU21023) Txosten juridikoa (MAU21024)	2021/12/23	Alegazioak partzialki onartzea
Ur Agentziaren txostena	2022/01/05	Aldekoa
Txosten juridikoa (MAU22003.1)	2022/01/14	Behin betiko onespena ematearen aldekoa
Hirigintza buruaren txostena (JM22001)	2022/01/14	Behin betiko onespena ematearen aldekoa baldintzekin



ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

- 2022ko urtarrilaren 14an, hirigintzako AOTak egindako txostenean (MAU22003.1) behin betiko onespenerako jarraitu beharreko prozedurari buruz honako hau adierazi zuen:

“A. Jendaurrean jartzeko aldia amaituta, alegazioak aurkeztuta eta horiei buruzko txosten juridikoak eginda, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, Udalbatzak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.3 artikularekin eta Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikularekin bat etorriz, Xehetasun Azterlana behin-betiko onetsiko du, bidezko diren aldaketak eginda.

Xehetasun-azterlana behin-betiko onesteko epea hiru hilabetekoa izango da, hasierako onespentik zenbatzen hasita; epe hori igarotakoan, ezetsizat joko da administrazio-isiltasunez.

B. Xehetasun Azterlana behin-betiko onartu ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie, eta behin-betiko onespeneraren erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikularekin bat etorriz.

Era berean, hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari jakinaraziko zaio, behin betiko onespeneraren erabakia hartu eta hamar eguneko epean, ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamenduaren 140.5 artikularekin bat etorriz”.

AZTERKETA JURIDIKO-TEKNIKOA

- 2021eko abenduaren 23an, hirigintzako AOTak San Frantzisko 35eko jabekideen erkidegoak aurkeztutako alegazioaren aurrean egindako txosten juridikoan (MAU21023), laburbilduz, honako hau adierazi zen:

“(…)

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAREN ALDERDI AIPAGARRIAK

San Frantzisko 35eko jabekideen erkidegoak, Milian Arabaolaza Barandiaran ordezkari dutela, aurkeztutako alegazioan, honako argudio hauek dira aipagarriak:

- (1) **Sarbide/bide-zorra.** Tolosako HAPOren antolamendu xehatuan ezarritakoari egiten zaio erreferentzia “13. Laskoain” esparruari eta “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruari dagokionez. Zehazki, adierazten da “20.1/13.1” lurzatiaren sotorako aurreikusitako erregulazioa eta bertarako sarbidea; lurzati horretan dauden eta/edo proiektatuta dauden sotoetarako aurreikusitako sarbide/bide-zorrak azpimarratzen dira. Hala, adierazi da, izapidetze-prozesuan dagoen xehetasun-azterlanean ez dela islatzen San Frantziskoko 35.ean dagoen



eraikinaren satora sartzeko ezar litekeen zortasuna.

Amaitzeko, adierazten da, bide-zortasun hori gabe, jabeen erkidegoak ezin izango duela kendu Xehetasun Azterketaren xede den azpiesparruaren eta San Frantzisko 35eko bizitegi-eraikinaren artean dagoen egungo arrapala. Eraikinen arteko espazio publiko estuak jasango du eragina, eta HAPOk adierazitakoaren aurka egingo du, bertan zehazten baita arrapalaren inpaktuak ahalik eta txikiak izan beharko direla espazio publikoan.

- (2) **Uraren Euskal Agentziaren baldintzatzaileak.** Kontuan hartuta “a.20/13.1” lurzattia Uraren polizia-eremuaren barruan dagoela, alderdi alegatzaileak adierazi du, aurreikusitako sarbide/bide-zorra ondorioz gabe gera daitekeela, lurzati eta espazio mugakideek ez baitituzte sestra azpiko solairuen estankotasuna bermatzeko aurreikusitako neurriak.
- (3) **Domeinuak gainjartzea.** Alegazioa egin duen jabeen erkidegoak ibilgailuentzat duen sarbide eskasa hobetzeko, proposatzen da Xehetasun Azterketan jaso ahal izatea San Frantzisko 35.eko sotoko solairura sartzeko arrapalaren zabalera handitzea, esparruaren antolamendu xehatuak ezarrita bezala, jabari publikoaren gainean ahalik eta eragin txikiena sortzeko moduan San Frantzisko 35.eko jabetzaren eta “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren artean. Horretarako, honako hau planteatzen da: “gutxienez 50 cm zabaltzea sestra gainean (zentimetro horiek irabaziko lirateke “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruko 1. eraikinaren lekualdatzetik, orain planifikatuta dagoen moduan), eta ondoren, San Frantzisko 35.eko satora sartzeko arrapalaren sestra azpiko zabalera handitzea, esparruaren antolamendu xehatuak ezarrita bezala, jabari publikoaren gainean ahalik eta eragin txikiena sortzeko moduko altueratik abiatuta, San Frantzisko 35.eko jabetzaren eta “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren artean.

Azaldutako argudioak aintzat hartuta, honako hau eskatzen da alegazioan (zenbait eranskin ere baditu):

1. *“Xehetasun Azterketan jaso dadila bide-zorra “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren sotoaren eta San Frantzisko pasealekua 35eko sotoaren artean, indarrean den Tolosako HAPOk adierazitako moduan.*
2. *URA Uraren Euskal Agentziak adieraz dezala bere iritzia Xehetasun Azterketa behin betiko onartu baino lehen, dagokion txostenean, “13.1 San Frantzisko 37” azpiesparruaren eta mugakide dituen lurzati zein espazio guztien arteko (publikoak nahiz pribatuak) bide/sarbide zorrak eratzeko aukera errealari buruz.*
3. *Sar dadila Xehetasun Azterketan jabari publiko-pribatuen gainjartzea “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruko 1 eraikin berriaren eta San Frantzisko pasealekuko 35.eko eraikin finkatuaren artean, alegazio hau sinatu duen jabeak erkidegoaren arrapalaren zabalera handitu ahal izateko (4. eranskina).*
4. *URAREN eta Udalaren emaitzaren mende dauden bi aukera daudela aintzat hartuta, Xehetasun Azterketan San Frantzisko pasealekuko 35.eko satora sartzeko bi aukerak sartzea, eta ondoren, bi erakunde horien erantzunen arabera, jabeak erkidegoak haien interesen arabera egokiena den irtenbidea aukeratu ahal izatea”.*



AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAREN AZTERKETA JURIDIKOA

Egindako alegazioak kontuan hartuta, honako gogoeta hauek egiten ditut, jarraian azaltzen diren oinarri juridikoetan oinarrituta:

- I. 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 73. artikulua arabera, Xehetasun Azterketen xedea edozein lur motatan antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatzea edo egokitzea da, eta honako hauetara mugatu behar dute zehaztapen horiek:

- a) Antolamendu xehatuak ezarritako lerrokadurak eta sestrak ezartzea, zuzentzea edo osatzea.

- b) Bolumenak dagokion plangintzaren aurreikuspenen arabera antolatzea. Bolumenen birmoldaketa tipologikoa edo morfologikoa dela-eta beharrezkoa edo komenigarria denean, antolamendu horrek bide berriak edo zuzkidura publiko berriak ezartzeko lurzorua kalifikazioa har dezake.

- c) Antolamendu xehatuan zehaztutako urbanizazio-obren, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien zenbait alderdi eta ezaugarri estetiko eta konposizio-ezaugarri arautzea.

Xehetasun-azterketek ezin dituzte, inola ere, kasuan kasuko plangintzak horiek formulatzeko ezartzen dituen aurreikuspenak urratu edo ez ezagutu. Era berean, ezin dute lurzorua xedea aldatu, hirigintza-eraikigarritasuna handitu, ezta plangintzan ezarritako bide edo zuzkidura publikoak kendu edo murriztu ere.

Xehetasun-azterketen xedea eta zehaztapenak kontuan hartuta, kontuan hartu behar den arren, ez da hau HAPOn aurreikusitako bide-zorra berriaz jaso edo aipatu behar duen tresna. Hala ere, informazio gisa, zortasun hori aipa daiteke. Horregatik, onargarria da lehenengo alegazioa.

- II. 2006ko ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legearen 7.k) artikulua arabera, Uraren Euskal Agentziak honako funtzio hau bete behar du: "Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan berezietan buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera. Bi hilabeteko epean eman eta jakinarazten ez bada, dagokion plan edo araua ontzat ematen dela joko da".

Horregatik, espediente jakin honetan, Uraren Euskal Agentziaren zeregina honako hau da: "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruaren eta jabari publiko hidraulikoa babesteari/erabiltzearen arteko loturari buruzko txostena egitea; eta zehatzago, Tolosako udalerriko Oria ibaiaren ezkerreko ertzeko ibilguen polizia-eremuari sortzen dion eraginari buruzkoa. Hori esanda, zehaztu behar da adierazitako azpiesparrua bakarrik aztertuko duela URak, eta ez lurzati mugakideak. Beraz, ez da onargarria Uraren Euskal Agentziari eskatzea azter ditzala mugakide diren lurzati eta espazio publiko guztiak, publiko zein pribatu. Nolanahi ere, alegatzaileak berak egin beharko du eskaera.

Tolosako Udalak 2021/09/16an egin zuen URaren sektore-txostena jasotzeko eskaera, eta 2021/09/29an jakinarazi ziguten eskaera behar bezala sartu zela, eta eskaerari erantzuteko bi txosten jasoko zirela: bata, Konfederazio Hidrografikoarena, eta, bestea, Uraren Euskal Agentziarena.



- III. Alegazioa egin duen jabekideen erkidegoak arrapalaren zabalera handitzeko eginiko eskaerari dagokionez, Jaitzubia Barri, SLU sustatzaileak, alegazioari erantzunez, adierazi du ados dagoela planteatutako irtenbidearekin, baldin eta espaloari, bere luzera osoan, 2 metroko zabalera bermatzen bazaio. Horren ondorioz, baietsi egiten da egindako alegazioa.
- IV. Xehetasun Azterketan sarbide/bide-zorra eta alegazioa sinatu duen jabekideen erkidegoaren arrapala zabaltzeko irtenbidea sartzeko eskaerari dagokionez, adierazi behar da, lehen aipatutako moduan, hau ez den arren eskubide erreal hori jasotzeko tresna egokia, aipamen bat egin dakiokela. Beraz, baietsi egin daiteke eskaera hori.

ONDORIOAK

Lehen aipatutakoa kontuan hartuta, honako erabaki hau hartzea proposatzen dut:

LEHENENGOA.- PARTZIALKI BAIESTEA San Frantzisko pasealekuko 35.eko jabekideen erkidegoak, Milian Arabaolaza Barandiaran ordezkari dutela, aurkeztutako alegazioa. “13. Laskoain” esparruko “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren xehetasun-azterketari hasierako onarpena emateko akordioari dagokion jendaurreko informazio-aldian aurkeztua da alegazio hori.

Hain zuzen honakoak onartzen dira:

1. Xehetasun-azterlanean aipamen moduan jasotzea, indarrean den Tolosako HAPOk adierazitako moduan, “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren sotoaren eta San Frantzisko pasealekua 35.eko sotoaren arteko sarbide/bide-zorra.
2. Xehetasun-azterlanean egokitzea “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren sestrapeko lerrokadura San Frantzisko 35.eko partzelaren mugaraino eramanez eta horrek San Frantzisko 35.eko garajeko sarbidea egokitzeko aukerak erraztuz. Dena dela, sestra gainean pasabide publikoak bi metroko zabalera izatea bermatu beharko da.

BIGARRENA.- Erabaki hau alegazioa aurkeztu duen alderdiari jakinaraztea”.

- 2021eko abenduaren 23an, hirigintzako AOTak Oihane Beloki Zubirik agiriaren sinatzaileen izenean aurkeztutako alegazioaren aurrean egindako txosten juridikoan (MAU21024), laburbilduz, honakoa adierazi zuen:

“(…)

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAREN ALDERDI AZPIMARRAGARRIAK

Oihane Beloki Zubirik agiriaren sinatzaileen izenean egindako alegazioaren azalpen atalean Tolosako HAPOn zenbait atal aipatzen dira, baita enpresa sustatzaileak aurkeztutako xehetasun-azterlana eta, “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruko garapenak inguruan izango duen eragina aipatuta, zenbait tokiren (San Frantzisko Atzekalea, Etxadi patioa eta “13.1 San Frantzisko 37” azpiesparrua bera) gaur egungo azterketa labur bat jasotzen da.



Adierazitako azalpenaren ondotik, oro har, honako alegazio hauek egiten dira:

- (1) "Etxadi patio honen erabilera momentu honetan ez dela ez eraginkorra, ez optimoa, aitzitik oso kalitate txarrekoa dela, iruditzen zaigunez, etxadi patio honen erabilera indartzea beharrezkoa ikusten dugu, bai kultura arloko jarduerak bultzatzeko (Zezen Plaza eta Hiru taberna ardatz hartuta), bai bertan dauden haur eta gazteei ekipamenduak eskaintzeko.
- (2) Ez zaigu egokia iruditzen 13.1 (azpi)esparruan egingo diren garapenak uharte moduan egitea, inguruan garapen hori nola txertatuko den kontuan hartu gabe".
- (3) Eraikin berri honen kokapenak etxadi patioan izango duen eragina ez da kontutan hartu, eta eraikin berri honek ez du betetzen kokatzen deneko hiri-ingurunearekiko harmonizatzeko irizpideak aintzat hartzeko araua.
- (4) URAk eskatutako baldintza betetzeko beste aukera batzuk posible ikusten direnez, ez da egokia ikusten etxadi patioaren erdian eraikuntza berri bat jartzea.
- (5) Ezinbestekoa ikusten da, beraz, sortuko den aparkaleku arazo hau kontuan hartu eta aurre hartzeko soluzioak bilatzea.
- (6) Garrantzitsua iruditzen zaigu ahal den neurrian berdeguneak mantentzea".

Ondorioz, Tolosako Udalarari eskaera hauek egiten zaizkio:

1. "Zezen Plazaren gertutasuna, etxadi-patioak eskaintzen dituen aukerak eta bere egoera kontuan hartuta, momentu honetan aurrera eramateko aurrekonturik ez badago ere, **etxadi-patioa birmoldatzeko proiektu integral bat garatzea, horrela 13.1 San Frantzisko, 37 (azpi)esparruan egingo diren urbanizazio lanak birmoldatze proiektu integral hori kontutan hartuta egin ahal izateko.**
2. **13.1 San Frantzisko, 37 (azpi)esparruan egingo den urbanizazio garapenean berdeguneak jartzea, gaur egun etxadi patioan dagoen belardiarekin txertatuz, egokia ikusten den kasuetan gaur egun dauden zuhaitz eta landareak mantenduz.**
3. **Sestra azpiko aparkalekuetara sartzeko eskailera eta aszentsorea bi etxadietako bateko behe solairuan egitea.**
4. **13.1 San Frantzisko, 37 (azpi)esparruko etxebizitzak sortuko dituen aparkaleku arazoak aurreikusi eta San Frantzisko Atzekalea kaleko bizilagunei soluzioak eskaintzea.** Horien artean, San Frantzisko atzeko kaleko aparkalekuak egoiliarrentzat erreserbatzea edo/eta 13.1 (azpi)esparruan garatuko diren aparkaleku libreak erosteko (hau da, 13.1 (azpi)esparruko etxeei ez dagozkien aparkalekuak erosteko) bizilagun hauei lehentasuna ematea.
5. 13. Laskoain esparruan Pedro de Tolosa pasealekura (1-7), Oria kalera (2-16) eta San Frantzisko atzeko kalera (43, Oria hotelaren lursailarekin bat egin arte) ematen duten eraikinen artean kokatzen den **etxadi patioaren birmoldatze proiektu integrala datorren urteko aurrekontuetan kontuan hartzea, Tolosarrei modu egokian ekipatutako espazio libre berri hau eskaini ahal izateko.**
6. **Behean sinatzen dugun pertsonok 13.1 San Frantzisko, 37 (azpi)esparruko garapenean interesduntzat hartu eta garapen honi buruzko jakinarazpenak bidaltzea".**



EGINDAKO ALEGAZIOAREN AZTERKETA JURIDIKOA

Egindako alegazioak kontuan hartuta, jarraian azaltzen diren oinarri juridikoetan oinarrituta, gogoeta hauek egiten ditut:

I. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikulua arabera, xehetasun-azterlanen helburua antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzea edo egokitzea da, eta zehaztapen horiek honako hauetara mugatu behar dira:

A) Antolamendu xehatuak ezarritako lerrokadurak eta sestrak zehaztea, zuzentzea edo osatzea.

B) Bolumenak dagokion plangintzaren aurreikuspenen arabera antolatzea. Bolumenen birmoldaketa tipologikoa edo morfologikoa dela-eta beharrezkoa edo komenigarria denean, bide berriak edo zuzkidura publiko berriak ezartzeko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso dezake antolamendu horrek.

C) Antolamendu xehatuan definitutako urbanizazio-obren, eraikinen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo jakin batzuk arautzea.

Xehetasun-azterlanek ezin dituzte, inola ere, kasuan kasuko plangintzak horiek formulatzeko ezartzen dituen aurreikuspenak urratu edo ez ezagutu. Era berean, ezin dute lurzoruaren xedea aldatu, hirigintza-eraikigarritasuna handitu, ezta plangintzan ezarritako bide edo zuzkidura publikoak kendu edo murriztu ere.

Xehetasuneko azterlanen xedea eta zehaztapenak kontuan hartuta, ez da etxadi-patioa birmoldatzeko eskatutako proiektu integrala jaso edota aurreikusi behar duen tresna. Izatekotan, urbanizazio-proiektuak jaso beharko luke eskakizun hori. Ondorioz, ez da onargarria aurkeztutako alegazioa.

II. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.1.d) artikulua ezartzen duenez, egikaritze-unitate batean dauden lursailen jabeen urbanizazio-kargen artean dago lorategiak egiteko eta zuhaitzak landatzeko obrak; eta, halaber, hiriguneak, parkeak, lorategiak eta bide publikoak altzariz hornitzekoak. Beraz, eskatutako berdeguneak urbanizazio-proiektuan jaso beharko lirateke. Ondorioz, eskatutakoa xehetasun-azterlanaren objektutik kanpo dagoenez, ez da onargarria aurkeztutako alegazioa.

III. Aparkalekuetara sartzeko eskailera eta aszensorearen inguruan egindako eskaerari erantzunez, Jaitzubia Barri SLU sustatzaileak adierazi du etxadi patioan planteatutako garaje-irteera ezabatu eta 1. blokearen barruan kokatuko duela. Hortaz, eskaera onargarria da.

IV. 13.1 San Frantzisko, 37 (azpi)esparruko etxebizitzak sortuko dituen aparkaleku arazoak ere ez dira orain izapidetzen ari den xehetasun-azterlanaren objektu. Beraz, une honetan aurkeztutako eskaera ez da onargarria.



- V. *Etxadi patioaren birmoldatze proiektu integrala datorren urteko aurrekontuetan sartzeko eskaera ez da onargarria ez baita ez xehetasun-azterlanaren objektu ez hirigintza sailaren eskumena. Hori dela eta, aurkeztutako eskaera ez da onargarria.*
- VI. *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikuluan oinarrituz, onargarria da Oihane Beloki Zubiri San Frantzisko pasealekuko zenbait bizilagunen izenean egindako eskaera sinatu dutenak interesduntzat hartu eta garapen honi buruzko jakinarazpenak bidaltzeko egindako eskaera.*

ONDORIOAK

Arestian aipatutakoa kontuan hartuta, honako erabaki hau hartzea proposatzen dut:

Lehenengoa.- PARTZIALKI ONESTEA Oihane Beloki Zubirik, agiriaren sinatzaileen izenean, “13. Laskoain” eremuko “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren xehetasun-azterlanaren hasierako onespeneraren erabakiaren jendaurreko erakustaldian aurkeztutako alegazioa.

Hain zuzen, aurkeztutako alegaziotik honako hau onartzen da:

1. Sestra azpiko aparkalekuetara sartzeko eskailera eta igogailua bi etxadietako bateko behe solairuan egitea.

Bigarrena.- Erabaki hau alderdi alegatzaileari jakinaraztea”.

- 2022ko urtarrilaren 14an, Hirigintzako buruak egindako txosten teknikoan (JM22001), laburbilduz, honako hau adierazi zen:

“(…)

2- AZTERKETA TEKNIKOA:

- **TXOSTENAREN HELBURUA:**
Txosten hau idazten da xehetasun azterlanari buruzko informazioa emateko.
- **XEHETASUN AZTERLANAREN HELBURUA:**

Aurkeztutako dokumentuaren arabera, Xehetasun Azterlanaren helburua ordenazio zehatua zehaztea da; lerrokadurak eta sestrak definitzea eta HAPOko Fitxa Partikularrean zehaztutako eraikinen hegalak aldatzea, hain zuzen ere.

Memoriako 7. orrian zehazten denaren arabera, indarrean dago HAPOren fitxarekiko 5 aldaketa proposatzen dira:

“- Encaje de alineaciones bajo rasante dentro del ámbito de la unidad. Se modifica las alineaciones bajo rasante dando respuesta a la alegación planteada por la



comunidad de San Francisco nº 35. De esta forma, se puede cumplir con la servidumbre de paso descrita en el PGOU o con la ampliación de la rampa del edificio colindante (por parte de San Francisco nº35).

- Encaje de alineaciones sobre rasante dentro del ámbito de la unidad.
- Dotar de vuelos en todas las fachadas factibles de plantas superiores.
- Modificación de la Rasante de Planta baja, tras el posterior levantamiento topográfico.

- A petición de las alegaciones de vecinos de San Francisco nº 37, se elimina la salida de evacuación del garaje propuesta inicialmente en el patio de manzana y se resuelve dentro del Bloque nº1 salvando la cota de inundabilidad.”

Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun-azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela Lurzorua eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 73.1 artikulua arabera.

Lege bereko 73.2 artikulua zehazten du xehetasun-azterketen zehaztapenak zertara mugatuko diren:

“2.– Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:

a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.

b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.

c) Urbanizatzeko-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuaren egongo dira jasota.”

Kasu honetan, sestrareko eta sestrageinako lerrokadurak ahokatzeko eta fatxada guztietan hegala jartzeko aukera jasotzea 73.2.a puntuarekin bat dator.

Hala ere, Lurzorua eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 73.3 artikulua arabera:

“3.– Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoa b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe”.

Beraz, hurrengo puntuetan aztertuko da aurkeztutako proposamenak indarreko plangintzak (Tolosako HAPOk) ezarritako aurreikuspenak errespetatzen ote dituen.



• **EGITURAZKO HIRIGINTZA ARAUDIA BETETZEA:**

Tolosako Plan Orokorren arabera, lursail hori "13. Laskoain" izeneko hirigintza esparruko 13.1. San Frantzisko pasealekua 37 azpiesparruan dago. Azpiesparru hau hiri-lurzoru bezala sailkatuta dago eta A.20 Eraikuntza Irekiko Bizitegi Zona bezala kalifikatua dago. Proposatutako egiturazko hirigintza-parametroen azterketa hauxe da:


		TOLOSAKO HAPO	XEHETASUN AZTERLANA	BETETZEN DU (BAI/EZ)
AZPIESPARRUAREN AZALERA (m2)		1.512	1.547,02 (plano topografiko zehatzaren ondorio da neurketa hau)	BAI (<%5)
ERAIKIGARRITASUN A (m2(s))	SESTRA GAINEAN	2.847	2.847	BAI
	LIBREAK	2.352	2.352	BAI
	TERTZIARIOA	495	495	BAI
	SESTRA AZPIAN	3.280	3.280	BAI
KALIFIKAZIO GLOBALA (m2)		A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (1.512)	A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (1.547,00)	BAI
HIRIGINTZA-SAILAKAPENA		Hiri-lurzorua	Hiri-lurzorua	BAI

HAPOk azpiesparruaren muga aldatu egiten da zertxobait eragileak egindako plano topografiko zehatzaren ondorioz. Baina HAPOk 15.3 artikuluari jarraikiz, plangintza xehatuaren xede den esparruaren mugaketaren birdoikuntzak onargarriak dira esparru horien azalera % 5 baino gehiago handitu edo murrizten ez bada. Eraikigarritasunari dagokionez, indarrean dagoen eraikigarritasuna mantentzen dela adierazten da baina ez da garbi gelditzen garajeko irteera berriaren eraikigarritasuna kontuan hartu den. **Gainontzean, betetzen dira egiturazko parametro guztiak.**


Ohartarazten da, Xehetasun Azterlanean gehieneko lerrokadurak definitu badira ere, HAPOn ezarritako gehieneko eraikigarritasuna ezingo dela inola ere gainditu.

• **HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA BETETZEA:**

HAPOk hirigintza erregimen xehatua eta proposatutako antolamenduaren arteko konparaketa honako hau da:



indarrean dagoen antolamendu xehatua




proposatutako antolamendu xehatua

ESKU89cc4dff-5d24-49de-b4d1-3437e09461bd



	TOLOSAKO HAPO			XEHETASUN AZTERLANA			BETETZE N DU (BAI/ EZ)
HIRI-LURZORUAREN KATEGORIZAZIOA	Urbanizazio gabeziagatik finkatu gabeko hiri-lurzorua (1.512 m ²)			Urbanizazio gabeziagatik finkatu gabeko hiri-lurzorua (1.547m ²)			BAI
KALIFIKAZIO XEHATUA (m²)	Erabilera pribatua. Hirug. sekt.	495	547,80	Erabilera pribatua. Hirug. sekt.	495	551,00	BAI
	Erabilera pribatua Eraikiezina	52,80		Erabilera pribatua Eraikiezina	56,00		
	Erabilera publikoko eremuak	964,20		Erabilera publikoko eremuak	996,00		
ETXEBIZITZEN ERREG.	Etxebizitza libreak			Etxebizitza libreak			BAI
ETXEBIZITZA KOP.	Ez da zehazten			Ez da zehazten			BAI
ERAIKINAREN PROFILA	1 BLOKEA	III+BS+IV		1 BLOKEA	III+BS+IV		BAI
	2 BLOKEA	III+BS+V+A		2 BLOKEA	III+BS+V+A		BAI



Indarrean dagoen antolamendu xehatuaren eta proposatutakoaren arteko alderaketa

Hasierako onespena eman zitzaion Dokumentuan, UR Agentziak ezarritako baldintzak bete asmoz eraikinetik at garajeko irteera berri bat jartzeko aukera jasotzen zen. Baina bizilagunen alegazioak ikusita irteera hori eraikinaren barruan txertatu da oraingo proposamenean.



Bestalde, proposatutako lerrokadurei dagokienez, nahitaezko lerrokadurei eta lerrokadura maximoei buruzko zuzenketak egiteko eskatu zen Xehetasun Azterlanari hasierako onespena eman zitzaionean. **Eskatutako zuzenketak egin dira.**

Hegalei dagokienez, aldaketa hauek proposatzen dira:

- 1 blokeak ez zeukan hegalak izateko aukerarik indarrean dagoen hirigintza araudiaren arabera eta dokumentu honetan 3 fatxadetan hegalak izateko aukera jasotzen da. **San Frantzisko kaleko inguruko eraikinen estetika jarraitu ahal izateko egoki ikusten da eraikin honek hegalak izatea.**

- 2 blokeak indarreko araudiaren arabera bi fatxadetan izan zitzakeen hegalak eta dokumentu honetan hiru fatxadetan hegalak izateko aukera jasotzen da. Bestalde, hegal horiek erantsitako eraikinaren mehelinerraino luzatzeko aukera ere jasotzen da. **Proposamena egoki ikusten da ondoko eraikinaren ezaugarriak ikusita.**

• **PLANAREN OHIKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA:**

46/2020 Dekretuak, martxoaren 24koak, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak, 6.3 artikuluan honako hau jasotzen du lurralde- eta hirigintza-plangintza ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jartzearen inguruan:

“2.– Ez dira ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jarri behar ez xehetasun-azterlanak, ez eraikingintza- edo hirigintza-ordenantzak, ez arkitektura- edo hirigintza-ondarea babesteko katalogoak, ez baitira plantzat hartzen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera. Gainera, prozedura hori ez da beharrezkoa, halakoak garrantzi txikikoak baitira eta ez baitute batere gaitasun berritzaileak, hirigintza-antolamenduaren ikuspegitik.

Beraz, Xehetasun Azterlan hau ez dago ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende.

• **TXOSTEN SEKTORIALAK:**

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA - GIPUZKOAKO URAKEN TXOSTENA: aldekoa.

2021/11/12an erregistro telematiko bidez Gipuzkoako Ur Kontsortzioa-Gipuzkoako Uraken aldeko txostena sartu zen Udaletxean. Txosten horretan Gipuzkoako Ur Kontsortzioa – Gipuzkoako Urarek honako hau adierazten du:

1. **Ez duela inolako eragozpenik ikusten planteatutako aldaketekin.**
2. **Dagokion urbanizazio proiektua prestatzeko, kontuan izan beharko direla txostenean jasotzen diren hainbat xedapen. Eta urbanizazio proiektua onartzeko beharrezkoa izango dela beraien aldeko txostena.**



UR AGENTZIAREN ETA KANTAUURIKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOAREN
TXOSTENAK: aldekoak

Xehetasun azterlanaren eremua Oria ibaiaren zaintza eremuan sartzen da eta, ondorioz, dokumentuari hasierako onespena eman ondoren, dagokion txostena eskatu zen.

2022/01/05ean erregistro telematiko bidez sartu zen Udaletxean eskatutako txostena. Zehazki, UR Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostenak. Hala ere, bigarren txostenean honako hau adierazten da:

“III. CONCLUSIONES Y PRONUNCIAMIENTOS

Analizada la documentación presentada, y en virtud de la argumentación previamente expuesta, se concluye:

1. *El Estudio de Detalle deberá incorporar un informe del gestor del servicio de agua (Consortio de Aguas de Gipuzkoa) que garantice que la red cuenta con recursos suficientes para amparar las necesidades de abastecimiento de agua.*

2. *Del mismo modo deberá aportarse justificación de la entidad gestora de la depuradora en la que se garantice que la EDAR podrá, además de admitir con garantías las aguas residuales del desarrollo propuesto, cumplir las normas de calidad de las aguas del medio receptor.*

3. *Dada la afección por inundabilidad señalada en el cuerpo de este informe, conforme a lo establecido en el artículo 40.4 del Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, no podrán ser autorizados:*

40.4.a) *Los nuevos usos residenciales que se dispongan a una cota alcanzable por la avenida de periodo de retorno de 500 años.*

En este sentido, el Estudio de detalle que se elabore para aprobación provisional deberá incorporar un perfil edificatorio donde se refleje que la cota de la cara superior del forjado en la planta que se pretendan usos residenciales es superior a la cota de la lámina de inundación correspondiente a la Q500.

40.4.b) *Garajes subterráneos y sótanos, salvo que se garantice la estanqueidad del recinto para la avenida de 500 años de periodo de retorno y dispongan de respiraderos y vías de evacuación por encima de la cota de dicha avenida.*

En este sentido el documento ya recoge medidas que garantizan tanto la estanqueidad como el acceso por encima de la avenida Q500.”

Beraz, 3. puntua betetzen dela adierazten da txostenean bertan eta 1. eta 2. puntuak betetzen direla ziurtatzen duen Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren txostena jaso da.



• **ONDORIOA:**

Beraz, kontuan izanda xehetasun azterlanak antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adierazi, zuzendu edo osatu ditzakeela eta bolumenen berrantolaketa egin dezakeela (ikus *Lurzoruaren 2/2006 Legearen 73. artikulua*), proposatutako aldaketak justifikatuta daudela, eta dagozkion administrazio sektorialen aldeko txostenak jaso direla, ez da eragozpenik ikusten xehetasun azterlanari behin betiko onespena emateko.

3.- PROPOSAMENA:

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, eta txosten honetan azaltzen diren argudioetan oinarrituta, hauxe proposatzen da:

LEHENENGOA.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA “13 Laskoain” esparruko “13.1. San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruko Xehetasun azterlanari (2021eko abenduaren 22an aurkeztutako dokumentuari).

BIGARRENA.- Aurreko erabakian aipatzen den Xehetasun Azterlana Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezaten argitaratu baino lehen.

HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespeneren erabakia, onartutako dokumentuaren arau-zehaztapenekin batera, eta baita Xehetasun Azterlana Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan jaso izanaren agiria ere.

LAUGARRENA.- Behin betiko onartzeko erabakia argitaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

BOSGARRENA.- Adieraztea ezen, Xehetasun Azterlanean gehieneko lerrokadurak definitu badira ere, ezingo dela inolaz ere gainditu HAPOn ezarritako gehieneko eraikigarritasuna.

SEIGARRENA.- Gogoraraztea dagokion urbanizazio proiektua prestatzeko kontuan izan beharko direla Gipuzkoako Ur Kontsortzioa – Gipuzkoako Uraken txostenean jasotzen diren xedapenak. Bestalde, Urbanizazio Proiektu horrek erakunde honen eta UR Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostenak jaso beharko ditu behin betiko onarpena jaso ahal izateko.

ZAZPIGARRENA. Ebazpena interesdunei jakinaraztea”.

Aurreko guztia kontuan hartuta, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzea jarraitu du, eta behin betiko onespena Udalbatzari dagokio, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.



Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzordeak, 2022ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Olatz Peon, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Ander Figuerido.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Partzialki onestea San Frantzisko 35 zenbakiko Jabekide Elkartek, Milian Arabaolaza Barandiaranek ordezkatura, zein Oihane Beloki Zubirik, agiriaren sinatzaileen izenean, "13. Laskoain" eremuko "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruaren xehetasun-azterlanaren hasierako onespeneren erabakiaren jendaurreko erakustaldian aurkeztutako alegazioak.

- San Frantzisko pasealekuko 35. zenbakiko Jabekide Elkartek aurkeztutako alegaziotik honako hauek onartzen dira:

1. Xehetasun-azterlanean aipamen moduan jasotzea, indarrean den Tolosako HAPOK adierazitako moduan, "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruaren sotoaren eta San Frantzisko pasealekua 35.eko sotoaren arteko sarbide/bide-zorra.
2. Xehetasun-azterlanean egokitzea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruaren sestrapeko lerrokadura San Frantzisko 35.eko partzelaren mugaraino eramanetz eta, horrela, San Frantzisko 35.eko garajeko sarbidea egokitzeko aukerak erraztuz. Dena dela, sestra gainean pasabide publikoak bi metroko zabalera izatea bermatu beharko da.

- Oihane Beloki Zubirik, agiriaren sinatzaileen izenean, aurkeztutako alegaziotik honako hau onartzen da:

1. Sestra azpiko aparkalekuetara sartzeko eskailera eta igogailua bi etxadietako bateko behe solairuan egitea.

BIGARRENA.- Behin betiko onespenera ematea "13. Laskoain" esparruko "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruko xehetasun-azterlanari (2021eko abenduaren 22an aurkeztutako dokumentuari).

HIRUGARRENA.- Xehetasun Azterlana Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezaten argitaratu baino lehen.



LAUGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespeneraren erabakia, onartutako dokumentatuaren arau-zehaztapenekin batera, eta baita Xehetasun Azterlana Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan jaso izanaren agiria ere.

BOSGARRENA.- Behin betiko onartzeko erabakia argitaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan, Udaletxeko iragarki taulan jartzea, eta egoitza elektronikoa ere eskuragarri jartzea.

SEIGARRENA.- Adieraztea birpartzelazio-proiektuan hirigintzako higiezin-konplexua eratzeko aurreikuspena jaso beharko dela indarreko plangintzan ezarritako aurreikuspenak betez.

ZAZPIGARRENA.- Adieraztea ezen, Xehetasun Azterlanean gehieneko lerrokadurak definitu badira ere, ezingo dela inolaz ere gainditu HAPOn ezarritako gehieneko eraikigarritasuna.

ZORTZIGARRENA.- Gogoraraztea kontuan izan beharko direla Gipuzkoako Ur Kontsortzioa – Gipuzkoako Urakentzaren txostenean jasotzen diren xedapenak dagokion urbanizazio proiektua prestatzeko. Bestalde, Urbanizazio Proiektu horrek erakunde honen eta Ur Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostenak jaso beharko ditu behin betiko onarpena jaso ahal izateko.

BEDERATZIGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Xehetasun Azterlanak zuzenean eragiten dien jabeei eta gainerako interesdunei.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.



Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du behin betiko onespena ematea "13. Laskoain" esparruko "13.1 san frantzisko pasealekua 37" azpiesparruko xehetasun-azterlanari.

**8. AZKENDUTZAT EMATEA "13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37"
AZPIESPARRUAREN GARAPENERAKO SINATUTAKO HIRIGINTZAKO
HITZARMENA.**

Lurraldeko batzorde informatiboaren 2022ko urtarrilaren 19ko irizpena

Esparrua:	13. Laskoain
Azpiesparrua:	13.1 San Frantzisko pasealekua 37
Sinatzaileak:	Tolosako Udala eta Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paúl
Sinatze data:	2008/10/20
Espedienteak:	2021H1100002 B51/131/20080001 B51/131/20100001
Erlazionatutako espedienteak:	2021H1070002 – Xehetasun azterlana. 2021H1130003 – Urbanizatzeko Jarduketa Programa (UJP/PAU). 2021H1140002 – Ituntze-hitzarmena.

AURREKARIAK

2008ko urriaren 20an Tolosako Udalaren eta Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paúl kongregazioaren artean sinatutako hitzarmenean, indarraldiari zegokionez, adierazi zen hura egongo zela Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren behin betiko onarpenaren eta plan horretan lursail horri ematen zaion hirigintza araubidearen mende.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritako indarraldi-araubide mugatua izanik, ordea, adierazitako hitzarmenaren indarraldia amaituta dagoela ulertuta, iraungi egin behar zela erabaki zen 2021eko azaroaren 30ean. Honako erabaki hau hartu zuen Tokiko Gobernu batzarrek:

«LEHENA.- *Onartzea prozedura abiaraztea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruaren garapenerako sinatutako hirigintzako hitzarmena, indarraldia igarotzeagatik, azkendutzat emateko.*

BIGARRENA.- *Hamabost eguneko entzunaldia ematea Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paúl kongregazioari edo, hala badakio, bere ordezkariari egoki irizten diren alegazioak aurkez ditzan.*

HIRUGARRENA.- *Adieraztea hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz, Tolosako Udalak 13.1 azpiesparrua egikaritzeko jarduerak sortutako gainbalioetan izango duen partaidetza bat etorriko dela urbanizazio-kargarik*



gabeko hirigintza-eraikigarritasunaren % 15arekin, eta, beraz, inolaz ere ez hitzarmenaren seigarren klausulan aitortutako eskubideen esleipenarekin.

LAUGARRENA.- *Ebazpena interesdunei jakinaraztea».*

Erabaki hori 2021eko abenduaren 21ean jakinarazi zitzaion Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paúl kongregazioari. Entzunaldi epea igarota, udal idazkariak gaurko egunean ziurtagiria egin du adieraziz ez dela alegaziorik aurkeztu.

AZTERKETA JURIDIKOA

I. Izapidetutako administrazio-prozedura

“13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren garapenerako sinatutako hirigintzako hitzarmena azkentzeko espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu dio, beraz, behin betiko onspena eman daiteke.

Hirigintza-hitzarmena azkendutzat ematen den ebazpenean beharrezkoa izango da adieraztea Udalaren hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioen parte-hartzea hirigintza-eraikigarritasunaren % 15ekoa izango dela, urbanizazio kostuetatik libre.

II. Organo eskuduna

Plangintzako hitzarmena izanik, hitzarmena azkendutzat ematea Udalbatzari dagokio, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 22.2 c. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzordeak, 2022ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Olatz Peon, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria eta Ander Figuerido.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Azkendutzat ematea “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren garapenerako sinatutako hirigintzako hitzarmena.



BIGARRENA.- Hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz, adieraztea Udalaren hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioen parte-hartzea hirigintza-eraikigarritasunaren % 15koa izango dela, urbanizazio kostuetatik libre.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan, udal iragarki taulan, eta egoitza elektronikoa ere eskuragarri jartzea.

LAUGARRENA.- Interesdunei erabakiaren berri ematea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturraspe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du azkendutzat ematea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruaren garapenerako sinatutako hirigintzako hitzarmena.

9. 2022/97 ALKATETZA DEKRETUAREN BERRI EMATEA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN LIZITAZIOAN CASER RESIDENCIAL, S.A.U. ENPRESAK BIDALITAKO LANGILE SUBROGAGARRIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEA ETA ESKAINTZAK ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA 2022KO OTSAILAREN 28 ARTE LUZATZEA.

Udalbatzarkideei 2022/97 Alkatetza dekretuaren berri eman zaie. Honela dio:

2021SABI0011

ALKATETZAREN DEKRETUA

OLATZ PEON ORMAZABAL andreak,
Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak
emana, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak,

DECRETO DE ALCALDÍA

Emitido por Dña. OLATZ PEON
ORMAZABAL, alcaldesa-presidenta del
Excmo. Ayuntamiento de Tolosa, en virtud



Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 117. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

I.- AURREKARIAK

Lehen.- 2021eko abenduaren 23an, udalbatzak Tolosako etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kontratuaren espediente onartu zuen, prozedura irekiaren bidez esleitu beharrekoa, eta lizitazioari hasiera eman zion.

Bigarrena.- 2021eko abenduaren 24an, zegokion iragarkia argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioaren profileen, eta abenduaren 29an, berriz, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren gehigarrian.

Hirugarrena.- 2022ko urtarrilaren 11n, lizitazioan interesdun batek eskatuta, argibide bat argitaratu zen subrogatu beharreko langileen zerrendari buruz.

Laugarrena.- Aurreko azalpena argitaratu ondoren, emandako eta argitaratutako informazioan desadostasunak zeudela egiaztatu zen, eta, beraz, egungo kontratistari eskatu zitzaion horiek argitzeko. Hori dela eta, 2022ko urtarrilaren 18an udal honetan argibide hori jaso da, eta bertan honako hau egiaztatzen da:

- Administrazio-klausula zehatzen pleguan argitaratutako langileen subrogazio-zerrendan, enpresa kontratistak 2021eko irailean emandako informazioa dago jasota.
- 2021eko urriaren 25ean, egungo kontratistak Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Estatuko Erakundearen jakinarazpen bat jaso zuen, non eskatzen zitzaion langileen zenbait kontratu mugagabe bihur zitzala, besteak beste

de lo dispuesto en el artículo 117 y en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, así como en el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

I. ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.- El 23 de diciembre de 2021 el pleno de la corporación aprobó el expediente del contrato del servicio de ayuda a domicilio de Tolosa, a adjudicar por procedimiento abierto y dio inicio a la licitación.

Segundo.- El 24 de diciembre de 2021 fue publicado el correspondiente anuncio en el perfil del contratación del País Vasco y el 29 de diciembre, en el suplemento del Diario Oficial de la Unión Europea.

Tercero.- El 11 de enero de 2022, a petición de un interesado en la licitación, se publicó una aclaración en relación con el listado del personal objeto de subrogación.

Cuarto.- Tras haber publicado la anterior aclaración, se constató que existían divergencias en la información facilitada y publicada, por lo que se requirió a la actual contratista para que aclarara las mismas. Dado lo cual, el 18 de enero de 2022 se ha recibido en este Ayuntamiento dicha aclaración en la que se constata lo siguiente:

- En el listado de subrogación del personal publicado en el pliego de cláusulas administrativas particulares, consta la información facilitada por la empresa contratista en septiembre de 2021.
- El 25 de octubre de 2021 la actual contratista recibió una comunicación del Organismo Estatal Inspección de Trabajo y Seguridad Social en la que se le instaba a que transformara en indefinidos



Tolosako ELZkoak, baimendutako gehieneko aldiak iraupen jakineko kontratuak gainditu zituelako.

- Aipatutako egunera arte ez da jakin Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Estatuko Erakundearen jakinarazpen horren berri, eta, beraz, ezin izan da zuzendu administrazio-klausula zehatzen pleguko VIII. eranskinean dagoen zerrenda.

II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenena.- *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, korporazioaren osoko bilkurari dagokio, besteak beste, kontratua esleitzea, interpretatzea, onura publikoko arrazoiengatik kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, kontratua aldatzea, kontratua azkentzea eta horren ondorioak zehaztea, 190. artikuluan eta SPKLren 191. artikuluan ezarritako muga arabera.*

Bigarrena.- *Udalbatza ez da bilduko 2022ko urtarrilaren 27a baino lehen, eta lizitatzailerei eta hautagaiei antzemandako akatsaren berri ez izateak ekarriko lizkiekeen kalte larriak saihesteko, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan m) letran xedatutakoarekin bat etorritik, alkate-lehendakariari dagokio bere kabuz eta bere erantzukizunpean, hondamendi edo hondamendi arrisku larriko neurri egokiak hartzea.*

determinados contratos de trabajadores, entre ellos del SAD de Tolosa, por haber superado los contratos de duración determinada los periodos máximos autorizados.

- No se ha tenido conocimiento hasta el día indicado, de dicha comunicación del Organismo Estatal Inspección de Trabajo y Seguridad Social y por tanto, no se ha podido corregir el listado existente en el anexo VIII del pliego de cláusulas administrativas particulares.

II.- FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- *De conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, corresponde al pleno de la corporación, en tanto órgano de contratación, entre otros, la adjudicación del contrato, la interpretación, la resolución de las dudas que puedan surgir en el mismo por razones de utilidad pública, la modificación del contrato, la extinción del mismo y la determinación de sus efectos, todo ello de acuerdo con los artículos 190 y 191 de la LCSP y con los límites, condiciones y efectos establecidos en su Reglamento General.*

Segundo.- *Dado que el pleno de la corporación no tiene previsto reunirse antes del 27 de enero de 2022 y para evitar los graves perjuicios que para los licitadores y candidatos supondría no tener conocimiento del error advertido, de conformidad con lo dispuesto en el apartado m) del artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, procede a la alcaldesa-presidenta adoptar personalmente, y bajo su responsabilidad, en caso de catástrofe o de infortunios públicos o grave riesgo de los mismos, las medidas necesarias y adecuadas dando cuenta inmediata al Pleno.*



Horregatik, aurreko guztia oinarri hartuta, alkate-lehendakari honek

EBATZI DU

Lehena.- CASER RESIDENCIAL, S.A.U. enpresak bidalitako behin betiko zerrenda argitaratzea. Bertan, 2021eko abenduaren 31n, Tolosako etxez etxeko laguntza-zerbitzuari atxikitako langileak jasotzen dira. Zerrenda horretan, kontratua aldatu zaien langileen datuak nabarmentzen dira, baita lanorduen ehunekoari buruzko oharrak ere.

Bigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, eta lizitazaitzen eta hautagaien lehia eta eskubideak eta interesak bermatze aldera, SPKLren 136.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eskaintzak eta proposamenak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 28ko, astelehena, 15:00ak arte luzatzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen berehalako berri ematea osoko bilkurari.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari. Ebazpen horren aurka, errekurtsio hauek aurkeztu ahal izango dira:

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez,

Por ello, en base a todo lo anterior, esta alcaldesa-presidenta

RESUELVE

Primero.- *Publicar el listado definitivo remitido por la empresa CASER RESIDENCIAL, S.A.U. en el que consta, con fecha 31 de diciembre de 2021, el personal adscrito al servicio de ayuda a domicilio de Tolosa. En dicho listado aparecen resaltados los datos de las trabajadoras cuyo contrato ha sido objeto de modificación, así como las observaciones en lo que al porcentaje de horas de trabajo se refiere.*

Segundo.- *Como consecuencia de lo anterior y a los efectos de garantizar la concurrencia y los derechos e intereses de los licitadores y candidatos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 136.2 LCSP prorrogar el plazo de presentación de ofertas y proposiciones hasta el lunes, 28 de febrero de 2022 a las 15:00 horas.*

Tercero.- *Dar cuenta inmediata al pleno de esta resolución.*

La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos:

Antes de recurrir judicialmente contra él, el interesado, si lo desea, podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación de este acuerdo. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En caso contrario, el interesado podrá



edo aipatu errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunei legearen arabera jakinaraz bekio.

Agindu eta izenpetzen duena alkate-lehendakariak, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinadura elektronikoaren egunean.

*Alkate-lehendakaria
La alcaldesa-presidenta*

interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de la notificación de este acuerdo, en lugar de interponer recurso de reposición o impugnar la contestación a dicho recurso. El presente recurso deberá ser presentado ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Notifíquese en forma legal a los interesados.

La alcaldesa-presidenta que ordena y firma y yo, la secretaria que doy fe, en Tolosa, el día de la firma electrónica.

*Udal idazkaria
La secretaria municipal*

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

10. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 21:10 etan, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari akzidental naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O. e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IPLE0001-2022-01-27 Ohiko Osoko bilkurako akta/2022-01-27 Ohiko